



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

LAN-BALDINTZEI BURUZKO INKESTA

LBI-2016

1996-2016 ikuspegia

2018eko azaroaren 20a

*Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika
Organo Espezifikoa*

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Organo Estatistiko Espezifikoak agiri honetan 2016rako eguneratutako **Lan Baldintzei buruzko Inkestaren** (LBI) emaitzak aurkezten ditu. LBI izeneko eragiketa Euskal Estatistika Planean sartzen da, eta arestian aipatu den Eusko Jaurlaritzako saila arduratzen da hartaz.

Txostenaren ardatza Euskal Autonomia Erkidegoko soldatapekoen eta antzekoen lan-baldintzek 1996 eta 2016 bitartean izan duten bilakaeraren azterketa da, eta, bereziki, 2013 eta 2016 bitartean gertatutako aldaketak azaltzen dira. Analisiak kolektibo hauek aztertzen ditu: soldatapekoak zentzu hertsian, kooperatibistak eta beren enpresetan soldatapeko gisa lan egiten duten autonomoak edo kanpoko enpresa bakar batentzat ia-ia eskusiboki lan egiten dutenak (TRADE langileak).

Aurreko edizioetan bezala, LBI 2016ren txostenak lan-baldintzen ikuspegi zabala hartzen du abiapuntu, kontuan izanda lan-baldintzak lanaren jardunarekin lotutako dimentsioen multzo anitz eta askotariko batek definitzen dituztela. Alde horretatik, LBIn lan-baldintzen alderdi hauek aztertzen dira:

- *Langileak enpresarekin duen harremana.* Horren barruan, hainbat alderdi daude, hala nola kontratu mota, lanbide-kategoria, ordaintzeko sistemak eta ordainsari horien zenbatekoa. Beste gai batzuk ere jorratzen dira kapitulu horretan; adibidez, prestakuntzarekin eta sindikatzeko-mailekin lotutakoak.
- *Lanaren antolamendua.* Kapitulu horretan, antolamendu-egiturari eta lanen garapenari buruzko alderdiak aztertzen dira, baita lan-erritmoa eta produktibitatea ere. Era berean, kontuan hartzen da diskriminazio-egoerak ere gerta daitezkeela.
- *Lan-denbora.* Lanaldiaren ezaugarriak, ordutegiak, eta horiek bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzearekin duten lotura. Horrez gain, atal honetan lanaldi partzialeko lana eta urteko lan-egutegia ere hartzen dira kontuan.
- *Ekipamenduen erabilera, laneko giroa eta arriskuak.* Zenbait ekoizpen-ekipamenduren erabilera, lana zer ingurumen-baldintza eta baldintza psikofisikotan egiten den, eta laneko segurtasun- eta osasun-jarduerak aztertzen dira.
- *Lanarekiko gogobetetasuna.* Lan-baldintzen alderdiei buruz azaldutako gogobetetasuna aztertzen da.

2013an bezala, 2016an bereziki kontuan hartzen dira soldatapekoen eta antzekoen lan-baldintzak 2013 eta 2016 bitartean nabarmen okertzea ekarri duten alderdiak, eragindako pertsonen beraiei ikuspegitik aztertuta.

LBI 2016 txostenaren emaitzak laburbilduta aurkeztu dira, eta hautemandako aldaketa nagusiak izango ditu ardatz. Emaiza nagusien txostenarekin batera doazen Estatistika Eranskinak eragiketaren estatistika-emaitzetan xehe sakontzeko aukera emango du.

1. SOLDATAPEKOEN BILAKAERA

2013 eta 2016 artean soldatapeko hertsien eta kooperatibisten bolumenak jaisten jarraitzen du, baina handitu egin da soldatapekoen antzeko autonomoen kolektiboa

2013 eta 2016 artean, egoera ekonomikoa hobetzearekin batera, Euskadin LBI azterketaren xede den biztanleriaren bolumena handitu egin dela ikusi da. Soldatapekoen eta antzekoen multzoak (kooperatibistak eta soldatapekoen antzeko autonomoak) 784.274 pertsona zituen 2013an, eta 792.017, berriz, 2016an; eta aldi horretan urteko % 0,33ko batez besteko igoera izan du.

1. taula

Soldatapekoak eta antzekoak. Lanbide-egoera. Euskal AE. 2009-2016

Datu absolutuak eta 2009-2016 bilakaera kopuru absolututan eta urteko batez besteko aldakuntza %-tan

	2009	2013	2016	Bilakaera 2009-2013		Bilakaera 2013-2016	
				Urteko batez besteko aldakuntza %-tan		Urteko batez besteko aldakuntza %-tan	
Lanbide-egoera	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%-tan	Abs.	%-tan
Guztira	812.857	784.274	792.017	-28.583	-0,89	7.743	0,33
Soldatapeko hertsia	778.241	734.036	726.349	-44.204	-1,45	-7.687	-0,35
<i>Sektore publikoko soldatapekoak</i>	<i>157.270</i>	<i>138.153</i>	<i>135.006</i>	<i>-19.118</i>	<i>-3,19</i>	<i>-3.147</i>	<i>-0,77</i>
<i>Sektore pribatuko soldatapekoak</i>	<i>620.970</i>	<i>595.883</i>	<i>591.343</i>	<i>-25.087</i>	<i>-1,03</i>	<i>-4.540</i>	<i>-0,25</i>
Kooperatibista	34.617	25.365	21.581	-9.252	-7,48	-3.784	-5,24
Beste kasu batzuk	0	24.873	44.087	24.873		19.214	21,02

Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapeko hertsien kopuruak, ordea, beheranzko joerari eusten dio: 778.241 ziren 2009; 734.036 ziren 2013an, eta, 726.349, berriz 2016an. Ekonomiaren hobekuntzak beheranzko joera txikitzea soilik eragiten du, bai kopuru absolututan (-44.204 landun 2009-2013ra, eta -7.687 landun 2013 eta 2016 artean), bai kopuru erlatibotan (urteko batez besteko beherakada -% 1,45ekoa izan zen 2009 eta 2013 artean, eta -% 0,35ekoa 2013 eta 2016 artean).


Kopuru absolututan, 2013-2016 epealdian, sektore pribatuko soldatapekoen bolumena gehiago jaitsi zen sektore publikoko soldatapekoena baino: -4.540 landun gutxiago sektore pribatuan eta -3.147 gutxiago, berriz, sektore publikoan. Hala ere, kopuru erlatibotan, askoz galera handiagoak izan dira sektore publikoan. 2013 eta 2016 artean, sektore publikoko soldatapekoen bolumenak % 0,77ko batez

besteko beherakada izan du, eta sektore pribatuko soldatapekoenak, aldiz, % 0,25 egin du behera (-% 3,19 bata eta -% 1,03 besteak 2009 eta 2013 artean).

Dena den, beherakada erlatibo handiena kooperatibistena izan da, eta oraindik ere urteko batez besteko beherakadak oso handiak dira (-% 5,24, 2013 eta 2016 artean, eta, beraz, ez 2009 eta 2013 artean izandako -% 7,48tik oso urrun). Kopuru absolututan, ordea, askoz txikiagoa izan da azken hirurtekoan: 3.784 gutxiago 2013 eta 2016 artean, eta 9.252 gutxiago 2009 eta 2013 artean. Dena den, deigarria da beheranzko joera kolektibo horretan 34.617 kooperatibista baitzeuden 2009an, 25.365, berriz, 2013an eta 21.581, 2016an.

2013an ez bezala, 2016. urtean 747.930 soldatapeko hertsia, edo kooperatibistak, gutxiago dira LBI-2004an agertzen zirenak baino (756.298). Eta urte horretako inkestan agertzen zen kopuru horrek 1996 urtean adierazten ziren 568.000 landunekiko hazkunde argi eta jarraitua erakusten zuen. 2016an okupazioari dagokionez 2004. urtearekiko izan zen beherakada kooperatibisten eta sektore pribatuko soldatapeko hertsien artean ikusten da (612.294 landun 2016an eta 616.920, berriz 2004an), baina baita sektore publikoko soldatapekoen artean ere (135.006 eta 139.378, hurrenez hurren).

1. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gutziz bestela gertatu da, ordea, LBI n soldatapekoen antzekotzat jotzen den autonomoen kolektiboarekin, oso igoera handia izan baitu. Bere enpresako soldatapekoak eta enpresa bakarrerako lan egiten duten autonomoak 24.873 ziren 2013an eta 44.087 dira 2016an, eta, aldi horretan, urteko batez besteko igoera % 21,02koa izan da.

Landunen kopuruak 2013-2016 aldian izan duen dinamika ez da berbera izan lanaren eduki guztietan, ezta talde soziodemografiko guztietan ere

Okupazioan dinamika okerrean izaten jarraitzen dutenak kategoria baxuak dira, baina kategoria altuko eta erdiko zenbait eremutara ere zabalduta da 2013 eta 2016 bitartean.

Lanaren edukia kontuan hartuta, 2013 eta 2016 bitartean, soldatapekoen eta antzekoen artean bilakaera okerrean lanbide-kategoriako bi multzo berezituak izan dute. Lanbide-egituraren goiko mailan, okupazioaren beheranzko joera handitu egin da zuzendarien artean eta irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean. Maila horretan, 2009 eta 2013 bitartean okupazioaren urteko batez besteko beherakada $-0,23\%$ izatetik, 2013 eta 2016 bitartean $-7,7\%$ izatera pasa zen zuzendarien artean, eta $-1,84\%$ $-4,74\%$ irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean. 2009 eta 2016 bitartean, bi talde horietan okupazioaren galera 20% ingurukoa da ($-22,3\%$ eta $-19,7\%$, hurrenez hurren).

Okupazioaren dinamikak kaltetutako bigarren talde handia kategoria baxuko edo bestelako zereginak multzoko lan-edukia dutenak dira. Izan ere, arlo horietan 2016an okupatutako soldatapekoen eta antzekoen bolumena, kasu guztietan, 2009koa baino -13% txikiagoa da.

Kategoria baxuko edukietan, eta 2009. urtearekin alderatuta, okupazioak, 2016an $-13,4\%$ eta $-16,1\%$ arteko jaitsiera izan du, merkataritzako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko kategoria baxuetan eta bestelako zereginak taldean. Hirugarren sektoreko ekoizpenean, urtean 2% inguruko jaitsiera-erritmoa izan da ($-2,28\%$ 2009 eta 2013 bitartean eta $-1,70\%$ 2013 eta 2016 bitartean), eta beste bi arloetan, berriz, okupazioaren bilakaera okertu egin da 2013tik aurrera (urteko $-1,02\%$ batez besteko jaitsiera, 2009 eta 2013 bitartean, eta urteko $-4,37\%$ 2013 eta 2016 bitartean, Bestelako jarduerak taldean; eta $0,92\%$ igoera 2009 eta 2013 bitartean, eta $-6,84\%$ jaitsiera, kategoria baxuko merkataritzaren arloan).

Kategoria baxuetan, jaitsierak -20% tik gorakoak dira 2009 eta 2016 bitartean bulegoko lanetan edo industria-ekoizpenean ($-23,3\%$ eta $-26,6\%$, hurrenez hurren). Bi arlo horietan, ordea, jaitsiera 2009-2013 bitartekoa da, batez ere, okupazioak hobera egin baitzuen 2013 eta 2016 bitartean, urtean batez beste $2,21\%$, bulegoan, eta $1,92\%$, industria-ekoizpenean.

Osasun arloko goi-mailako tituludunen artean 2016an okupazio-maila 2009an baino $36,3\%$ altuagoa den arren, deigarria da 2013 eta 2016 bitartean izandako urteko batez besteko $-3,27\%$ jaitsiera. Eta, aldiz, kategoria altuko edo ertaineko industria-ekoizpenean, aldi horretan urteko batez besteko $2,24\%$ igoera izan da, eta kategoria baxuko industria-ekoizpenean gertatu bezala, buelta eman zaio 2009-2013 epealdiko bide negatiboari (aldi horretan, urteko batez besteko $-0,51\%$ jaitsiera izan zen). Emaiza orokorra hau da: 2016ko okupazio-maila 2009koa baino $4,7\%$ altuagoa da. Joera-aldaketa horixe bera izan da, baina areagotua bulegoko kategoria altu edo ertainetan: urteko batez besteko $8,54\%$ igoera izan da 2013 eta 2016 bitartean (eta $-2,77\%$ jaitsiera 2009 eta 2013 bitartean). Arlo horretan, 2016ko okupazio-maila $14,3\%$ altuagoa da 2009koa baino.

Bilakaera onena merkataritzako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko goi mailako edo erdi mailako kategoriek izan dute: soldatapekoen eta antzekoen okupazio-maila etengabe handitu da 2009tik, eta

urteko batez besteko % 12,06 eta % 6,51eko hazkundera izan dute, hurrenez hurren, 2013 eta 2016 bitartean. 2009ko datuekin alderatuta, 2016ko okupazio-maila % 62,7 altuagoa da merkataritzako kategoria horietan eta % 73,5% altuagoa, hirugarren sektoreko ekoizpenekoan.

2. taula


Soldatapekoak eta antzekoak. Lan-edukiaren tipologia. Euskal AE. 2009-2016
Datu absolutuak eta 2009-2016 bilakaera kopuru absolututan eta urteko batez besteko aldakuntza %-tan

Lan-edukia	2009	2013	2016	Urteko batez besteko aldakuntza epealdien arabera		Aldakuntza osoa 2009-2016	
	Abs.	Abs.	Abs.	2009-2013	2013-2016	Abs.	%-tan
Guztira	812.857	784.274	792.017	-0,89	0,33	-20.840	-2,6
Zuzendaritza	59.464	58.928	46.227	-0,23	-7,77	-13.237	-22,3
Irakaskuntza (goi-mailako titulazioa)	64.014	59.438	51.381	-1,84	-4,74	-12.633	-19,7
Osasuna (goi-mailako titulazioa)	21.949	33.043	29.906	10,77	-3,27	7.957	36,3
Bulegoa (kategoria altua eta ertaina)	87.222	77.962	99.699	-2,77	8,54	12.478	14,3
Merkataritza (kategoria altua eta ertaina)	50.356	58.215	81.926	3,69	12,06	31.569	62,7
Industria-ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	97.633	95.640	102.207	-0,51	2,24	4.574	4,7
Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	30.832	44.260	53.485	9,46	6,51	22.652	73,5
Bulegoa (kategoria baxua)	34.483	24.782	26.458	-7,93	2,21	-8.025	-23,3
Merkataritza (kategoria baxua)	116.742	121.089	97.907	0,92	-6,84	-18.834	-16,1
Industria-ekoizpena (kategoria baxua)	92.128	63.859	67.602	-8,76	1,92	-24.526	-26,6
Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria baxua)	96.316	87.814	83.404	-2,28	-1,70	-12.912	-13,4
Bestelako zereginak	61.718	59.244	51.815	-1,02	-4,37	-9.903	-16,0

Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2. grafikoan, modu sintetikoan ikusten da okupazioak 2009tik aurrera dinamika desberdina eduki zuela lan-edukiaren arabera.


2. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

3. grafikoak erakusten duen bezala, kasu batzuetan, 2009-2016 epealdian lanaren eduki batzuei eragin dien okupazioaren narriadurak azken krisia baino lehenagoko garaian dauka jatorria. Hala, 2000 eta 2004 bitartean aurrerapen handia izan zen kategoria baxuko jarduerak egiten dituzten pertsonen eta bestelako zereginak egiten dituztenen, baina okupazioaren dinamikak landunen beherakada nabarmena eta etengabea izan du 2004az geroztik. 2004-2016 epealdian, okupazio-talde hori 418.471 landunetik 327.286ra igaro zen; beraz, 2004an zuen okupazio-bolumenaren % 21,8 galdu du. Galera horren zati handiena industria-ekoizpenari eta bestelako zereginak taldeari dagokio.

3. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Eta bilakaera hori kategoria altu edo ertaineko lanek izandakoaren guztiz bestelakoa da. Kategoria horietan, 337.827 landun zeuden 2004an, eta 464.831, berriz, 2016an; beraz, % 37,6ko igoera izan da. Dena den, kasu horretan, eta 2009tik aurrera industria-ekoizpeneko okupazioan geldialdia hautemateaz gain, okupazioa asko jaitsi da 2013 eta 2016 bitartean zuzendaritzako langileen eta osasunaren arloko eta irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean (kolektibo horietako batzuetan beheranzko joera ikusten zen 2009tik). Kategoria altu eta ertainekoaren artean, 2013 eta 2016 bitartean okupazioan izan igoera, berez, bulegoko, merkataritzako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko jarduerari dagokie.

Okupazioaren beheranzko joerari eutsi zaio 30 urtetik beherako emakumeen artean eta 30 eta 44 urte bitarteko gizonen artean, baina zertxobait gora egin du gizon gazteen eta 30 eta 44 urte arteko emakumeen artean. Gorakada handiena 45 urtetik gorakoen artean izan da.

Sexuaren eta adinaren arabera, eta 2009-2016 epealdi osoa aintzat hartuta, krisiaren eragina (eta demografiaren beherakadarena) agerikoa da biztanle gazteenen artean. Nahiz eta okupazioak hobera egin duen 30 urtetik beherako gizonen artean, urtean batez beste % 0,48, 2013 eta 2016 artean, aipatu behar da kolektibo horretan landunen kopurua 2009an baino % 41,7 txikiagoa dela 2016an baino, eta 30 urtetik beherako emakumeen artean izan den jaitsiera baino handiagoa da -% 36,8koa baita kolektibo horretan. Eta azken kasu horretan, okupazioaren jaitsierak bere horretan jarraitu du 2013 eta 2016 artean, urtean batez beste -% 0,72.

2013 eta 2016 artean, bilakaera okerreana 30 eta 44 urte arteko gizonek izan dute: talde horretan, okupazioan urteko batez besteko -% 5,24ko jaitsiera izan da, 2009-2013 epealdiko -% 1,31 baino askoz handiagoa. Guztira, 30 eta 44 urte arteko gizon okupatuen bolumena -% 19,3 murriztu da 2009 eta 2016 artean. Adin-talde horretan, ordea, hobetu egiten da okupazioa emakumeen artean (urtean % 0,67 batez beste), eta, beraz, talde horretan egonkortu egin da okupazioa 2009 eta 2016 artean (+% 1,1).

2013 eta 2016 artean, okupazioa gehiago handitu da 45 urte eta gehiagoko biztanleen artean. Gizonezkoetan, urtean batez beste % 2,73 (2009-2013 epealdiko % 1,35 baino gehiago). Hazkundearen erritmoa moteldu egin da emakumeen artean: urtean batez beste % 6,97 handitu zen 2009 eta 2013 artean, eta % 3,35, berriz, 2013 eta 2016 artean, baina aldi horretako handiena da. Izan ere, talde horretan handitu da gehien enplegua 2009 eta 2016 artean (+% 44,6, 45 urte eta gehiagoko gizonen +% 14,4tik ondo gora).


3. taula

Soldatapekoak eta antzekoak. Sexua eta adina. Euskal AE. 2009-2016
Datu absolutuak eta 2009-2016 bilakaera kopuru absolututan eta urteko batez besteko aldakuntza %-tan

				Urteko batez besteko aldakuntza epealdien arabera		Aldakuntza osoa (%) 2009-2016	
	2009	2013	2016	2009-2013	2013-2016	Abs.	%-tan
Sexua eta adina	Abs.	Abs.	Abs.				
Guztira	812.857	784.274	792.017	-0,89	0,33	-20.840	-2,6
Gizona	447.667	410.850	399.996	-2,12	-0,89	-47.671	-10,6
Gizona 16-29	85.931	49.377	50.089	-12,93	0,48	-35.842	-41,7
Gizona 30-44	189.867	180.137	153.299	-1,31	-5,24	-36.569	-19,3
Gizona 45-64	171.869	181.336	196.609	1,35	2,73	24.740	14,4
Emakumea	365.190	373.424	392.021	0,56	1,63	26.831	7,3
Emakumea 16-29	76.522	49.428	48.371	-10,35	-0,72	-28.150	-36,8
Emakumea 30-44	169.403	167.815	171.225	-0,24	0,67	1.822	1,1
Emakumea 45-64	119.266	156.181	172.424	6,97	3,35	53.158	44,6


Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

4. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

5. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hobekuntza ekonomikoa izan den arren, oso deigarria da ikustea krisiak nola kaltetu duen gizonen okupazioa. Soldatapekoen okupazioaren jaitsiera moteldu egin den arren 2013tik aurrera, eta 2009tik gora egin duen arren 45 urteko eta gehiagokoen artean, 2016an soldatapeko eta antzeko lana duten gizonak 2009an baino % 10,6 gutxiago dira. Kopuru absolututan, 2009an 447.667 ziren, eta 2016an 399.996 dira. 5. grafikoan ikus daitekeen bezala, kopururik txikiena da 2000tik (418.233 izan ziren orduan). 1996ko 371.325 landunen goitik dago soilik.

Kontrastea oso handia da emakumeen artean. Horren ildotik, eta krisialdian hazkunde-tasak txikiagoak izan arren, emakumezko soldatapekoen kopurua etengabe igo da 1996az geroztik. Urte hartan 196.676 emakume landun zeuden; 2013an, 373.424; eta 2016an, 392.021. 1996. urtearekin alderatuta, % 99,3ko igoera da, gizonazkoen artean izan denaz guztiz bestelakoa: gizonazkoetan igoera % 7,7koa da soilik (eta bilakaerari erreparatuta, joan den mendeko urte horrekiko soilik eusten dio 2016an).

2016. urtea mugarri moduko bat da okupazioaren bilakaeran. 1996an soldatapekoen eta antzekoen artean zeuden 196.676 emakumeak gizonazkoen % 53 ziren ozta-ozta (soldatapeko eta antzeko 371.325 gizonazko zeuden), eta 2016an dauden 392.021ak, berriz, urte horretako soldatapeko eta antzeko 399.996 gizonen % 98 dira.

2. SOLDATAPEKOEN POSIZIOA EKOIZPEN-SISTEMAN ETA ENPRESAN

Soldatapeko hertsien eta kooperatibisten artean, landunen kopuruak behera egiten jarraitzen du ekoizpen-sistemako kategoria baxuetan, baina titulazio ertainetan eta goi-mailakoetan ere behera egin du

Krisialdian, baina, bereziki, 2009 eta 2013 artean, fenomeno deigarrienetako bat EAEko soldatapeko enpleguaren kategorien egiturak gorantz egitea izan zen. Hala, soldatapeko hertsien eta kooperatibisten artean, aldi horretan goi-kategoriako edo maila ertaineko administrarien populazioaren gorakada izan zen deigarriena, eta goi-mailako tituludunen bolumenaren bilakaera negatiboak soilik ñabartu zuen pixka bat.

Eta 4. taulan ikusten denez, 2013 eta 2016 artean, finkatu egin da 2009 eta 2013 artean goi-mailako tituludunen kategoriko landunen kopuruaren bilakaeran izandako beheranzko joera. Kategoria horretan, landunen kopuruak % 14,3 egin du behera 2009 eta 2016 artean. Titulazio ertainetan 2009 eta 2013 artean izandako igoera handiaren ondoren, 2013 eta 2016 artean jaitsiera izan da, eta, horrenbestez, beheranzko joeran egonkortu da 2016an, 2009. urtearekiko (-% 1,4). Guztira, 2016ko maila ertaineko edo goi-mailako landunak 2009. urtekoak baino 16.767 gutxiago dira (-% 9,4).

Goi-mailako kategorietan, ordea, 2009 eta 2016 artean administrazio-buruzagitzetan edo tailerreko buruzagitzetan lan egiten dutenak % 35,4 gehiago dira. Kategoria ertainei dagokienez, administrarien goranzko joera ere finkatu egin da, eta okupazioak % 17,2 egin du gora 2009-2016 epealdian.

Bestalde, lan-eskalako behe kategorietako soldatapeko hertsien eta kooperatibisten okupazioan zegoen beherazko joerak bere horretan jarraitu du. Hala, kasu horretan, 2004tik izan duen joera negatiboari eusten zaio, nahiz eta batez besteko okupazioaren jaitsieran pixka bat moteldu azken urteetan (-% 2,01 izan zen 2013-2016 epealdian eta -% 3,69, berriz, 2009 eta 2013 artean). Oro har, 2009 eta 2016 artean okupazioa % 20,7 jaitsi da kategoria baxuetan, eta proportzio hori % 21,9koa da 2004. urtearekin alderatzen bada (orduan baino 81.696 landun gutxiago).

2009. urtearekin alderatuta, eta kategoria baxuetan, ofizialen kategorian soilik handitu da okupazioa 2016an (+% 7,8). Baina erreferentzia moduan 2004. urtea hartzen badugu, 2016an ez dago okupazio-maila handiagoa duen kategoria baxuko lanbide-talderik.

Administrazioko lanetako okupazioan izandako goranzko joeraz gain, azken aldiko bilakaeraren alderdi positibo bat kategoria ertaineko administraziokoak bestelako lanetan jarduten dutenen okupazio-mailan izandako igoera da. Kasu horretan, 2009 eta 2013 artean okupazioak urtean batez beste -% 3,14ko jaitsiera izan ondoren, 2013-2016 epealdian urtean batez beste % 3,9ko igoera izan du. Oro har, 4.449 landun gehiago daude 2016an 2009an baino (+% 2,6).


4. taula

Soldatapeko hertsiaik eta kooperatibistak. Lanbide-kategoria. Euskal AE. 1996-2016
Datu absolutuak eta 2009-2016 bilakaera kopuru absolututan eta urteko batez besteko aldakuntza %-tan

Kategoria	2009	2013	2016	Urteko batez besteko aldakuntza epealdien arabera		Aldakuntza osoa 2009-2016	
	Abs.	Abs.	Abs.	2009-2013	2013-2016	Abs.	%-tan
Guztira	812.857	759.401	747.930	-1,69	-0,38	-64.927	-8,0
ALTUA	217.911	234.464	214.942	1,85	-2,15	-2.970	-1,4
Goi-mailako titulua	110.504	98.010	94.685	-2,96	-0,86	-15.819	-14,3
Erdi-mailako titulua	68.473	86.458	67.525	6,00	-5,99	-948	-1,4
Administrazioko eta tailerreko buruzagitza	38.934	49.997	52.732	6,45	1,34	13.797	35,4
ERTAINA	227.579	208.901	241.658	-2,12	3,71	14.080	6,2
Administrazioa	55.994	57.866	65.624	0,83	3,20	9.630	17,2
Beste batzuk	171.585	151.035	176.034	-3,14	3,90	4.449	2,6
BAXUA	367.367	316.035	291.330	-3,69	-2,01	-76.037	-20,7
Ofizialak	78.133	72.531	84.197	-1,84	3,80	6.064	7,8
Administrazio-laguntzailea	56.210	64.259	46.976	3,40	-7,53	-9.234	-16,4
Peoia	170.060	124.942	133.245	-7,42	1,62	-36.815	-21,6
Mendekoa	62.963	54.303	26.912	-3,63	-16,10	-36.051	-57,3

Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

6. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Ikusi den bilakaerak epe luzeko aldatetako dinamika estrukturala agertzen du. Dinamika hori alderdi honetan ikusten da batez ere: soldatapekoen eta kooperatibisten artean kategoria altuko langileek (goi-mailako tituludunak izan ezik) edo kategoria ertainekoek sisteman duen pisuak gora egitea, administrazio-jardueretan, batez ere.

6. grafikoan ikusten denez, administrazioaren arloko kategoria altuetan eta ertainetan 280.566 landun daude guztira. 2013ra arte, landunen talde horrek modu etengabea egin zuen gora, 1996ko 148.958 landunetatik 2013ko 292.331etara. 1996an, soldatapeko hertsien eta kooperatibisten % 26,2 ziren, eta 2013an, berriz, % 38,5. Maila ertaineko titulazioa edo goi-mailako titulazioa dutenen artean, 2013 eta 2016 artean okupazioak bera egin arren, kategoria ertainetan edo kategoria altuetan lan egiten duten 280.566 pertsonak soldatapeko hertsien eta kooperatibisten % 37,5 dira oraindik ere. Eta 2016ko landunen kopuruak, gainera, 2004koa (233.647 pertsona) baino handiagoa izaten jarraitzen du, bai eta 2009koa baino handiagoa ere (273.905 pertsona).

Barruan gorabeherak dauden arren, administrazioaz bestelako kategoria ertaineko lanetan enpleguak izandako goranzko joerak berretsi egiten du kategoria altuko eta ertaineko enpleguaren hazkundera, bai kopuru absolutuetan bai kopuru erlatiboetan: 1996tik altuena da 2016an. 2016an kategoria altu edo ertainetan lan egiten duten 456.600 pertsonak aztertutako epealdiko kopuru handiena dira, eta % 50,3ko igoera da 1996rekiko.

Eta, aldiz, landunen kopuruak 1996tik 2009ra gora egin ondoren (264.160 pertsona 1996an, eta 373.036, 2009an), krisiak eragin handia izan zuen kategoria baxuko soldatapekoen eta kooperatibisten artean. Kasu horretan, landunen kopuruak behera egiten jarraitu du etengabe ordutik, eta 2016an 291.330 dira, 1996koa baino handiagoa soilik den kopurua. 1996 eta 2004 artean soldatapeko hertsien eta kooperatibisten okupazioan % 46,5 eta % 49,3 artean izan ondoren, etengabe egin du behera kolektibo horren pisuak eta % 39koa da 2016an. 1996. urtearekin alderatuta, 2016an kategoria baxuko landunen kopurua urte horretakoa baino % 10,3 handiagoa da soilik. 2016an kategoria altuetan eta ertainetan izandakoa baino askoz gutxiago (kategoria altuetan % 73,3 eta ertainetan % 34,4).

7. grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Okupazioak kategoría altu eta ertainetan (administrazio-arloan) izan duen gorakada izan da soldatapekoen eta antzekoen artean emakumezkoen presentzia gero eta handiagoa izateko faktoreetako bat. Izan ere, 8. grafikoa ikusten den bezala, gero eta langile-kopuru handiagoa duen lanbide-arlo horretan emakumeak duen pisuak etengabe egin du gora 90ko hamarkadaren erdialdetik aurrera. 1996an proportzio hori okupazio osoaren % 41,7 zen; etengabe egin du gora, eta 2009an % 50etik gora zegoen (% 51,4). Gorakada 2016an ere egon da, eta % 56ra heldu da.

Epe luzeko gorakada 45 urtetik beherako pertsonen artean hauteman da bereziki. Emakumeak 1996an kategoría altuetan eta kategoría ertainetan/administrazio zereginetan okupazioaren % 48,2 ziren. Eta 2016an ehunekoak % 62,3ra arte egin zuen gora. 45 urtetik gorakoen artean, 1996an % 27,5 ziren, % 46 baino pixka bat gutxiago 2009an eta 2013an, eta % 49,8, berriz, 2016an.

Kategoría horietan bada deigarria den datu bat: 2013 eta 2016 artean izan zen jaitsierak gizonezkoen eragiten die, bereziki. Izan ere, gizonezkoen artean, administrazio-arloko kategoría altuko edo ertaineko okupazioak -% 8,1 egin zuen behera (134.330etik 123.408ra), emakumeen artean izan zen jaitsiera baino askoz handiagoa -% 0,5ekoa izan baitzen (158.001 ziren 2013an, eta 157.158, berriz, 2016an). Gizonezkoen artean izandako jaitsierak administrazio-arloko kategoría altuko edo ertaineko gizonezkoen okupazioa 2004koa baino txikiagoa izatea eragin du (124.456 ziren urte hartan). Eta oso bestelakoa izan zen emakumeen artean, 2016an % 43,9 gehiago dira 2004an baino (109.091 emakume ziren urte horretan).

8. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Iraupen mugagabeko kontratazioak nagusi izaten jarraitzen du, baina enpresarekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formek gora egin dute 2009tik

Krisiaren ondorioz behera egin du iraupen mugagabeko kontratua duten soldatapekoen bolumenak, eta horrekin batera, aldibaterakotasunak ere gora egin du.

5. taulak erakusten duen bezala, datuak baikortasunez ikus daitezke: iraupen mugagabeko kontratazioa errealitate nagusia da, eta, zalantzarik gabe, hori lotuta dago krisia gainditzea lortu duen EAEren ekoizpen-sistemaren kualifikazio-prozesuarekin. 2004ko datuekin alderatzen badugu, 2016an urte horretan baino 27.467 pertsona gutxiago daude aldi baterako kontratuarekin (17.091 gutxiago dira kontraturik gabekoak), eta iraupen mugagabeko kontratua duten soldatapekoak 43.622 gehiago dira 2004an baino.

Baina baikortasun horri zenbait ñabardura egin behar zaizkio. 2009 eta 2016 bitartean, iraupen mugagabeko kontratua zuten soldatapeko eta antzekoen kopurua 642.114tik 582.704ra jaitsi zen, eta okupazioa -% 9,3 murriztu da. Eta, aldiz, epealdi horretan, aldi baterako kontratua duten pertsonak % 18,8 gehiago dira: 129.597 ziren 2009an eta 153.972, berriz, 2016an. Iraupen mugagabeko kontratazioaren eta aldi baterako kontratazioaren batura kontuan hartuta, gainerako egoerak sartu gabe (kontraturik gabe edo beste egoeraren bat), aldibaterakotasunaren pisuak gora egin du: 2009an, % 16,8; 2013an, % 18,1; eta 2016an, % 20,9.

5. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Kontratu mota. Euskal AE. 1996-2016
Datu absolutuak eta 2004-2016 bilakaera kopuru absolututan eta ehunekotan


Urtea	Guztira	Mugagabea	Ez-mugagabea	Aldi baterakoa	Kontraturik gabe	Beste egoeraren bat
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.
1996	568.000	381.244	186.756	151.062	29.746	5.948
2000	680.971	480.129	200.842	172.605	22.369	5.868
2004	756.298	539.082	217.216	181.439	28.346	7.431
2009	812.857	642.114	170.743	129.597	25.407	15.740
2013	784.274	616.662	167.612	136.039	5.986	25.587
2016	792.017	582.704	209.313	153.972	11.255	44.087
Bil.2004/2009 Abs.	56.559	103.032	-46.473	-51.842	-2.939	8.308
Bil.2009/2013 Abs.	-28.583	-25.452	-3.131	6.443	-19.421	9.847
Bil.2013/2016 Abs.	7.743	-33.958	41.701	17.932	5.269	18.500
Bil.2009/2016 Abs.	-20.840	-59.410	38.570	24.375	-14.152	28.347
Bil.2004/2016 Abs.	35.719	43.622	-7.903	-27.467	-17.091	36.655
Bil.2004/2009 %	7,5	19,1	-21,4	-28,6	-10,4	111,8
Bil.2009/2013 %	-3,5	-4,0	-1,8	5,0	-76,4	62,6
Bil.2013/2016 %	1,0	-5,5	24,9	13,2	88,0	72,3
Bil.2009/2016 %	-2,6	-9,3	22,6	18,8	-55,7	180,1
Bil.2004/2016 %	4,7	8,1	-3,6	-15,1	-60,3	493,3

Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Horrez gain, 2009 eta 2016 artean, asko egin dute gora enpresarekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formek (enpresaren jabe diren soldatapekoak TRADE langileak). 2009 eta 2013 artean behera egin ondoren (25.407tik 5.986ra), gora egin du kontraturik ez dutenen kopuruak: 11.255 pertsona dira 2016.

Kontratazio mugagabearen bilakaera negatiboa den arren, 2016an iraupen mugagabeko kontratua zuten 582.704 soldatapekoen kopurua 2004koa baino % 8,1 handiagoa da. Eta 1996an mota horretako kontratua zuten 381.244 pertsonekin alderatuta, % 52,8 handiagoa da. Ildo beretik, 2016 aldi baterako kontratua duten edo soldatapeko moduan kontraturik gabe lan egiten duten 165.226 pertsonak 2004ko 209.785 pertsonak baino % 21,2 gutxiago dira. Dena den, 2016an harreman mugagabeaz bestelako formaren bat duten 209.313 landunak (kontraturik gabekoak eta bestelakoak kontuan hartuta) % 22,6 gehiago dira 2009ko 170.743 landunak baino, eta 2004ko maximoa baino % 3,6 txikiagoa da soilik (217.216 ziren urte horretan).

9. grafikoa




Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Edonola ere, kopuru erlatiboetan, aldi baterakotasunaren 2016ko kopuruak ez dira krisiaren aurreko urteen adinakoak. 2016an soldatapekoen eta antzekoen % 26,4en ezaugarria jatorriko enpresarekiko iraupen mugagabeko lan-harremanik eza zen, eta proportzio hori oraindik ere txikiagoa da 2004ko % 28,7a baino.

Baina enpresarekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formek 2013-2016 epealdian izandako gorakada handia aldaketa kualitatibo bat da: % 21ekoa zen 2009an; % 21,4koa, 2013an; eta % 26,4koa, 2016an. Batez ere soldatapekoen antzekoak diren formen hazkundeak eragin du (% 1ekoak edo hortik beherakoak ziren 2004ra arte; % 1,9koak, 2009an; eta % 5,6koak, 2016an), baina aldi baterako ohiko lanek eta kontraturik gabekoek ere eragin dute. Izan ere, soldatapeko eta antzekoen % 18,1 ziren 2013an eta % 20,9 dira 2016an. 2009ko % 19,1a baino gehiago dira, baina adierazle horrek 1996tik 2004ra baino askoz proportzio txikiagoa izaten jarraitzen du (% 27,7 2004an eta % 31,8 1996an).

10. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaren edukiaren edo sexuaren eta adinaren arabera talde batzuetan, kopuruen aldetik nabarmena da iraupen mugagabeko kontratazioak 2009-2016 epealdian izan duen gorakada.

Lanaren edukiari dagokionez, deigarria da kategoria altuko eta ertaineko lan batzuetan kanpoko enpresa batentzat lan egiteaz bestelako formetan izan den goraka handia.

11. grafikoan ikusten den bezala, osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean da bereziki agerikoa. Osasunaren arloko lanbiderik kualifikatuenetan, 2009-2013 epealdiko krisiaren ondorioz, errotik hautsi da 2004-2009 epealdian hauteman zen hobealdia. Osasunaren arloko profesionalen talde horretan, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko taldearen goranzko joera 2004 baino lehenagoko garaia ezaugarria izan zen: iraupen mugagabeko kontraturik gabekoaren proportzioa 1996ko % 23,7tik 2004ko % 31,8ra igo zen. 2004-2009 epealdian izandako jaitzieraren ondoren (% 26,6koa izan zen 2009an), 2009-2013 laurtekoan izan zen igoera handiak 2016ra arte jarraitu du, eta % 34,4koa da


enpresarekin harreman mugagabea ez dutenen ehunekoa. Eta, hain zuzen ere, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko taldeak 2016an 1996an baino proportzio handiagoa duen bi kasuetako bat da (% 34,4, % 23,7ren aldean).

Hau da, bigarren kasua 2013 eta 2016 artean zuzendaritzako jarduerekin, merkataritzako lanekin eta hirugarren sektoreko ekoizpenarekin lotutako kategoriatan altua eta ertainetan enpresa kontratatzailearekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formek izan duten gorakada. Maltzaian hartuta, halakoan kopuruak behera egin zuten 1996tik: 1996an % 20,3 ziren; 2009an, % 12,6; eta 2013an, % 13,8. Eta, 2016an, berriz, % 30,3.

Goian aipatutako bi maltza horiek, 2016an, kopuru handiagoak izan dituzte orain arte aldibaterakotasunak edo enpresarekiko harreman atipikoak gehien eragindako kategoriatan altuko kolektiboak baino, irakaskuntzako goi-mailako tituludunen kolektiboak baino, alegia. Irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean, iraupen mugagabeko kontraturik ez duten soldatapekoen eta antzekoen pisua egonkortu egin da % 26,5 inguruko kopuruetan 2004az geroztik, eta pixka bat txikiagoa da 1996ko eta 2000ko kopuruekin alderatuta (% 28,2 eta % 30,4, hurrenez hurren).

Kategoria altuko edo ertaineko bulegoko zereginetan eta industria-ekoizpenean, kontratu mugagabea ez dutenen igoera ez da hain nabarmena eta krisiaren aurreko mailetatik behera dago (% 21 eta % 22,8 artekoak ziren). Baina profesional horien artean 2009an izandako minimotik (% 11ekoa izan zen), adierazleak gora egin du % 16,4ekoa baita 2016an.

11. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Enpresarekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formek eragin askoz handiagoa duen arren, antzeko dinamika dago lan-harremaneko gainerako formetan, bai forma horietan ere arazoaren eraginak gora egin duelako, bai krisiaren aurreko aldian baino eragin erlatibo txikiagoa duelako.

Hala, kategoria baxuko bulegoko, merkataritzako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko jardueretan, 2013-2016 epealdian kontratu mugagaberik gabeko harremanak izandako igoera txikiak (% 27tik % 28,3ra) ez du aldatzen, oraingoz, kontratu mugagaberik gabeko harremanak 1996tik izandako jaitsiera: % 46,5koa zen 1996an, eta % 30,9koa, 2009an.

Aldaketa handiagoak ikusten dira kategoria baxuko industria-ekoizpenean eta bestelako zereginetan. Talde horretan, aurreko urteetan aldaketa handia izan zen kontratu mugagaberik gabeko harremanen eraginean: % 38,2koa zen 1996an; % 21,7koa, 2009an, eta pixka bat altuagoa, % 23,4koa, 2013an. Baina 2016an aldaketa deigarri bat izan zen, % 32,3raino iritsi baita, 2004ko % 32,7tik oso hurbil, beraz.

Sexuaren eta adinaren arabera, iraupen mugagabeko kontraturik gabeko lan-formek 2009 eta 2013 bitartean izan duten gorakadaren ondorioz, 30 urtetik beherako biztanleria, gizonak zein emakumeak, % 50eko atalasearen gainetik dago. Emakumeen artean, adierazlea egonkortu egin da, % 51,5koa da, 2009ko minimotik (% 49,6) hurbil eta krisiaren aurreko urteetan baino txikiagoa da; baina gizonetan gora egiten jarraitzen du eta % 55,3koa da 2016an. 1996ko % 63,5a soilik du gainetik.

12. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

30 urtetik gorako biztanlerian, 2009 eta 2016 bitartean iraupen mugagabeko kontraturik gabeko okupazioak egonkortzen jarraitzen du 45 eta 64 urte arteko emakumeen artean. 2009ko eta 2003ko maila (% 15,5) gaingitzen badu ere 2016an, % 16,9koa baita, proportzio txikiena da sexuaren eta

adinaren araberako multzo guztien artean, eta, lehenengo aldiz, halako kontratu gutxien izaten dituen kolektiboarena baino txikiagoa da, 45 eta 64 urte arteko gizonena baino txikiagoa, alegia. Multzo horretan, 2009an % 6,5era iritsi ondoren, proportzioak gora egin du: % 11,2ra, 2013an, eta % 18,7ra 2016an. Eta, horrenbestez, 1996ko maila gainditu du (% 12,2koa izan zen).

30 eta 44 urte arteko adin-taldean, asko igo dira enpresarekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formak. Emakumeen artean, % 24 ingurukoa izan zen 2009an eta 2013an, eta % 30,2koa 2016an. Eta azken proportzio horretatik gora dagoen bakarra 2014ko % 31,1 da. Gizonen artean, 1996ko % 22,7tik % 14,3ra jaitsi ondoren 2009an, 2013an adierazleak gora egin zuen berriro % 17,8ra eta goreneko mailara iritsi zen 2016an: % 25,5koa izan zen, LBI egiten denetik handiena.

Soldatapekoen eta antzekoen ordainsariak gora egon dute pixka bat, baina 2009ko kopuruetatik urrun daude

Alderdi ekonomikoan, 2013-2016 epealdian, soldatapekoen eta antzekoen epe luzerako dinamika estrukturalaren ezaugarri nagusia ordainsariak gorantz egonkortzea da (soldaten diru-sarrerak eta antzekoak).

6. taulan ikusten denez, 2009 eta 2013 bitartean, kobratutako azken hileko batez besteko ordainsari garbiak behera egin zuen 1.503,01 eurotik 1.453,80 eurora, eta jaitsiera erlatiboa -% 3,27koa izan zen. 2013 eta 2016 bitartean, zenbatekoak gora egin du pixka bat, 1.471,13 eurora (% 1,19ko igoera hirurtekoan).

2009 eta 2013 bitartean izandako jaitsiera zertxobait txikiagoa izan zen orduko ordainsariari dagokionez (-% 2,45), eta adierazlea 2009ko batez besteko 10,80 eurotik 2013ko 10,54 eurora igaro zen. 2016an, orduko ordainsariak % 0,65 egin du gora, eta 10,61 eurokoa da.

Prezio konstanteetan, ordainsarien jaitsiera askoz nabarmenagoa da 2009 eta 2016 artean. -% 10,6ra iritsi da orduko ordainsarian (11,87 eurotik 10,61 eurora) eta -% 10,9ra hileko ordainsarian (1.651,14 eurotik 1.471,13 eurora). Hileko ordainsarian, 2013-2016 epealdiko igoera % 0,59 izan da soilik, eta ia egonkor eutsi zaio orduko ordainsariari (+% 0,05).

Kopuru konstanteetan, 2016ko zenbakiak 2004ko batez besteko soldaten kopurutik gertu daude. Urte harekin alderatuta, igoera ozta-ozta % 0,36koa izan da orduko ordainsarian (urte hartan kopurua orduko 10,57 euro zen) eta 2016an 10,61 euro, lau zentimo gehiago soilik). Hileko ordainsariari erreparatzen badiogu, igoera % 2,42koa da (1.436,37 euro, 2004an, eta 1.471,13 euro 2016an). 2013-2016 epealdian izandako hobekuntza aintzan hartzean, kontuan izan behar da 2000-2004 laurtekoko beheranzko joera. Izan ere, hileko 1.471,13 euroko ordainsaria txikiagoa da, kopuru konstanteetan, 2000. urtekoak baino (1.477,42 euro), nahiz eta orduko ordainsarian igoera izan: 10,37 eurotik 10,61 eurora).

6. taula

Soldatapekoak eta antzekoak



Azken hilabeteen kobratutako ordainsari garbiaren eta orduko ordainsariaren batez bestekoa (prezio korranteetan eta 2016ko prezioetan). Euskal AE. 1996-2016

Batez bestekoa eurotan eta batez besteko aldaketa epealdi jakin batzuetarako, %tan

	1996	2000	2004	2009	2013	2016	Aldakuntza			
Ordainsariaren adierazlea	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	2009-2013	2013-2016	2009-2016	2004-2016
Ordainsaria, guztira (prezio korranteak)	892,70	1030,60	1143,15	1503,01	1453,80	1471,13	-3,27	1,19	-2,12	28,69
Ordainsaria, guztira (prezio konstanteak)	1424,32	1477,42	1436,37	1651,14	1462,52	1471,13	-11,42	0,59	-10,90	2,42
Orduko ordainsaria (prezio korranteak)	6,38	7,23	8,41	10,80	10,54	10,61	-2,45	0,65	-1,81	26,10
Orduko ordainsaria (prezio konstanteak)	10,18	10,37	10,57	11,87	10,60	10,61	-10,66	0,05	-10,62	0,36

Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

13.a eta 13.b grafikoak



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Orduko ordainsariari dagokionez, eta 2016ko prezio konstanteetan konparatuz, ikusten da 2009 eta 2013 artean beherakada erlatibo nabarmena egon dela EAEko batez besteko diru-sarrerak edo handiagoak dituzten soldatapeko edo antzekoetan. 2013 eta 2016 artean, prozesua aldatu eta medianaren % 100etik gorako diru-sarrerak dituztenak pixka bat gehiago dira.


2016ko prezio konstanteetan, batez besteko diru-sarreraren % 125 baino diru-sarrera handiagoak dituzten soldatapekoen pisu erlatiboak gora egin zuen % 23,9tik % 38ra 1996 eta 2009 bitartean. Eta handitu egin da, nahiz eta gutxiago izan, handitu egin da batez bestekoaren % 100 eta % 125 artean dituzten pisua: % 22 baino gutxiago ziren 1996an eta 2000n, eta % 24,7, 2009an. Proportzio horiek, ordea, txikiagoak ziren 2013an: % 29,3 eta % 21,3.

2016an egonkortu egin da nolabait % 125etik gorako diru-sarrerak dituztenen ehunekoa (% 29,7 dira), eta gehixeago egin du gora % 100 eta % 125 artean dituztenena, % 23,1ekoa baita. 2009an izandako % 62,6tik oso urruti egon arren, EAEko medianatik gorako ordainsaria duen soldatapekoen eta antzekoen proportzioa handitu egin da 2013 eta 2016 artean (% 50,6tik % 52,7ra), 1996tik bigarren altuena, 2004ko % 50etik oso gora.

Izan ere, 2004arekin alderatuta, hobetu diren bi alderdi nabarmendu behar dira. Alde batetik, medianaren % 125etik gorako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa 2,3 puntu handiagoa da (2016an % 29,7, eta 2004an % 27,4). Beste alde batetik, medianaren % 75etik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa zertxobait txikiagoa da (2016an % 19,8, eta 2004an % 21,1).

Dena den, 2016an medianaren % 75etik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen proportzioa bigarren txikiena den 1996tik; aldi berean, 6,5 puntu handiagoa da 2009ko minimotik, % 13,3koa izan baitzen.

14. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hala ere, diferentzia nabarmenak dira lanaren edukiaren eta sexuaren eta adinaren arabera

7. taulan ikusten denez, soldaten oraintsuko dinamikak portaera diferenteak izan ditu lanaren eduki batzuen eta besteen arabera.

2016an, 2009az geroztiko ordainsarien erorketaren eraginik handiena izan duen taldean daude kopuru errealetan 2009-2016 laurtekoan batez besteko ordainsarian guztira % 10etik gorako jaitsiera izan duten eta, gainera, 2004arekin alderatuta ere galerak jasan dituzten taldeak.

Talde profesional hauetan, hileko ordainsari garbien beherakada, 2016ko prezioetan, txikia da 2004koarekin alderatzen badugu irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako titulazioetan (-% 0,2 eta -% 1,3), baina -% 4,1 eta -% 4,5ekoa da, hurrenez hurren, merkataritzako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko esparruetako kategoria altu eta ertainetan. 2004 eta 2016 artean, jaitsiera -% 3,2 eta -% 6,1ekoa da, bulego-jarduera eta merkataritzako jarduerekin lotutako kategoria baxuetan. 2004. urtearekiko jaitsiera handiena hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan (-% 12,8).

Aztertutako lanbide-kategorietan, 2013-2016 epealdian pixka bat gora egin zuen hileko ordainsariak irakaskuntzako goi-mailako titulazioa dutenen artean (+% 1,8) eta merkataritzako kategoria baxuetan (+% 6). Eta, aldiz, oso jaitsiera deigarriak izan dira, -% 4,4 eta -% 8,3 artekoak, osasuneko goi-mailako titulazioa dutenen, hirugarren sektoreko ekoizpeneko kategoria altu eta ertainetan jarduten dutenek eta bulego-zereginetako kategoria baxuetan jarduten dutenak.

7. taula

Soldatapekoak eta antzekoak

Azken hilabeteen kibratutako ordainsari garbiaren batez bestekoa (guztira eta orduka 2016ko prezioetan), lan-edukiaren arabera. Euskal AE.

Batez bestekoen aldaketa epealdi jakin batzuetarako, % tan

Lan-edukia	Ordainketa, guztira			Orduko ordainsaria		
	2013-2016	2009-2016	2004-2016	2013-2016	2009-2016	2004-2016
Guztira	0,6	-10,9	2,4	0,0	-10,6	0,4
L1 Zuzendaritza	-5,5	-13,1	5,1	-0,9	-15,5	0,8
L2 Irakaskuntza (goi-mailako titulazioa)	1,8	-14,7	-0,2	3,6	-19,4	-9,2
L3 Osasuna (goi-mailako titulazioa)	-4,4	-18,9	-1,3	2,3	-11,2	0,
L4 Bulegoa (goi- eta erdi-mailako kategoria)	4,4	-9,8	9,8	5,9	-12,3	2,7
L5 Merkataritza (kategoria altua eta ertaina)	0,1	-13,9	-4,5	-5,9	-20,9	-6,2
L6 Industria-ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	3,4	-1,6	10,8	9,6	3,2	12,6
L7 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	-8,3	-15,9	-4,1	-5,2	-11,9	-11,0
L8 Bulegoa (kategoria baxua)	-6,2	-15,0	-6,1	-5,4	-12,7	-9,0
L9 Merkataritza (kategoria baxua)	6,0	-13,9	-3,2	1,8	-6,0	-1,9
L10 Industria-produkzioa (kategoria baxua)	2,4	-8,7	-2,0	1,4	-11,0	0,7
L11 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kategoria baxua)	-1,3	-14,6	-12,8	-4,8	-6,9	-7,0
L12 Bestelako zereginak	-2,6	-17,1	3,0	-9,1	-11,6	-0,7

Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2016an zuzendaritzako lanetako ordainsariak 2004an baino % 5,1 handiagoak diren arren, krisiaren eragina oso garrantzitsua izan da lanbide-kategoria horretan ere, ordainsariek -% 13,1eko jaitsiera izan baitute 2009 eta 2016 artean, 2013-2016 epealdiko beheranzko joera handiak ere lagunduta (-% 5,5). Antzeko dinamika izan du bestelako zereginen taldeak: ordainsariak -% 17,1 jaitsi dira 2009 eta 2016 artean, eta -% 2,6, berriz, 2013-2016 epealdian. Dena den, balantze garbia 2004tik gora dago (+% 3).

Bilakaera onena izan dutenen artean, kategoria altuko eta ertaineko bulego-jardueretan eta industria-ekoizpenekoetan (baxuak zein ertain-altuak) hileko ordainsariak % 2,4 eta % 4,4 artean egin zuten gora 2009-2016 epealdian. Kategoria baxuko industria-ekoizpenean izan ezik (-% 2ko jaitsiera izan baitu 2004. urtearekiko), talde horietan dute egoera onena urte horrekin alderatuta: ordainsari garbiak % 9,8 handiagoak dira bulegoko zereginetan jarduten duten kategoria altu eta ertainetan, eta % 10,8 handiagoak, industria-ekoizpenean jarduten duten kategoria altu eta ertainetan. Krisiak, ordea, izan du eragina talde horietan, 2009. urtearekin alderatuta hileko ordainsariak -% 8,7 egin baitute behera industria-ekoizpenean jarduten duten kategoria baxuetan eta -% 9,8 bulegoko kategoria altu eta ertainetan. Nahiz eta 2016. urtean ordainsariak 2009an baino -% 1,6 txikiagoak izan dituen, krisia nolabaiteko lasaitasunez gainditu duen lanbide-talde bakarra, eta 2004. urtearekiko igoera handiak izan dituen, industria-ekoizpeneko kategoria altu eta ertainena izan da.

Bilakaera alderatu onena izan duten talde horietan, bada datu garrantzitsu bat: orduko ordainsaria, 2016ko prezio konstanteetan, beti da 2004koa baino handiagoa, % 0,7 industria-ekoizpeneko kategoria baxuetan, % 2,7 bulegoko kategoria altu eta ertainetan, eta % 12,6 industria-ekoizpeneko kategoria altu eta ertainetan. Azken talde horretan, 2016ko orduko ordainsaria % 3,2 handiagoa da 2009koa baino, 2016ko prezio konstanteetan. Hiru kolektiboei komuna zaien beste elementu bat orduko ordainsariak 2013 eta 2016 artean izan duen dinamika positiboa da, % 5etik gorako igoerak izan dira bulegoko eta industria-ekoizpeneko kategoria altu eta ertainetan (% 5,9 eta % 9,6, hurrenez hurren), eta % 1,4koa da industria-ekoizpeneko kategoria baxuetan.

Egoera txarrean dagoen multzoan, orduko ordainsariak % 1,8 eta % 3,6 artean igo ziren 2013-2016 epealdian, merkataritza-jardueretako kategoria baxuetan eta irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako tituludunen artean.

Epe luzeagoko ikuspegi batean, 15. eta 16. grafikoei erreparatuta, ikusten da 2016ko ordainsari garbi erreala, urte horretako prezioetan, lan-educien talde bakar batean dela argi eta garbi 1996-2004 epealdikoa baino handiagoa industria-ekoizpenarekin lotutako kategoria altu eta ertainen taldean. Kasu horretan, 2016ko ordainsaria, 1.735,20 eurokoa, nabarmen handiagoa da 1996-2004 epealdiko 1.617,27 euroko gehieneko kopurua baino. Eta gauza bera gertatzen da orduko ordainsariarekin: 11,48 eurokoa izan zen 2016an, eta 10,67 euroko gehienekoa 1996-2004 epealdian. Hileko ordainsariak, gutxigatik, ez du gainditzen 2009koa (1.763,17 euro urte horretan), baina bai orduko ordainsariak (11,48 2016an eta 11,12 2009an). Lan-eduki horretako ordainsariak 2013 eta 2016 artean izandako igoera handiaren ondorio da.


Aztertutako gainerako lan-educien multzoetan, eta 2016ko prezioetan, hileko eta orduko ordainsariak urrun daude, argi eta garbi, 2009. urtean izandako maximoetatik, baina nolabait egonkortu dira 1996-2004 epealdiko batez besteko mailetan. Hala ere, eta industria-ekoizpenean izan ezik (bai kategoria altu eta ertainekoa, bai kategoria baxukoa), 2016an hileko ordainsaria oro har txikiagoa da 1996an baino. Gauza bera gertatzen da orduko ordainsariarekin, nahiz eta kasu honetan orduko ordainsari txikiagoa kategoria baxuko industria-ekoizpenak duen. Gainerako kategoria baxuko lan-educiek 1996ko maila gainditzen dute.

Egoera horrek, 2009-2013 epealdian ordainsarietan izandako jaitsiera adierazteaz gain, zenbait lan-edukitan 2016ra ere zabaldu dela adierazten dute. Bereziki deigarria da merkataritza-jardueretan, bulegokoetan, kategoria altu eta ertaineko hirugarren sektoreko ekoizpenean eta bestelako zereginetan. Lan-eduki horiek osatutako taldean, 2016an ordainsariak minimoak dira 2009. urtearekiko: 1.755,73 eurotik 1.518,29 eurora jaitsi da hileko batez besteko ordainsaria, eta 12,26 eurotik 10,45 eurora, orduko ordainsaria.

Nahiz eta 2013 eta 2016 artean zuzendaritzako jardueretan eta irakaskuntzako eta osasuneko tituludunen artean orduko ordainsariak zertxobait gora egin, lan-edukien multzo honetan oso deigarria da hileko batez besteko ordainsarien jaitsiera, 2016ra arte jaisten jarraitzen baitu: 2.260,47 eurokoa zen 2009an eta 1.923,72 eurokoa da 2016an. Kategoria baxuetan (industria-ekoizpenaz bestelakoetan), 2009-2016 epealdiko etengabeko jaitsiera bereziki deigarria da orduko ordainsarian, 2009an batez beste 9,18 eurokoa baitzen, eta 8,50 eurokoa 2016an. Eta nahiz eta 2013 eta 2016 artean pixka bat gora egin duen, gauza bera gertatzen da hileko ordainsarietan: 1.202,96 eurotik 1.027,19 eurora.


Industria-ekoizpenean, gorantzako joera da ezaugarri nagusia 2013 eta 2016 artean, bai orduko ordainsarian, bai hileko ordainsarian, eta, izan ere, kategoria altuetan goreneko mailan edo hortik hurbil daude 2016an. Kategoria baxuetan, ordea, hobekuntzak ez du lortu 2009ko antzeko mailetara heltzea eta oraindik horretatik urrun dago: orduko 9,12 eurokoa da batez beste 2016an eta 10,24 eurokoa izan zen 2009an; hilean, 1.382,46 eurokoa izan da 2016an, eta 1.513,51 eurokoa izan 2009an).

15. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

16. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, 2013-2016 epealdian, bilakaera onena zenbait emakume-taldek izan dute 2016ko prezioetan, 8. taulan ikus daitekeen bezala. Alde batetik, 45 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean hileko batez besteko soldata % 8,3 igo da. 2009ko mailatik oso behera dagoen arren (-% 12,6) talde horrek izan du ordainsari diferentzial handiena 2004. urtearekiko (+% 3,9). Bilakaera, ordea, okerragoa da orduko ordainsariari erreparatzen badiogu: 2004koa baino % 3,3 txikiagoa da, nahiz eta % 5,6 handitu den 2013 eta 2016 artean.

Hileko ordainsarien batez besteko maila berreskuratzen duen beste talde bat 30 urtetik beherakoen taldea da, % 10,8 handitu baita 2013 eta 2016 artean. Baina, adin berekoen gizonekin batera, 2009. urtearekiko bilakaerarik okerrera izan duen taldeetako bat da: ordainsariak -% 17,4 txikiagoak dira urte horretan baino eta -% 4,1 txikiagoak 2004koak baino (-% 4,2 orduko ordainsarietan). 2013 eta 2016 artean, orduko ordainsaria ere jaitsi egin da emakumeen talde horretan (-% 1,9).

Bilakaera are okerragoa da 30 urtetik beherako gizonen artean: 2013 eta 2016 artean hileko batez besteko ordainsaria izoztu egin da, eta asko jaitsi da 2009-2013 epealdian. Kasu horretan, hileko batez besteko ordainsariak 2009koak baino -% 18,1 txikiagoak dira eta 2004koak baino -% 8,4 txikiagoak. Urte horri dagokionez, ordainsarien jaitsiera lan egindako ordu kopuruak behera egin duelako gertatu da, paradoxikoa dirudien arren orduko ordainsaria % 4,6 handiagoa baita 2016an 2004an baino. Baina 2013. urtearekin alderatzen badugu, deigarria da gazteenen orduko ordainsarien jaitsiera: -% 5,5, emakume gazteen -% 1,9 baino handiagoa.

2013 eta 2016 bitartean hileko batez besteko ordainsariak aldaketarik gabe izan dituen gizonen beste talde bat 45 eta 64 urte artekoena da. Dena den, 2009-2013 epealdian jaitsiera txikiagoa izan zutenez, 2016ko ordainsariak 2004koarekin alderatzen baditugu balantzea positiboa da, hileko batez besteko ordainsaria % 1,2 igo baita, nahiz eta orduko ordainsaria -% 3 jaitsi den.

2013 eta 2016 bitartean, bilakaera txarrena 30 eta 44 urtekoek izan dute. Gizonen artean, hileko batez besteko ordainsaria -% 2,1 murriztu da, eta emakumeen artean, -% 4,1. 2004. urtearekin alderatuta, batez besteko ordainsaria -% 0,7 jaitsi da gizon artean eta -% 2,5 emakumeen artean. Eta jaitsiera are handiagoa da orduko batez besteko ordainsarian: -% 2,4 gizonen artean eta -% 8,3 emakumeen artean, 2004 eta 2016 bitartean. Aldi horretan, 30-44 urte bitarteko orduko batez besteko jaitsiera 16 eta 29 urte bitarteko emakumeen -% 4,2ko jaitsiera baino handiagoa da. -% 2,4 eta -% 3,3 artekoa da 45 urtetik gorako gizonen eta 30 urtetik gorako gizonen artean (bada kasu paradoxiko bat: % 4,6ko igoera izan da 30 urtetik beherako gizonen artean).

8. taula

Soldatapekoak eta antzekoak

Kobratutako azken hilabeteen ordainsari garbiak izandako bilakaera (guztira eta orduka 2016ko prezioetan), sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE.

Batez bestekoen aldaketa epealdi jakin batzuetarako, % tan

	Ordainketa, guztira			Orduko ordainsaria		
	2013-2016	2009-2016	2004-2016	2013-2016	2009-2016	2004-2016
Lan-educia						
Guztira	0,6	-10,9	2,4	0,0	-10,6	0,4
Gizona	-0,5	-9,1	3,6	-0,6	-9,3	2,2
Gizona 16-29	0,0	-18,1	-8,4	-5,5	-13,4	4,6
Gizona 30-44	-2,1	-11,5	-0,7	0,4	-10,7	-2,4
Gizona 45-64	-0,3	-9,6	1,2	-1,3	-10,7	-3,0
Emakumea	3,4	-11,2	5,1	1,1	-11,6	-1,1
Emakumea 16-29	10,8	-17,4	-4,1	-1,9	-13,6	-4,2
Emakumea 30-44	-4,1	-13,9	-2,5	-3,5	-13,6	-8,3
Emakumea 45-64	8,3	-12,6	3,9	5,6	-14,4	-3,3

Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

17. eta 18. grafikoek epe luzeragoko hurbilketa egiteko aukera ematen dute, datuak 2016ko prezio konstantetan adierazita 1996az geroztik epealdietan. Datu horiek, hasteko, adierazten dute 30 urtetik gorako gizonen izan dutela, 2016an, guztirako ordainsari handiena (1.800,48 euro, 45 urtetik gorakoek eta 1.593,83 euro 30 urtetik 44ra bitartekoek). Alderdi horretan, 45 urtetik gorako emakumeengandik urrun daude (1.436,11 euroko batez bestekoa dute), lan egindako orduen kopurua handiagoa delako, batez ere. Izan ere, orduko ordainsariari erreparatzen badiegu, emakumeen talde horrek ordainsari handiagoa du: 11,20 euro orduko, 30 urtetik 44ra bitarteko gizonak baino gehiago (10,57 euro), eta 45 urtetik gorako gizonen ordainsaritik hurbil (11,75 euro, 2016an). Eta, gainera, 2009tik aurrera 30 urtetik gorako gizonen ordainsarietan izandako jaitsiera orokorra ez da gertatu 45 urtetik gorako emakumeen artean, 2013-2016 epealdian asko handitu baita haien batez besteko ordainsaria: 1.325,79 eurotik 1.436,11 eurora hilean; eta orduko 10,61 eurotik 11,20 eurora.

Eta, hain zuzen ere, 45 urtetik gorako emakumeen talde hori da 2016an hileko batez besteko ordainsaria 1996-2004 epealdiko erregistro guztietakoa baino handiagoa duen bakarra (1.436,11 euro, 2016an, eta 1.381,64 euroko gehienekoa, 1996-2004 epealdian). Ez da gauza bera gertatzen orduko


ordainsariarekin: 11,20 euroko batez bestekoa izan da 2016an, 2004an izandakoa baino txikiagoa (11,58 eurokoa izan zen).

30 urtetik beherako emakumeen artean, 2016ko ordainsaria txikiagoa da 1996-2004 epealdian izandakoa baino: hileko batez besteko ordainsaria 1.022,74 eurokoa izan zen 2016an, eta txikiagoa da 2000. eta 2004. urteetan jasotakoa baino (1.026,74 eta 1.065,99 euro, hurrenez hurren). Eta, ildo beretik, 2016ko orduko ordainsaria ere txikiagoa da 2004koa baino (8,56 euro lehenengoan, eta 8,93 euro bigarreanean).

30 urtetik beherako gizonetan ere joera negatiboa da, eta ordainsaria ia etengabe jaitsi da 2009 eta 2016 artean, orduko ordainsarian, batez ere. Kasu horretan, hileko batez besteko ordainsaria 1996-2004 epealdi osoko erregistroetakoa baino txikiagoa da (1.206,15 eurokoa 2016an, eta epealdi horretan, minimoa 1.213,40 euro 1996an, eta maximoa 1.338,65 euro, 2000n). Orduko ordainsariari dagokionez, ordea, eta nahiz eta 2009ko orduko 10,59 euroetatik 9,17ra pasatu 2016an, zifra hori altuagoa da 1996-2004 epealdiko maximoa baino (orduko 8,89 euro, 2000. urtean).


Bilakaera txarrena 30 eta 44 urte bitarteko emakumeena izan da: etengabe jaitsi da haien ordainsaria 2009 eta 2016 bitartean. Adin-tarte horretako emakumeen artean, hileko batez besteko ordainsaria 1.420,14 eurotik (2009. urtea) 1.222,56 eurora jaitsi da (2016. urtea). Eta kopuru hori txikiagoa da 1996-2004 epealdiko guztiak baino, nahiz eta 2004. urtean jada jaitsiera handia izan (hilean batez beste 1.365 eurotik gora jasotzetik 1996an eta 2000an, 1.254,19 euro jasotzera, 2004an). Orduko ordainsariei dagokienez, 2016ko orduko 9,73 euroak, 2009ko 11,26 euroak baino askoz gutxiago izateaz gain, gutxiago dira 2004ko 10,61 euroak eta 1996ko 10,31 euroak baino ere.

17. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

18. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2016ko LBlak, oro har, generoen artean ordainsarietan zegoen desoreka pixka bat murriztu dela erakusten du, eta, bereziki, 2013koarekin alderatuta. Baina 9. taulan argi eta garbi ikusten den bezala, emakumeen ordainsariak txikiagoak dira 2016an ere.

Adierazlearen bilakaerari erreparatuta, eta 1996-2004 epealdian % 21,5 eta % 22,8 artekoa izan ondoren, 2009an emakumeen batez besteko ordainsari osoen desoreka % 19,6ra murriztu zen, baina 2013an berriro gora egin eta gehienekora iritsi zen: % 24,5. 2016. urtean, aldea % 21,6 murriztu da, eta 1996. urteko % 21,5etik hurbil dago, baina 2009ko % 19,6tik oso urrun. Eta, dena den, oso maila altuak dira.

Orduko ordainsarietan dagoen aldeari dagokionez, 2000. urtera arte % 6koa zen, eta 2004an, berriz, % 3,7koa. Hortik aurrera aldeak gorantz jo zuen, lehenengoz 2009an % 4,4ra, eta gero 2013an % 8,3ra. Aldea % 6,8ra jaitsi zen 2016an, baina bigarren handiena da 1996tik, eta urrun dago 2004. eta 2009. urteetako % 4kotik.

Bada gertaera adierazgarri bat: 2013-2016 epealdiko hobekuntza ez da adin guztietako emakumeen artean gertatu, eta bereziki nabarmena da 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean. Kasu horretan, 2016an izan da gizonen eta emakumeen arteko alde handiera: hileko ordainsariak gizonenak baino % 23,3 txikiagoak dira. Eta % 8koa da orduko ordainsarietan.

2013 eta 2016 artean aldea asko jaitsi da, ordea, gainerako adin-taldeetan. 30 urtetik beherako emakumeetan, % 23,5etik % 15,2ra murriztu da hileko ordainsarietan, eta % 10,1etik % 6,7ra, orduko

ordainsarietan. Hileko ordainsariari dagokionez, alde txikiena da 1996tik (2009an % 15,9koa zen). Orduko ordainsariari dagokionez, berriz, 2016koa 1996ko % 6,5ekoa baino pixka bat handiagoa da soilik. Dena den, zehaztu behar da aldeak murriztearen arrazoi nagusietako bat 30 urtetik beherako gizonen ordainsarien beherakada izan dela, eta, bereziki, orduko ordainsarien beherakada.

Hobekuntza handiagoa da 45 urtetik gorako emakumeen taldean. Kasu horretan, hileko ordainsarien arteko aldea 2013ko % 26,6tik 2016ko % 20,2ra murriztu da; % 10,9tik % 4,7ra, orduko ordainsariei erreparatzen badiogu. 2013. urtean 1996tik alde handienak izan ondoren (oso kaltegarriak adin-talde horretako emakumeentzat), 2016an 1996tik nagusi izan ziren mailetara bueltatu da. Hala, 2016ko hileko ordainsariaren aldea (% 20,2) 2009ko % 17,5ekoa baino handiagoa da soilik, eta 2004ko % 22,3ko aldea baino bi puntu txikiagoa da. Orduko ordainsariari dagokionez, 2016ko % 4,7a urrun dago 2009ko % 0,5etik eta 1996ko % 1,5etik, baina 2004ko % 4,4tik hurbil dago.

9. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Emakumeen batez besteko ordainsariaren desorekaren ehunekoa (guztira eta orduka 2016ko prezioetan).
Euskal AE. 1996-2016

Sexua eta adina	Ordainketa, guztira						Orduko ordainsaria					
	1996	2000	2004	2009	2013	2016	1996	2000	2004	2009	2013	2016
	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka	Deso reka
Emakumea	-21,5	-22,8	-22,7	-19,6	-24,5	-21,6	-6,2	-6,6	-3,7	-4,4	-8,3	-6,8
Emakumea 16-29	-25,9	-23,3	-19,0	-15,9	-23,5	-15,2	-10,2	-10,4	1,9	-6,5	-10,1	-6,7
Emakumea 30-44	-12,6	-17,7	-21,9	-21,1	-21,7	-23,3	-1,2	-0,1	-2,1	-4,9	-4,3	-8,0
Emakumea 45-64	-25,2	-24,8	-22,3	-17,5	-26,6	-20,2	-1,5	-6,3	-4,4	-0,5	-10,9	-4,7

Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Enpresako posizioari buruzko beste alderdi batzuk

Soldatapekoek eta antzekoek ekoizpen-sisteman eta enpresan duten posizioari dagokionez, nabarmendu beharreko beste alderdi batzuk zehaztuko dira orain.


Lana mantendu duten pertsonen artean, euskal ekoizpen-sistemak oraindik sustapenerako aukera handiagoa eskaintzen du posizioak galtzeko arriskua baino, nahiz eta beheranzko joera duen

Lana duten soldatapekoen eta antzekoen artean, 2016an nagusi dira enpresan duten posizioari eusten diotela adierazten dutenak. Landunen % 67,4k adierazten du posizioari eusten diola, eta, horrenbestez, buelta ematen zaio 2004-2013 epealdiko ezegonkortasunari, etengabe jaitsi baitzen 2004ko % 65,7tik 2013ko % 58,8ra.

Egia da euskal ekoizpen-sisteman benetan lan egiten ari direnen artean handiagoa dela enpresan aurrera egiteko aukera, enpresan atzera egiteko arriskua baino. Hala, 2016an aztertutako langileen artean, posizioak galdu dituztela adierazi dutenak % 1,8 dira eta % 30,8, berriz, uneren batean enpresan gora egin edo, nahiz eta ordainsarietan hobekuntzarik izan ez, bere gain erantzukizun handiagoak dituztenak (% 24,7 eta % 6,1, hurrenez hurren). Baina aukera-mailak behera egiten ari dira,

argi eta garbi eta etengabe, 2009ko maximoetatik (% 39,3, % 30,5 eta % 8,8) eta txikiagoak dira 2004koak baino (% 33,2, % 25,7 eta % 7,5).

19. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Eta dinamika horrekin batera, okerrera egin dute prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukeren adierazleak ere, eta kontuan izan behar da barne-sustapeneko prozesuei lotutako alderdietako bat direla. Gehieneko parte-hartzea 2009an izan zen (% 25,8), eta, orduetik, lanerako garrantzitsuak diren prestakuntza-jarduerak egiten dituzten soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak etengabe egin du behera: 2013an % 24,7 izan ziren, eta 2016an, % 23,2. 1996-2004 epealdiko parte-hartze mailarekin alderatzen bada, ordea, 2016ko proportzioak aldi horretako gehienekoa gainditzen du (% 21ekoa izan zen, eta 2000. urteari dagokio).

Gainera, 2016an, berriro ere, jarduera horiek egiteko enpresak emandako babesa gehieneko kopurura heldu zen: enpresek jardueren % 88,5ean eman zuten laguntza. Hala, 2004ra arte izandako goranzko joerari eutsi zaio, 2009an apur bat atzera egin ondoren, 2013an gorako bidea hartu zuen joerari.


Soldata aldakorra dutenak gutxiengoa izaten jarraitu arren, sistema horrek gero eta garrantzia handiagoa du

Soldata aldakorra duten soldatapeko eta antzekoen proportzioa 2004an gutxiengo kopurura heldu zen, % 9,6ra. Gerora proportzio horrek gora egin zuen, 2009an % 10,6ra heldu zen, eta 2013an % 11,2ra. Eta 2016an, asko igo da: % 24,9 izatera iritsi da. 2016an, urteko diru-sarreraren % 18,6 osagarri aldakorrek osatzen dute (% 14,3 zen 2009an, eta % 9,2, berriz, 2013an).

2004. urtearekin alderatuta, 2016an osagarri aldakorrak, batez ere, errendimendu pertsonalagatikoak dira (halako diru-sarrerak dituztenen % 73k aipatzen dituzte 2016an, eta % 61,1ek, berriz, 2004an). 2004an, berriz, garrantzi erlatibo handiagoa zuten lantaldearen errendimenduagatiko osagarriek edo

enpresa-irabaziekin lotutakoek (lehenengoak % 33,2k aipatu zituen 2004an, eta % 20k 2016an; eta, bigarrenak, % 54,6k 2004an, eta % 37,8k, 2016an).

20. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Gora egin duen arren, ordaindutako aparteko orduen eragina txikiagoa da 2009ra arte izandakoa baino

Krisi ekonomikoaren eraginez, behera egin zuen ordaindutako aparteko orduak egiten dituzten soldatapekoen kopuruak. Proportzioak 1996 eta 2004 bitartean gora egin zuen % 18,1etik % 20,1era, eta 2009an behera egiten hasi zen, % 17,4rekin. Jaisten jarraitu zuen, eta 2013an % 14,4ra iritsi zen, kopuru txikiena 1996tik. 2016an, ordea, zertxobait gora egin du eta % 15,4ra iritsi da. Dena den, bigarren kopuru txikiena da 1996tik.

2013-2016 aldiko igoera eragin duten ordaindutako aparteko orduak, salbuespenezkoak ez, baizik eta sarritan egiten direnak edo muturreko aldietan egiten direnak dira. Ildo horretan, halakoak egiten dituzten soldatapekoak edo antzekoak % 5,9etik % 6,9ra pasatu dira. Ehuneko horiek, ordea, askoz txikiagoak dira 2004ko % 10,7a baino (1996 eta 2009 bitartean % 8,9 eta % 10,7 artekoak izan dira). Aparteko jarduera moduan egindako aparteko orduak, berriz, egonkorrago eutsi diote. Soldatapekoen eta antzekoen % 9,2 eta % 9,7 artean ziren halakoak egiten zituztenak 1996 eta 2004 bitartean, eta proportzioak % 8,4-8,5 inguruan eusten dio 2009-2016 epealdi osoan.

Ordaindutako aparteko orduak 2013 eta 2016 artean gorakada txikia izan dute, eta behera egin dute ordainsaririk gabe egiten diren orduak. Halako jarduera ordaingabea egin zuten langileak % 14,9 eta % 16,1 artean izan ziren 2004. urtera arte, eta % 13,2ra jaitsi ziren 2009an. Bat-batean igo zen 2013an: soldatapekoen eta antzekoen % 23,9k egiten zituzten. Eta 2016an, berriz, % 20,8ra jaitsi da. Dena den kopuru altua da, oraindik ere, 1996. eta 2004. urteen artekoarekin alderatzen badugu.

21. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Enplegu-aniztasunak eragin txikia izaten jarraitzen du

Krisiaren ondorioetako bat enplegu-aniztasunaren eraginaren beherakada izan da. Ordaindutako enplegu bat baino gehiago duten soldatapekoen kopuruak behera egin du etengabe: 2009an 40.960 ziren eta 2016an, aldiz, 16.400. Soldatapekoen eta antzekoen artean duen eragin erlatiboa % 5etik % 2,1ra jaitsi da 2009 eta 2016 artean. Bilakaera horrekin enplegu-aniztasunaren pisua 2004kotik hurbil dago berriro: urte hartan 16.508 pertsona egon ziren egoera horretan, LBik aztertzen duen biztanleriaren % 2,2.

Enplegu osagarria iraupen mugagabeko kontratazioarekin lotutako egoeretan izan da jaitsiera handiena, 2009an 27.491 pertsonak zuten enplegu-aniztasuna eta 2016an 8.036 dira. 2016ko kopurua, ordea, pixka bat handiagoa da 2013koa baino, 7.144 pertsona baitaude egoera horretan. 2004ko 5.319ak baino gehiago dira.

Eta, aldiz, enplegu osagarria mugagabeaz bestelakoa bada egoera ez da berdina: 2004 eta 2009 artean 11.188tik 13.469ra igo ondoren, 2013an izandako jaitsiera txikiak (12.900 pertsona zeuden egoera horretan) indarra hartu zuen 2016an eta 8.364 pertsonak soilik dute enplegu-aniztasuna.


Zifrek adierazten dutenez, 2016an enplegu-aniztasunaren eraginaren errealitatea pixka bat aldatu da. Kopuruak 2004. urtearen mailara hurbiltzen diren arren, mugagabeak ez diren kontratazio-formekin lotutako enplegu-aniztasuna handiagoa da (% 49koa da, eta % 32,2koa zen 2004an, eta % 35,6koa, 2013an). Ehuneko hori 2009koa baino txikiagoa da soilik (% 67,1ekoa izan zen), enplegu tekniko osoko

urtea izan zen hura eta, batez ere, enplegu-aniztasuna iraupen mugagabeko kontratazioko egoerarekin lotuta zegoen.

Asko egin du behera sindikatueta afiliazioak

Krisiak sindikatueta afiliazioaren beheranzko joera hautsi zuen, eta 2013an afiliazio-maila handiena izan zen 1996tik: % 28,1. Proportzio horrek 1996ko % 27,1 gainditzen du, baita 2000 eta 2009 bitarteko % 25 inguruko kopuruak ere. Baina 2016ko erregistroa ez da beheranzko joerari berriro heldu izanaren adierazle soilik, LBI egiten denetik izan den afiliazio-maila txikiena ere bada. 2016an, soldatapekoen eta antzekoen % 21,8 soilik dago afiliatuta.

22. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 artean, afiliazioaren jaitsierak lan-eduki guztiei eragiten die, merkataritza-jardueri izan ezik, kategoria edozein dela ere. Afiliazioaren jaitsiera 10 puntutik gorakoa da zuzendaritza-jardueretan, osasun arloko goi-mailako tituludunen artean, kategoria altuko eta ertaineko ekoizpen-jardueretan eta bulegoko zereginetako kategoria baxuetan.

Afiliazioaren jaitsierarekin batera, afiliatuen bizitza sindikaleko partaidetza aktiboa ere jaitsi egin da. Partaidetzaren jaitsierak eutsi egin dio 2004tik: soldatapekoen eta antzekoen % 21,2k hartzen zuen parte urte horretan eta % 13,5era murrizten da 2016an.


2013 eta 2016 artean mugak agertzen dira enpresan euskararen erabileraren aurrerapenean

2013an, lehenengo aldiz, euskarari buruzko jakintzarik ez dutenak gutxiengoak ziren soldatapekoen eta antzekoen artean: % 45,9 ziren. Ehuneko horrek hobera egin zuen 2016an eta % 45,2 ziren urte horretan, % 1996ko % 57,6a baino 12 puntu gutxiago.

Baina aurrerapen horrekin batera, 2013 eta 2016 artean asko egin du behera lanean euskara maiz erabiltzen dutenen kopuruak, eta hautsi egin da 2013ra urte ikusitako joera. 2000 eta 2004an % 22 inguru izan ondoren, lanean euskara maiz erabiltzen duten soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak gora egin, eta % 26,4koa izan zen 2009an, eta % 29koa, 2013an. 2016an, aztertutako proportzioa 2009ko mailetara hurbiltzen da, % 25,7koa baita.

Euskara maiz erabiltzen ez dutenen ehunekoa, berriz, altuena da 1996tik: % 29,1.

23. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-bizitzako gertaera moduan, euskara maiz erabiltzen dutenen multzo nagusia irakaskuntzako goi-tituludunak dira, eta 2016an, eremu horretan, lehenengo aldiz, % 80a gainditu da (% 80,8, hain zuzen ere, 2009ko % 66,7a baino 14,1 puntu gehiago). Aldiz, euskararen erabilerak nabarmen atzera egin du osasunaren sektoreko mota bereko tituludunen artean (% 43 ziren 2009an, % 29,6 ziren 2013an eta % 24,6 dira 2016an).

3. LANAREN ANTOLAKETA

2009-2013 epealdian lanaren antolaketak izan zuen bilakaeraren ezaugarria funtsezko alderdi batzuetako egonkortasun handia izan zen. Egonkortasun hori nagusi da goragoko arduradun baten mendean kategoria berean dauden edo lan berbera egiten duten pertsonen kopuruari dagokion dinamikan, bai eta lanpostuen arteko txandakatzeen zereginean, horietarako arrazoiak barnean direla. Hala ere, aldaketa esanguratsu batzuk ikusi dira, eta jarraian azalduko dira.

2013 eta 2016 artean 30 ordu baino gutxiago irauten duten lanaldien eraginak handitzen jarraitzen du, baina lanaldi partzialak behera egin du (gehienetan ez da borondatezkoa izaten)

30 ordu baino gutxiago irauten duten lanaldien gorakada

2009. urtetik aurrera ikusitako aldaketarik deigarrienetako bat da astean 30 ordu baino gutxiagoan lan egiten duten soldatapekoen eta antzekoen gorakada. Hain zuzen ere, 124.853 pertsona ziren 2009an, 142.533, berriz, 2013an eta 153.837 dira 2016an. 2009. urtean soldatapekoen % 15,4 ziren, 2013an % 18,2 eta 2016an % 19,4.

Hala ere, gogoratu behar da gorakada horrek neurri batean zerikusia duela lan egiteko modu horrek 2009an izan duen eraginaren beherakadarekin. Hain zuzen ere, 2004an, egoera horretan 130.876 pertsona hauteman ziren, eta ez zen agertzen 2013ko egoera, baizik eta lan mota horrek 1996az geroztik izan zuen gorakada handiaren lehengoratzeari. Urte hartan, 30 ordu baino gutxiagoan lan egiten zuten pertsonen proportzioa % 12,1 zen. 2004an gora egin zuen % 14,2ra arte, eta gorakada azkartu egin zen 2009ko % 17,3ra arte. 2009ra arte erregistratutako bilakaerarekin konparatuz gero, 2013ko % 18,2 horrek argi eta garbi gorakada agertzen du baldin eta 2009ko % 15,4rekin konparatzen badugu. Hala ere, erregistro hori ez da batere ohikoa 2009 baino lehenagoko bilakaeraren testuinguruan. Testuinguru horretan, 1,2 puntu igotzeak 2016ko % 18,4ra arte, 30 ordu baino gutxiagoko lanaldiaren goranzko joera nolabait moteldu egin dela adierazten du, 1996tik iraun duen joera moteldu egin dela.

30 ordutik beherako lanen pisu erlatiboaren gorakadak batez ere 35 eta 39 ordu bitarteko iraupena duten lanei eragiten die. Soldatapekoen eta antzekoen artean, lan-forma horien pisua 1996 eta 2009 bitartean aztertutako biztanleriaren % 12,7tik % 22ra igo zen. Aurrerakada etengabea gertatu da: 72.321 landun ziren 1996an, eta 178.930, berriz, 2009an. 2013. urtean behera egin zuen, 148.586 izan baitziren, eta 2016an egonkortu egin da neurri handi batean, 147.756 pertsona baitaude egoera horretan. Okupazio-bolumen hori soldatapekoen eta antzekoen % 18,9 zen 2013an, eta % 18,7, berriz, 2016an, okupazio horrek 2009an izan zuen proportzioa baino hiru puntu gutxiago.

2009 eta 2016 bitartean, beheranzko joerak ñabardura handiagoak dauzka 30 eta 34 ordu bitartean edo 40 eta ordu gehiagoan lan egiten duten pertsonen artean, baina agertu egiten da, bai kopuru absolututan bai erlatibotan. Erreferentzia moduan 2009. urtea hartzen bada, % 62,6tik % 61,9ra murriztu da lanaldi horien pisua (509.074 landunetik 490.424 landunera, kopuru absolututan). 35 ordutik 39 ordura bitarteko lanaldietan ikusten den bezala, jaitsieraren zatirik handiena 2009-2013 epealdian gertatu zen, eta 2016an egonkortu egin da 30 ordu edo gehiago lan egiten duten soldatapekoen eta


antzekoen kopurua. Multzo horretan 499.002 pertsona zeuden 1996an, 688.004, berriz, 2009an, behera egin zuen 2013an (641.741 pertsona), eta egonkortu egin da neurri handi batean 2016an, 638.180 pertsona baitaude egoera horretan.

10. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Normaltasunez lan egindako azken asteko lan-orduak.
Euskal AE. 1996-2013
Datu absolutuak

	Guztira	< 30 ordu	< 20 ordu	20 eta 29 ordu bitartean	30-39 ordu	30 eta 34 ordu bitartean	35 eta 39 ordu bitartean	40 ordu edo gehiago
Urtea	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.
1996	568.000	68.998	33.792	35.206	117.911	45.590	72.321	381.091
2000	680.971	96.917	37.532	59.385	158.702	56.610	102.092	425.352
2004	756.298	130.876	54.560	76.315	182.772	66.091	116.680	442.650
2009	812.857	124.853	45.989	78.864	247.533	68.603	178.930	440.471
2013	784.274	142.533	62.369	80.164	214.066	65.480	148.586	427.675
2016	792.017	153.837	52.065	101.772	213.025	65.269	147.756	425.155

Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

24. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2016ko egoera 2004koarekin alderatzen bada, nabarmentzekoa da 35 eta 39 arteko lanaldiak pisu handiagoa duela, 2009tik aurrera behera egin arren. Lanaldi mota horren pisuak gora egin zuen 2004ko % 15,4tik 2016ko % 18,7ra (116.680 pertsonatik 147.756ra). Gorakada hori 30 ordu baino gutxiagoko lanaldia baina txikiagoa da. Azken hori, 2004 eta 2016 bitartean, guztien % 17,3tik % 19,4ra igaro da (130.876tik 153.837ra).

Horrez gain, 2013 eta 2016 bitartean iraupen laburrenako lanaldiari eragiten dion aldaketa bat ikusten da. 2009-2013 epealdian, datuek erakusten zuten 20 ordu baino gutxiagoko lanak besteak baino gehiago handitu zirela. 20 eta 29 ordu bitarteko lanekin lotutako enpleguaren bolumena 2004an % 10,1 zen, baina gerora ia ez zen aldatu kopuru erlatibotan. 2009an % 9,7 izan zen, eta 2013an, berriz, % 10,2. Eta 20 ordu baino gutxiagoko lanen 2013ko % 8ko kopurua ehuneko 2,3 puntu handiagoa izan zen 2009ko % 5,7 baino. 2013 eta 2016 artean, ordea, ehuneko horrek behera egin zuen % 8tik % 6,6ra, eta horrekin batera % 10,2tik % 12,8ra handitu da 20 eta 29 ordu bitartekoa. 30 ordutik beherako lanaldien artean, 20 eta 29 ordu bitartekoak maximoa lortu zuen 2016an: soldatapekoen % 66,2 zegoen egoera horretan, 2000ko % 61,3a eta 2009ko % 63,2a baino gehiago.

Lanaldi partzial soileko lana murriztu egin da 2013 eta 2016 artean eta, horrekin batera, handitu egin da lanaldi osoko lana


Aurreko atalean aurkeztutako datuak ñabartu egin behar dira, kontuan hartuta jarduera-esparru eta adar batzuetan ohikoa baino iraupen laburragoa duten lanaldiak, 35 eta 40 ordu bitartekoak, jardueraren normaltasunaren barruan egon daitezkeela. Horren haritik, esan behar da ezin direla, automatikoki, lanaldi partzialeko lan-formetan sartu behar.

25. eta 26. grafikoetan ikusten den bezala, jardueraren esparru espezifikoetako lanaldi arruntarekin alderatuta denbora murriztuko formak hautematen diren kasuak kontuan hartuta, lanaldi partzialeko lanaren neurketarako doituagoa dagoen hurbilketa, 2009ra arteko bilakaerak erakusten du fenomenoak gorakada nabarmenagoa izan duela. 2000ko % 5,7tik hasita, proportzioak 2004an gora egin zuen % 9,7ra, eta 2013an, % 16ra, ehunekorik altuenera. 2016an, lanaldi partzialaren eragina (edo murriztuarena) asko txikitu da eta % 12,6koa da orain. Dena den, bigarren ehuneko altuena da 2000tik, 2009ko % 10,7 baino altuagoa.

Kopuru absolutuetan, hau dakar: 2000. urtean lanaldi partzialean/murriztuan lan egiten duten 39.141 pertsonetatik 2004ko 73.468ra pasatzea, 86.631 izatea 2009an eta 125.461, berriz, 2013an, eta berriro ere 100.000 pertsonatik bera izateko, 2016an (99.574).


Bestalde, 2016an lanaldi osoz jarduten zuten 692.443 pertsonak gutxiago dira 2009ko 726.226ak baino, baina askoz gehiago dira 2013ko 658.813ak baino, bai eta 2004ko 682.830ak baino ere. Eta, beraz, 2013-2016 epealdiko hobekuntzarik nabarmenetako bat da.

25. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

26. grafikoa




Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi partzialean lan egiten duten soldatapekoen edo antzekoen proportzioaren beherakada lan-eduki guztietan gertatu da 2013 eta 2016 artean, salbu eta industria-ekoizpeneko kategoria baxuetan. Talde horretan, lanaldi partzialak maximoa izan du 2016an (% 5,9), baina lan-mota horretan eragin txikia duen talde bat da.

Lanaldi partzialak eragin handiena duen taldeetan, 2013an maximoetara iritsi ondoren, lan-mota horren eragina -2,8 eta -5 puntu jaitsi da 2013 eta 2016 artean. Eta, izan ere, 2004ko mailetatik hurbil dago berriro zuzendaritzako jardueretan eta irakaskuntzako eta osasuneko goi-mailako titulazioetan (2013an % 13,1ekoa zen, eta 2016an % 8,1ekoa, 2004ko % 7,5 baino ehuneko gutxi batzuk gehiago). Joera berbera izan da gainerako kategoria altu eta ertainetan (industria-ekoizpenean izan ezik) eta bestelako zereginetan. Kasu horretan, adierazlea 2013ko % 13,3ko maximotik % 10,5era jaitsi da 2016an, 2004ko % 10,8 baino hiru ehuneko gutxiago.

Kategoria baxuetan, industria-ekoizpenean izan ezik, lanaldi partzialaren proportzioak behera egin du % 29,7tik % 25,7ra 2013 eta 2016 artean. Dena den, 2013ko aurretiko maximoak baino askoz handiagoa den kasu bakarra da, % 19,5ekoa baitzen 2004an, eta % 21,1ekoa, 2009an. Soldatapekoen eta antzekoen talde hori da, hain zuzen, fenomeno honen eragin garbiena duena. Eta, beste aldean, industria-ekoizpeneko kategoria altu eta ertaineko langileen % 1,7 soilik dira lanaldi partzialean jarduten dutenak.

27. grafikoa




Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 artean, lanaldi partzialaren beheranzko joera sexuaren eta adinaren arabera talde guztietan ikusten da. Jaitsiera deigarriena 45 urtetik gorako emakumeen taldean gertatu da: lanaldi partzialean jarduten dutenak % 20,3 ziren 2013an eta % 13,2 dira 2016an (eta 2000. urteko % 10,4 soilik dago horren behetik).

Sexuaren eta adinaren arabera gainerako taldeetan, lanaldi partzialaren eragina 2016an 2013 baino lehenagoko erregistro guztietakoa baino handiagoa da. Alde handienak, batetik, 30 urtetik beherako gizonek dituzte. Talde horretan, lanaldi partzialaren pisua % 13,7tik % 10,1era jaitsi da, 2009ko % 7,1a baino hiru puntu gehiago.

Bestetik, 45 urtetik beherako emakumeak daude. Haietan, lanaldi partzialaren pisua % 26,3koa da, 2009ko % 32,2 baino txikiagoa, baina 2004. eta 2009. urteetako baino 4 eta 5 puntu handiagoa hurrenez hurren, % 22,1 eta % 21,2koa izan baitzen. Talde horri eragiten dio gehien lanaldi partzialak eta beste muturrean daude 30 urtetik gorako gizonak, % 4k besterik ez baitu lanaldi partziala 2016an.

28. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi partzialeko lana gehienetan ez da borondatezkoa izaten (ez behintzat lan egindako orduei dagokionez)


Lanaldi partzialeko eraginak behera egitea bateragarria da lan-forma hori aukeratzea batez ere enpresaburuen ekimenaren ondorio izatearekin. Lanaldi partzialeko lanaren arrazoia aztertuta, enpresaren beharrianengatik lanaldia murriztea (beharrian horien artean daude enplegua erregulatzeko prozesuak), 2009an lanaldi partzialeko lan-formen % 56,5en ezaugarria zen; 2013an, aldiz, % 70,5ena, eta 2016an, % 71,7rena. Lanaldi partzialaren eragina murriztea ezaugarri duen egoera honetan, ordea, 2013an 88.432 pertsonak zuten lanaldi partziala, eta 2016an, 71.415ek. Baina kopuru horiek handiagoak dira 2004 eta 2009 artekoak baino, 49.000 pertsona inguru baitziren.

Horrekin batera, behera egin du ekimen pertsonalari eta uztartzeko prozesuei lotutako faktoreen garrantziak. Faktore horiek ere lanaldi partzialaren gorakadan lagundu zuten 2009ra arte, bereziki 2004-2009 epealdian. Jaitsiera ez da hain deigarria kopuru erlatiboetan. Hala, prozesu horiek lanaldi


partzialeko lanaren % 17,9 ziren 2000n, % 34,2, 2009an, eta % 25,1, berriz, 2013an (2004ko % 25,3tik hurbil), baina 2016an gora egin du pixka bat, % 26,6koa izateraino.

Ehunekoetan izandako igoera horiek ez dute esan nahi, ordea, ekimen pertsonalari edo adingabeen arretarekin zerikusia duten uztartze-prozesuei lotutako lanaldi partzialeko prozesuek gora egin dutenik termino kuantitatiboetan. 2013. urtean izan du maximoa lanaldi partziala arrazoi horiengatik hartzen zutenen kopuruak (31.480 pertsona dira), eta behera egin du 2016an, 26.514 baitira. 2000. urtean izandako 6.990 pertsona eta 2004an izandako 18.605 pertsona baino gehiago den arren, 2013ko maximoaren behetik egoteaz gain 2009kotik behera ere badago, urte horretan 29.601 pertsona baitzeuden egoera horretan.

29. grafikoa




30. grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Testuinguru horretan, lanaldi partziala dutenen artean gora egin du ordu gehiago lan egin nahiko luketenen proportzioak. 2016an, lanaldi partziala duten soldatapekoen eta antzekoen % 60,7k ordu gehiago lan egin nahi zuten; eta 2009an % 46,3 ziren, 2004an % 49,4 eta 2013an % 55,8. Baina kopuru absolutuei erreparatzan badiegu, lanaldi partzialaren pisu erlatiboak behera egin duenez, 2013. urtean baino pertsona gutxiago dira: 60.491 dira 2016an, eta 69.964, 2013an. Dena den, ordu gehiago lan egin nahi duten lanaldi partzialeko soldatapekoak gehiago dira 2016an, 2004an baino (36.273 pertsona) eta 2009an baino (40.081 pertsona).

31. grafikoa



32. grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi partziala duten langileetatik, industria-ekoizpeneko kategoria altuetan soilik jaitsi da nabarmen, 2013 eta 2016 artean ordu gehiago lan egin nahi dutenen kopurura. Kasu horretan, nahi ez den lanaldi partziala % 8,4 zen 2016an, eta % 51,7, berriz, 2013an. Gainerako kasuetan, adierazle hori egonkortu egin da eta, batzuetan, baita okertu ere.

Kategoria baxuetan (industria-ekoizpenean izan ezik) jarraitu egiten du ordu gehiago lan egin nahi dutenen etengabeko gorakadak. Eta, hain zuzen ere, talde horretan du eragin handiena lanaldi partzialak. Kasu horretan, 2013 eta 2016 artean, ordu gehiago lan egin nahiko luketen lanaldi partzialeko soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak gora egin du, % 62,3tik % 72,8ra, eta egoera horretan daudenak askoz gehiago dira 2004n eta 2009an baino, % 50 inguruk nahi baitzuten ordu gehiago lan egin. Kategoria baxuko industria-ekoizpenean adierazle horrek behera egin du 2013 eta 2016 artean % 59,9tik % 57,7ra jaitsi baita; baina ehuneko hori askoz handiagoa da 2004koa baino (% 24,5) eta 2009koa baino (% 41,4).

Aztertutako adierazlearen bilakaera negatiboa zuzendaritzan eta irakaskuntzako eta osasuneko goi-tituludunen artean ere ikusten da. 2004 eta 2009 artean % 44,7tik % 38,4ra jaitsi ondoren, ordu gehiago lan egin nahi dutenen proportzioak gora egin zuen: % 43ra, 2013an, eta % 51,4ra, 2016an.

33. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Kategoria altu eta ertaineko gainerako lan-edukietan, eta bestelako zereginetan, 2004 eta 2013 artean % 45,1etik % 49,2ra igo ondoren, proportzioa % 46ra jaitsi da 2016an. Lan-mota horretan hauteman da, ordea, egonkortasun handiena ordu gehiago lan egin nahi duten lanaldi partzialeko pertsonen proportzioan.

34. grafikoan ikusten denez, hala nahi ez izanda lanaldi partziala dutenen igoerak ia sexu- eta adin-talde guztiei eragiten die. 2013 eta 2016 artean ordu gehiago lan egin nahi ez dutenen proportzioan jaitsiera izan duen talde bakarra 30 urte eta hortik gorakoena da (% 71etik % 67,1ra), baina, hala ere, 2004ko eta 2009ko kopuruetatik oso gora dago, % 40 ingurukoak izan baitziren. Gainera, lanaldi partzialak eragin txikiena duen taldea da.

Gainerako kasuetan, 2016an maximoa izan da. Dena den, maximo horrek nolabaiteko egonkortasuna adierazten du 45 urtetik beherako emakumeen artean: % 54,8 dira 2016an, eta kopuru hori hurbil dago 2004. eta 2013. urteetan izandako % 52 ingururekin eta 2009ko % 46,4a du urrun.

Ordu gehiago lan egin nahi dutenak handitzen jarraitzen dute 30 urtetik beherako gizonen artean: % 84,3koa da 2016an eta etengabe ari da handitzen 2004ko % 53,8tik. Gauza bera gertatzen da 45 urtetik gorako emakumeekin: % 37,9 ziren 2004an, eta % 66,8, berriz, 2016an. Soldatapekoen eta antzekoen talde horretan, 2013ko % 51,8tik izandako igoera azken urteetako handiena da.

34. grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Nahiz eta behera egiten ari den 2009tik, batez besteko lanaldia 2004. urtean izandakoaren antzekoa da

Gora egin dute 30 ordutik beherako lanaldiek, baina batez besteko lanaldia 2009 eta 2013 bitartean laburtu egin zen 36,6 ordutik 35,8ra eta antzeko jarraitu du 2016an, 35,7 ordu izan dira eta. Hala ere, zera esan behar da: 2009ko kopuruak joera-aldaketa ekarri zuen 2004ra arteko bilakaerarekin alderatuta, laneko batez besteko denbora laburtu egin zelako. Han zuzen ere, batez besteko lanaldia 1996ko 37,5 orduetatik 2004ko 36,0 orduetara igaro zen. Beraz, 2009ko igoera eta gero, 2013ko 35,8 orduak eta 2016ko 35,7ak berriro aurreko hamarkadako 36 orduetara itzultzea ekarri du.

Batez besteko lanaldiari dagokionez, ikusten da dinamika diferentea dagoela txandakako lana dagoen ala ez kontuan hartuta. Txandaka egiten ez den lanean 2013an batez besteko lanorduen beheranzko joera berriro hasi zen. 2013an gutxieneko kopurua jo zen, batez beste 35 orduz lan egin baitzen, eta 2016an, 35,1 (2004an 35,5, eta 2009an 35,9). Aldiz, txandakako lanean, 2009tik 2016ra batez besteko lanorduetan izandako beherakada (2009an 39 ordu, 2013an 38,3 ordu eta 2016an 37,9 ordu) ez da nahikoa 2004ko batez besteko 37,8 orduen azpitik geratzeko.

35. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

11. taulan, batez besteko soldatak 2004 eta 2016 artean izandako bilakaera alderatzen dugu lan-edukiaren arabera, eta ikusten da ehuneko bateko edo hortik gorako lanaldi-murrizketak izan direla kategoria baxuko zenbait taldetan. Merkataritza-jardueretan, 2016an ikusitako 32,9 orduak bederatzia hamarren gutxiago dira 2004ko 33,8 orduak baino, baina 2013ko 32ak baino gehiago. Beste alde batetik, industria-ekoizpenean 2016an adierazitako 38,5 orduak 1,1 gutxiago dira 2004ko 39,5ak baino, baina batez besteko lanaldiaren egonkortasuna ere adierazten dute: batez besteko lanaldia 38,4 eta 39,5 ordu bitartekoa izan da 2004-2016 epealdi osoan. Kategoria baxuetan, jaitsiera handiena hirugarren sektoreko ekoizpenean izan da. Kasu horretan, 2004 eta 2009 artean 32,1 ordutik 32,9 ordura igo ondoren, beherantz egin du, eta batez beste 29,7 ordu izan dira 2016an.

Eta, aldiz, 2013-2016 epealdian behera egin arren (31,6 ordutik 30,3 ordura), irakaskuntzako goi-mailako tituludunen 2016ko lanaldia luzeagoa da 2004koa baino, 28,7 ordu egiten baitzituzten urte horretan. Bide bertsuan, merkataritzako eta bulegoko kategoria altu eta ertainetan 0,6 puntuz gainditzen dituzte 2004 lanaldiak. Merkataritzako jardueri dagokienez, 2004ko 38,2 orduetatik 36 ordu ingurura jaitsi ondoren 2009. eta 2013. urteetan, batez besteko lanaldiak gora egin du, asko samar, 2016an, 38,9 ordukoa izan baita. Bulegoko jardueretan, ordea, 2016ko kopurua 2004. eta 2016. urteen artean oso gutxi aldatu den tarte batean dago: 36,1 eta 36,8 ordu (nahiz eta 2009tik batez besteko lanaldia zertxobait luzatzen ari den).

11. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Normaltasunez lan egindako azken asteko lan-orduen batez bestekoa, lan-edukiaren arabera. Euskal AE.
1996-2016

	1996	2000	2004	2009	2013	2016
Lan-edukia	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa
Guztira	37,5	37,1	36,0	36,6	35,8	35,7
L1 Zuzendaritza	40,4	40,4	39,5	38,9	41,0	39,6
L2 Irakaskuntza (goi-mailako titulazioa)	30,7	29,5	28,7	30,1	31,6	30,3
L3 Osasuna (goi-mailako titulazioa)	37,9	36,1	33,7	36,0	34,7	33,5
L4 Bulegoa (goi- eta erdi-mailako kategoriak)	38,2	37,2	36,2	36,1	36,7	36,8
L5 Merkataritza (goi- eta erdi-mailako kategoriak)	38,0	37,4	38,2	36,2	36,1	38,9
L6 Industria-ekoizpena (kategoria altua eta ertaina)	40,7	39,8	39,2	40,2	40,3	38,7
L7 Hirugarren sektoreko ekoizpena (kat. altua eta ertaina)	39,4	38,8	36,6	39,4	38,7	36,5
L8 Bulegoa (kategoria baxua)	36,0	37,9	34,4	35,9	34,4	34,4
L9 Merkataritza (kategoria baxua)	35,6	35,0	33,8	35,3	32,0	32,9
L10 Industria-produkzioa (kategoria baxua)	39,4	40,1	39,5	38,4	39,4	38,5
L11 Hirugarren sektoreko produkzioa (kategoria baxua)	33,3	33,0	32,1	32,9	30,4	29,7
L12 Bestelako zereginak	38,3	37,3	36,0	40,9	37,0	37,6

Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, eta 2004 eta 2016 artean, puntu 1etik gorako jaitsiera bakarra 30 urtetik beherako gizonen artean soilik gertatu da, nahiz eta talde horretan jaisteko joera oso handia den. Hala, talde horretan, batez besteko lanaldia etengabe jaitsi da 2004ko batez besteko 39,1 ordueetatik 2016ko batez besteko 35,9 ordueetara. Baina ez da gauza bera gertatzen adin bereko emakumeen artean 2013-2016 epealdian: batez besteko lanaldia 29,1 ordutik 33,1 ordura pasatu da, 2004. urtekoaren antzekoa, 33,2 ordukoa izan baitzen.

30 urtetik 44 urtera arteko gizonen artean kontrako joera ikusi da, etengabe egin baitu behera 2009ko eta 2013ko 39,5 ordutik hurbileko kopuruetatik, 2016ko 38,7 orduetara (2004ko 38,9 orduetatik hurbil).

2013 eta 2016 bitartean, egonkortasuna da nagusi 45 urtetik gorako gizonen artean eta 30 urtetik gorako emakumeen artean, denetan ere 2009 eta 2013 bitartean pixka bat behera egin ondoren. Talde horietan guztietan, batez besteko lanaldiak gora egin du 2004ko lanaldiarekiko: 0,7tik eta 1ra arteko igoera.

12. taula
Soldatapekoak eta antzekoak
Normaltasunez lan egindako azken asteko lan-orduen batez bestekoa, adinaren eta sexuaren arabera.

	1996	2000	2004	2009	2013	2016
Sexua eta adina	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa
Guztira	37,5	37,1	36,0	36,6	35,8	35,7
Gizona	39,7	39,6	38,7	39,2	39,0	38,5
Gizona 16-29	39,1	39,0	39,1	37,7	36,4	35,9
Gizona 30-44	39,9	39,6	38,9	39,5	39,6	38,7
Gizona 45-64	39,9	40,0	38,3	39,6	39,1	39,0
Emakumea	33,5	33,2	32,3	33,4	32,3	32,9
Emakumea 16-29	32,1	34,0	33,2	33,9	29,1	33,1
Emakumea 30-44	35,0	33,0	31,8	33,4	32,6	32,5
Emakumea 45-64	32,0	32,5	32,3	33,0	32,9	33,3

Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2009-2013 epealdian asteko lan- eta atsedeen-eredu atipikoak asko igo ondoren, pixka bat moteldu da, baina ez guztiz eta soldatapekoen talde guztietan

2009-2013 epealdiko lan-baldintzen alderdi deigarrienetako bat asteko lan- eta atsedeen-eredu atipikoek izandako igoera da. 2013-2016 epealdian, berriz, krisiaren aurretik nagusiak diren errealitateetara itzuli gara, oro har.

Larunbat edo igandeetako lana normaltasunera itzuli da 30 urtetik gorakoan artean

2009 eta 2013 artean nabarmentzen zen alderdietako bat larunbat eta/edo igandeetan egindako lanak izan zuen gorakada da. 1996 eta 2009 bitartean, egun horietan lan egin behar zuten soldatapekoen eta antzekoen proportzioa orokorrean % 36,2 eta % 37,3 bitartean geratu zen, baina 2000n muturreko kopurua jo zuen, % 38,5. 2013an, aztertutako egoera modu deigarrian hedatu zen, eta soldatapekoen % 43,4ren ezaugarri bihurtu zen. 2016an, egoera normaltasunera itzuli da, eta 1996az geroztiko gutxieneko mailak ikusi dira, % 35,5, 2009. urtera arte ikusitako kopuruen antzekoak.


2009-2013 epealdian gora egin ondoren, zenbait lan-educitan larunbateko edo igandeko lanaren gutxieneko maila dute 2016an. Hala gertatzen da, adibidez, irakaskuntzan eta bulegoko jardueretan (% 11,3koa 2016an, eta 2009ko % 17,3tik hauteman zen jaitsieraren eten bat 2013 eta 2016 artean). Antzeko gauza gertatu zen ekoizpenaren arloan, izan industriakoa izan hirugarren sektorekoa. 1996 eta

2000 artean % 32,8tik % 37,4ra igo ondoren eta 2009-2013 epealdian izandako igoera handia izan ezik (% 42,6, 2013an), jaisteko bideari ekin zion berriro, eta minimoa izan da 2016an: % 31,1.

Joera berdina izan dute osasuneko goi-mailako tituludunek, nahiz eta jaitsiera pixka bat txikiagoa izan den: % 66,4koa zen 1996an, eta % 50,6koa, 2016an. Zuzendaritzako jardueretan handiagoak dira gorabeherak: 2016an % 27,4koa izan zen, 2009ko % 22,2 baino handiagoa baina 1996az geroztiko gainerako guztiak baino txikiagoa.

Merkataritzako jarduerak eta bestelako zereginak dira larunbateko edo igandeko lan-kopuru handietan nolabaiteko egonkortasuna dutenak, % 60tik hurbileko kopuruetan eutsi baitzaio. 1996. eta 2000. urteetako % 61-63 arteko kopuruetatik 2004ko % 55,1era jaitsi ondoren, jarduera horietan larunbatetan edo igandeetan lan egiten duten soldatapekoak % 61,4ra iritsi ziren 2013an, eta, beraz, mendearen hasierako mailak berreskuratu ziren. 2016an larunbateko edo igandeko lana egiten dutenen kopuruaren murrizketa lan-eduki hauetan ere gertatu da, baina mugatuagoa izan da, % 59,4 baitira, hots, 2009ko % 59,8tik hurbil eta 1996, 2000 eta 2013koen antzera.


36. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Larunbateko lana eta igandeko lana bereizita aztertuta (37. eta 38. grafikoak) antzeko joerak ikusten dira. Dena den, igandeko lanari dagokionez zenbait ñabardura egin behar dira, larunbateko lanean ez bezala, 2016an hautemandako % 20,9a altuagoa da 1996-2004 epealdian izandakoa baino (epealdi horretan gehienekoa % 19 izan zen). Nahiz eta 2013ko % 26,2tik behera egon, oso hurbil dago 2009ko % 21,6tik. Igandeko lanaren pisua, beraz, handiagoa da, gaur egun, 1996-2004 epealdian baino.

37. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

38. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Igandeko lanari buruz esandakoa honek eragiten du batetik: osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean handia izaten jarraitzen duelako. Lan-eduki horretan, 2016an langileen % 44k lan egiten du igandeetan, eta 1996az geroztiko aldi guztietan hautemandako mailen oso antzekoak dira. Irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean, eta bulegoko langileen taldean ildo horri berari jarraitu zaio, baina ehuneko oso txikiekin (% 6,4, 2016an), igandeko laneko kopuruak antzekoak dira 2016an eta 2000-2009 epealdian.

Beste alde batetik, merkataritzako jardueretan eta bestelako zereginetan 1996 eta 2004 artean beheranzko joera izan ondoren (1996ko % 33,5etik 2004ko % 27,2ra), 2009ko gorakada (% 36,9) ez du guztiz orekatu gerorako beheranzko dinamikak, % 35,2koa izan baita 2016an, 1996tik 2004ra artekoa baino handiagoa. Antzeko zerbait gertatu da zuzendaritzako jardueretan. 1996 eta 2009 bitartean % 17,2tik % 12,4ra jaitsi ondoren, 2013an % 24,7ra igo da adierazlea. Eta azken urteetan beherantz egin duen arren, 2016ko zenbatekoa (% 16,2) hurbilago dago 1996ko erregistroetatik 2009ko erregistroetatik baino.

Kasu atipikoena ekoizpen-jarduerak dira. Kasu horretan, igandeko lanak gora egin du: 1996ko % 16,3tik 2013ko % 24,5era. 2016an erregistratutako % 17ak hautsi egiten du igandeko lanaren goranzko joera, eta 1996ko minimoaren goitik soilik dago.

Sexuaren eta adinaren arabera azterketa bereziki interesgarria da, argi ikusten baita larunbateko edo igandeko lanaren ohikotasunera itzultze hori 30 urtetik gorakoan artean soilik gertatzen dela. Izan ere, adin horietan, 2016an lan-forma horretan izandako erregistroak txikienak dira 1996az geroztik. Hala gertatzen da 30 urtetik gorako gizonezkoen artean (% 33,6, 2016an, eta % 35, minimoa, 2009an) zein emakumeen artean (% 33,5, 2016an, eta % 34,1, minimoa, 1996an).

39. grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Eta, aldiz, 30 urtetik beherako emakumeen artean, 2013ko maximoa (% 53,8) igoera handia da 2000 eta 2009 artean izan ziren kopuruekiko (% 44-45 artekoak izan ziren), eta eutsi egin zaio, oro har, 2016an, % 53,7koa izan baita. 30 urtetik beherako gizonen artean, 2016. urtekoa altuena da 1996az geroztik: % 44,7koa da, 2013ko % 42,6a baino altuagoa.

Atsedeen-ereduek okertzen jarraitzen dute

Nahiz eta larunbateko edo igandeko lanaren pisu erlatiboak behera egin, ez du behera egin gutxienez bi atsedeen-egun jarraian bermatzen ez dituzten lan-formek. Aitzitik, atsedeen-eredu horiek ez dituztenen pertsonen proportzioak 2009 eta 2013 artean izandako goranzko joera ez da eten 2013 eta 2016 artean. Hala, jarraian bi atsedeen-egun ez duten soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak gora egin du: % 18,2 ziren 2009an, % 20, 2013an, eta % 23,9, berriz, 2016an. Dena den, 2016ko ehunekoa txikiagoa da 2004koa baino, urte hartan % 25ekoa izan baitzen proportzioa.

40.a grafikoa




Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2009 eta 2016 artean, bi atsedeen-egun jarraian ez dituzten lan-formen igoera ikusi da zuzendaritzako jardueretan (% 10,1etik % 22,1era), industria-ekoizpenean eta hirugarren sektoreko ekoizpenean (% 14,5etik % 19,3ra) eta bulegoko jardueretan eta irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean (% 8,2tik % 14,1era). Lan-eduki horietan, 2016an 1996az geroztiko maila altuenak lortzen dira, 2000. urteko maximoak izan ezik (% 22,3, % 21,4 eta % 16,1, hurrenez hurren).

Bilakaera hori ez dator bat, ordea, gutxienez jarraian bi atsedeen-egun ez izateak eragin handiena zuen lan-edukietan izandakoa eboluzioarekin, eta bereziki, osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean izandakoarekin. Hain zuzen ere, egoera horretan zeuden pertsonen ehunekoak behera egin zuen aurreko urteetan: % 30etik gorakoa zen 1996an eta 2000n, % 24,2koa 2004n, eta % 14,2koa, 2009an. Eta 2013an bat-batean % 22ra igo ondoren, beherazko joerari ekin dio, berriro ere, 2016an, eta % 11koa da. Hala, profesional-talde horretan du, gaur egun, eragin txikiena jarraian bi atsedeen-egunik gabeko lan-ereduak.

Joan den mendearen amaieran, bi atsedeen-egun jarraian ez dituztenen proportzio handiena zuten lanak merkataritzako jarduerak eta bestelako zereginak ziren, eta horiek izaten jarraitzen dute 2016an. Talde horretan, ordea, beheranzko joera izan zen (osasunaren alorrean baino txikiagoa baina noranzko berebean) 2013. urtera arte, eta 1996-2000 epealdian % 40tik gorakoa izatetik % 30,6koa izatera pasatu zen. 2016an ordea, gorakada handia izan zuen, eta hala, jarraian bi atsedeen-egun ez zituztenen proportzioa % 39,7koa izan zen, 1996ko % 40,6tik oso hurbil eta 2000. urteko % 41,7a baino zertxobait txikiagoa soilik.

40.b grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, 2009-2016 epealdian, aztertutako adierazlearen gorakada oso nabarmena da 30 urtetik beherako pertsonen artean. Nahiz eta 2016an jarraian bi atsedeen-egun ez dituzten lan-formen pisuak goreneko maila izan adin-tarte horretako emakumeen artean (% 39,6ko proportzioa, 2009ko % 28,8tik oso gora), igoera handiena 30 urtetik beherako gizonen artean gertatu da, 2009an % 12,5 baitziren, eta 2016an, berriz, % 24,2. Bi kasuetan, 2016ko proportzioak maximoak dira.

2009-2016 epealdiko igoera 30 urtetik gorako biztanleen artean ere hautematen da, eta intentsitate nahiko handia du gizonen artean, % 13,7 baitziren 2009an, eta % 20,3, berriz, 2016an. Igoera askoz txikiagoa da, % 22,7tik % 25,4rako, emakumeen artean. Bi sexuetan, 2016ko erregistroa altuena da 1996tik, baina 2000ko kopuruetatik behera dago (% 21,2 gizonen artean, eta % 28,3, emakumeen artean).

40.c grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Oro har, behera egin du lanaldi luzearen (10 ordu baino gehiago jarraian) eraginak, baita gaueko lanaldiak ere, baina zenbait ñabardura daude gizonen artean


2013 eta 2016 artean, normalizatu egin da lanaldi luzea, hamar ordukoa edo hortik gorakoa, duten soldatapekoen eta antzekoen proportzioa. 2000 eta 2004 bitartean proportzioa % 15etik % 12,6ra jaitsi ondoren, 2009an % 15,1era igo zen, eta 2013an, gehieneko kopurura heldu zen, % 19ra. 2016an, ehunekoak behera egin zuen % 13,2ra, beherago 2004ko % 12,6a soilik duela.

Jaitsiera oso handia da: minimoak izan dira 2016an, 2000. urtetik geroztikako aldian, irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean eta bulegoko jardueretan (% 7,6 izan da 2016an, eta aurreko minimoa % 9,5 izan zen 2004an), industria-ekoizpenean eta hirugarren sektoreko ekoizpenean (% 9,7 izan da 2016an, eta aurreko minimoa % 10,8 izan zen 2014an). Antzeko joera izan da merkataritzako jardueretan eta bestelako zereginetan, baina azken kasu horretan, Euskadiko batez bestekoarekin gertatzen den bezala, 2016an hamar ordutik gorako lanaldiak dituztenen proportzioak 2004ko minimoa gainditu du (% 16,6 izan da, eta 2004an, % 13,3).

Zuzendaritzako jardueretan, hamar ordutik gorako lanaldiak dituztenen proportzioa % 33,1 da 2016an. 2013ko % 42,4tik behera dagoen arren, bigarren erregistrorik altuena da 1996tik, 2000ko % 32a baino altuagoa eta 2004. eta 2009. urteetako % 26tik hurbil.

Orain artean aipatutako talde guztietan, 2016ko erregistroa 2013koa baino txikiagoa da. Lan-eduki bakarrean, osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean, eusten zaio 2013ra arteko goranzko joerari. Kasu horretan, 2000ko % 26,3tik 2009ko % 17,6ra jaitsi ondoren, lanaldi luzearen eragina % 22,1era igo zen 2013an eta % 25,2ra, berriz, 2016an; hala, 2000ko maximora hurbildu da.

41. grafikoa




Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 artean, hamar orduko edo hortik gorako lanaldiaren eraginaren jaitsiera sexuaren eta adinaren arabera talde guztietan ikusten da. Eta bereziki deigarria da 30 urtetik gorakoen artean. Kasu horretan, lanaldi luzearen eraginak behera egin zuen % 18,5etik % 15,6ra 2000 eta 2004 bitartean, eta gerora etengabe egin zuen gora. 2013an talde horren % 26ren ezaugarria izan zen. 2016an, ehunekoa % 18,1era jaitsi zen, eta behetik 2004ko % 15,6 soilik du.

Jaitsiera handia da 30 urtetik gorako emakumeen artean ere. Kasu horretan, 2016ko proportzioa, % 8,7, ohiko mailetara itzuli da, 2004ko % 8,0tik 2009ko % 9,8ra artekora. Beraz, 2013ko % 12,7a orain artean ezohikoa izan den igoera moduan geratzen da.

Dinamika atipikoena 30 urtetik beherakoek izan dute, eta joerak desberdinak izan dira, gainera, sexuaren arabera. Alde batetik, gizon gazteen artean hamar orduko edo hortik gorako lanaldiaren beherakada ia etengabeko joera ikusten da, 2001eko % 18,1etik 2016ko % 10,1era. Eta emakumeen artean eragina 2013ko % 14,5etik 2016ko % 13,4ra jaisten den arren, kopuru horrek adierazlearen goranzko joera adierazten du, % 9,1ekoa baitzen 2004an, eta % 12,7koa, 2009an. Eta handiagoa da 2000ko % 11,1 baino ere.

42. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 artean eragina murriztu duen beste lan-eredu atipiko bat gaueko lana da. 1996. urtean soldatapekoen eta antzekoen % 17,5ek egiten zuten, gerora pixka bat behera egin zuen (% 16k baino pixka bat gutxiagok 2004an eta 2009an) eta gora egin zuen 2013an, % 17,7 baitziren halako lana egiten zutenak. 2016an, eragina % 15,9ra jaitsi da eta 2004ko eta 2009ko maila minimoetan dago.

2013-2016 epealdiko beheranzko bidea lan-eduki guztietan gertatzen da, merkataritzako jardueretan eta bestelako zereginetan izan ezik. Jarduera-talde horietan adierazleak egonkor eutsi dio 2000. urtetik, eta % 18,5 eta % 20,3 artean egon izan da (% 19,4, 2016an).


Egonkortasuna da ezaugarri, halaber, hirugarren sektoreko ekoizpenean, eta kopuruak % 12,9 eta % 13,5 artean egon izan dira oro har. 2009an % 15,1era igo ondoren, beheranzko joera hauteman da, % 13,5ekoa izan baita 2013an eta % 12koa, minimoa, 2016an.

Irakaskuntzako goi-mailako tituludunen eta bulegoko lanak egiten dituztenen artean ere minimoa izan da, % 3,1, eta aldaketa txikiak izan ditu 1996az geroztik, % 3tik gorako eta % 4tik beherako kopuruetan ibili baita. Bestalde, zuzendaritzako jardueretan, % 8,8koa izan da 2016an, eta pixka bat gainditu da 2004. eta 2009. urteetan izan ziren ehunekoak % 7,9 eta % 8,5 artekoak izan baitziren.

2013 eta 2016 artean, gaueko lanaren murrizketa handiena osasunaren arloko tituludunen artean gertatu da. % 33,8k egiten du gaueko lana 2016an, eta 2013ko % 43,9tik eta 2004ko % 45,5etik oso urrun egoteaz gain, txikiagoa da 1996. eta 2009. urteetako % 37,2a baino. Dena den, aztertutako lan-edukien artean gaueko lanaren maila handiena duen taldea da 2016an.

Adierazitako egoera baikor horretan, industria-ekoizpenean gaueko lanak duen eragina ez da hain positiboa. Nahiz eta 2016ko adierazleak argi eta garbi egin duen behera 2013ko % 29,6ko maximoarekiko, goranzko joera argia izan du 2004tik. Urte horretan, gaueko lana % 22,4k egiten zuen, 2009an % 24,2k eta 2019an % 26,5ek (1996az geroztiko bigarren erregistro altuena).

43. grafikoa



Iturria: EOB, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Gaueko lanak ez die modu berean eragiten gizonei, hamar puntu gehiagoko eragina du gizonen taldeetan eta gorantz egiten ari da oro har. Bereziki garbia da 30 urtetik beherakoan artean. Hala, gizon gazteetan, 1996 eta 2009 artean gaueko lanaren eraginak behera egin ondoren (% 24,2tik % 18,4ra), gorantz egin zuen 2013an (% 25,1), eta maximoa izan da, berriz, 2016an: % 26,5.

Eta joera bertsua izan da, nahiz eta hain markatua ez izan, 30 urtetik gorako gizonen artean. 1996 eta 2004 artean % 21,9tik % 19,1era jaitsi ondoren, gora egiten hasi zen 2004-2009 epealdian (% 21 izan zen 2009an) eta maximoa jo zuen 2013an: % 23,1. 2016an behera egin arren, urte horretako % 21,3ak 2009ko erregistroa gainditzen du eta 1996. eta 2013. urteetako mailak soilik ditu azpitik.

Eta, aldiz, 30 urtetik gorako emakumeen artean, gaueko lanak % 9,2ko eragina izan zuen 2016an, eta 2004tik 2013ra arteko goranzko joera (% 10,2tik % 10,8ra igo zen) aldatzea eragin zuen. Emakumeen talde horretan, adierazlea, berriro ere, 1996 eta 2000 arteko % 8,5-9tik hurbil dago.

Gaueko lanaren eragina handiagoa da 30 urtetik beherako emakumeen artean: % 13,1, 2016an. Nahiz eta proportzio hori handiagoa izan 2009ko % 9,2koa eta 1996ko % 7,7koa baino, askoz txikiagoa da 2013koa baino (% 16,2) eta 2000. eta 2004. urteetakoak baino (% 14-14,8).

44. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Txandakako lanaren pisua egonkortu egin da, baina gora egin du merkataritzako jardueretan eta bestelako zereginetan, bai eta 30 urtetik beherako gizonen artean ere

Azken urteetan egonkortu egin da txandakako lanaren pisu erlatiboa: 2009an eta 2013an soldatapekoen eta antzekoen % 22,8k zuten, eta 2016an % 23,1k. Azken urte horretako erregistroak bat bakarra du gainetik, 2000. urteko % 24,1a, hain zuzen ere. Nolabaiteko egonkortasun horretan, orde, dinamika desberdinak daude lan-edukien artean. Zenbait lan-eduki nabarmentzen dira, berriro ere, 2016an, aurreko hamarkadako erdialdean ikusitakoa baino eragin handiagoa duelako txandakako


lanak. Baina 2013an ez bezala, 2016 txandakako lanak ez du izan ezein lan-educitan maila historiko handiena.

Industria-ekoizpenaren kasuan, txandakako lanaren pisuak 2004an eta 2009an taldeko biztanleriaren % 35 ingururi eragiten zien, 2013an % 41i, eta 2000ko % 39a gainditzen zuen. 2016an % 40,5eko eragina izan zuen, eta 2013ko maximotik oso hurbil dago.

Osasunaren sektorean goi-mailako titulazioa duen biztanleriaren artean, adierazlea 2004ko % 34,4tik 2013ko % 41,6ra igaro da, eta hala, era berean 2000ko gehieneko kopurua –% 38,6– gainditu da. Baina 2016ko kopuruak, % 36,4, txandakako lanaren eraginaren jaitsiera handia erakusten du, txikiagoa baita 2000 eta 2009koa baino (% 38,6), bai eta 2013ko maximoa baino.

Merkataritza-jarduerak eta bestelako zereginak taldean, ordea, handitu egin da txandakako lanaren pisua: % 26,6koa zen 2013an eta % 30,4koa izan da 2016an. Proportzioa 2009ko maximotik hurbil dago, % 31,1ekoa izan baitzen.

45. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Txandakako lanaren eragin txikiena duten lan-educietan, egonkortu egin da lan-forma horren beheranzko joera. Hirugarren sektoreko ekoizpenean % 16,3koa izan zen 2016an, eta txikiena da 2004. urtetik (% 19,3koa izan zen urte horretan), nahiz eta handiagoa den 1996ko % 10,8a baino.


Zuzendaritzako jardueretan ere 2016ko eragina (% 4,4) askoz txikiagoa da 2004koa baino (% 10,6), eta kasu honetan 1996ko % 5,8tik behera ere badago.

Irakaskuntzako eta bulegoko jardueretan ere beheranzkoa da joera: 2000ko % 6,4tik % 4,7ra jaitsi da 2016an, 1996ko minimoa (% 4,2) baino hamarren batzuk gehiago soilik.

Alde handiak daude, oraingoan ere, generoaren eta adinaren arabera, txandakako lanaren gutxiko dinamikan. 2016an, lan-forma horren eragina asko handitu da 30 urtetik beherako gizonen artean. Kasu horretan, 2009an minimoa izan ondoren (% 22,1) proportzioak gora egin zuen 2013an (% 26,6) eta askoz gehiago igo zen 2016an, % 42,4ra iritsi baitzen. Hala, 2016an, txandakako lanaren pisu handiena gizon gazteek dute orain, eta 30 urtetik gorako gizonen % 28tik gorakoa da. Dena den, 30 urtetik gorako gizonen taldeak maximoetan jarraitzen du, 2013ko % 28,4koa baino hamarren batzuk txikiagoa da soilik. Urte hartan goranzko joera argia ikusten zen 2004ko % 23,9tik.

Emakumeen artean, txandakako lanaren pisuak jaisten jarraitzen du. Jaitsiera oso agerikoa da 2009tik aurrera 30 urtetik gorako emakumeen artean, eta 2000tik aurrera adin horretatik beherakoen artean. 2016an, 30 urtetik beherakoen % 18,2k du txandakako lana, eta 30 urtetik gorakoen % 15,9k, eta mende hasieraz geroztiko maila minimoak dira. Dena den, 1996ko kopuruetatik dezente gora daude: % 11 eta % 11,7 ziren, hurrenez hurren, txandakako lana egiten zutenak bi talde horietan.

46. grafikoa




Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanaldi etengabeak gora egiten jarraitzen du, baina poliki

2016an sendotu egin da lanaldi etengabearen nagusitasuna txandaka lan egiten ez duen biztanleriaren artean. Lanaldi horren presentzia duten modalitateak aztertu den biztanleriaren % 59,9ren ezaugarri dira, eta lanaldi etengabea kasuen % 55,9n nagusi da. LBI egiten denetik izan diren kopuru handienak dira. Nahiz eta ez diren 2009ko eta 2013ko kopuruetatik aldentzen (% 57,8 eta % 53,3, eta % 59,2 eta % 53 izan ziren, hurrenez hurren), 2016an lanaldi jarraituak, lanaldi nagusi moduan, aise gainditzeko 1996tik 2004ra arteko kopuruak, % 38,6tik % 41,8ra bitartekoak izan baitziren.

Alderdi horretan, 2013-2016 epealdiko aldaketarik deigarriena hau izan da: 2009 eta 2013 artean forma mistoek –hau da, lanaldi etengabea eta etena konbinatzen direneko formek– izan duten igoera erlatiboa etetea. Lanaldi-modalitate horrek gora egin zuen % 5,1etik % 7,8ra 1996 eta 2004 bitartean, eta % 5,9ra jaitsi zen 2009an. 2013an, % 8,9koa izan zen, eta 2016an 2009ko mailetara hurbildu zen berriro: % 5,7.

47. grafikoa



Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-edukiaren araberrako bilakaerak, ordea, zenbait alde garrantzitsu jartzen ditu agerian duela gutxiko dinamikan. Bereziki deigarria da goranzko joera lan kategoria baxuetan, bai eta bestelako zereginetan ere. Kasu horretan, lanaldi jarraitua 1996-2004 epealdian % 50etik % 54ra artean egon ondoren, lanaldi modalitate horrek, lanaldi nagusi moduan, jauzi handia egin zuen gorantz: % 64,7k zuten 2009an, eta % 68,9k, 2013an. Eta 2016an maximoa izan da berriro, % 74,2k baitute halako lanaldia.

Eta kopuru hori, 2016an, handiagoa da osasunaren arloko goi-mailako tituludunena baino (% 73,1), orain artean nagusiki lanaldi jarraituaren eragin handiena izan duen taldearena baino. Eta, izan ere, azken talde horretan 2009an izan zen jaitsieraren ondoren (% 69,4ra jaitsi zen), ehunekoak gora egin


zuen eta % 73tik gorakoa izan da 2013-2016 epealdian. Dena den, 1996-2004 epealdiko % 80tik gorako ehunekoetatik behera dago.

Beste alde batetik, zuzendaritzako jardueretan eta beste kategoria altu eta ertain batzuetan (industria-ekoizpenean izan ezik), 2009-2013 epealdiko jaitsieraren ondoren berriro gora egin du lanaldi jarraituak.

Zuzendaritzako lanetan, nagusiki lanaldi jarraitua dutenen pisuak gora egin zuen 1996ko % 20,6tik 2009ko % 40,5era, eta, ondoren, behera egin zuen 2013an eta % 33,7koa izan zen. 2016an, talde horretan % 39,4k du nagusiki lanaldi jarraitua. Gainerako kategoria altu eta ertainetan, 1996ko % 37,4 eta 2000ko % 39,1 arteko kopuruetatik % 33,1era jaitsi ondoren 2004an, nabarmen egin zuen gora 2009an, eta % 54ra iritsi zen. 2013an % 45,4ra jaitsi ondoren, lanaldi jarraituak gora egin du 2016an eta % 51,1era iritsi da, 2009ko maximotik 2,9 puntu gutxiago soilik.

Industria-ekoizpenean, lanaldi jarraituak, modalitate nagusi moduan, gora egin zuen 2000. urteko % 24,9tik 2013ko % 40,4ra. Baina txandakakoak ez diren lanetan, lanaldi-mota horrek garrantzi pixka bat galdu du eta 2016an % 38koa da, jaitsiera izan duen lan-eduki bakarra. Dena den, lan-eduki horretan 1996tik izandako bigarren erregistro altuena da.

48. grafikoa




Iturria: EOB, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, eta 2009-2013 epealdiko jaitsieraren ondoren, 2013 eta 2016 artean gora egin du, argi eta garbi, nagusiki jarraitua den lanaldiaren pisuak 30 urtetik gorako emakumeen artean: % 67,8koa izan da 2016an, 2013ko % 62,2a gainditu du, eta maximoa da 1996ko % 52,4tik. Eta, aldiz, gizonen artean, 2013 eta 2016 artean, nagusiki jarraitua den lanaldiaren pisua egonkortzeko joerari eutsi zaio, 2009. urtean hasi zen prozesuari, alegia. 2013ko % 42,5etik gora dagoen arren, 2016an jasotako % 43,7a 2009. urtekoaren antzekoa da, % 44,9koa izan baitzen urte horretan. 30

urtetik gorako emakumeen artean bezala, 2016ko proportzioa askoz handiagoa da 1996-2004 epealdikoa baino (epealdi horretan gizonen artean % 31,1 eta % 32,7 artekoa izan zen proportzioa).

Bilakaera atipikoa 30 urtetik beherako emakumeek izan dute: 2013 eta 2016 artean eten egin da lanaldi jarraituak 2004-2013 epealdian izan zuen goranzko joera garbia. Hala, 2013an % 69,4 iritsi ondoren, nagusiki lanaldi jarraitua dutenak % 55,8ra jaitsi dira 2016an, eta kopuru hori 2009ko % 58,3koa baino zertxobait txikiagoa da. Gainerako biztanleria-talde guztiekin gertatzen den bezala, 2016ko adierazlea 1996-2004 epealdiko kopuruetatik gora dago argi eta garbi, % 44,9 eta % 47,6 artekoa izan baitzen aldi horretan.

49. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Lantokian bazkaltzeko ohiturak handitzeak dakarren aldaketari eusten zaion arren, bazkaltzeko atsedena malgutu egin da 2013 eta 2016 artean, eta behera egin du bazkaltzeko 75 minutu baino gutxiago dutenen proportzioak

Uneren batean lanaldi etenean lan egiten duten biztanleen artean, 2016. urtean berriro egin du behera bazkaltzeko atsedenerako 75 minutu baino gutxiago dituztenen proportzioak. 2009ra arte, jaitsiera nabarmena izan zen: % 56 ziren 1996an eta % 49,2, berriz, 2009an. Baina joera hori aldatu egin zen 2013an, bat-batean % 62,6ra igo baitzen. 2016an, ordea, pixka bat zuzendu da, % 57koa izan baita. Eta berriro jaitsi arren, 2016ko proportzioak 1996-2004 epealdikoak baino handiagoa izaten jarraitzen du.

Jaitsiera horren azalpen nagusia bazkaritarako etenaldian 45 minutu baino gutxiago ematen dituzten pertsonak dira. 2013an aztertutako biztanleriaren % 24,2 izatetik % 16,5ra jaitsi da proportzioa 2016an. 2016ko kopurua 1996 eta 2009 artekoaren antzekoagoa da 2013koa baino, urte haietan % 11,7tik % 14,3ra bitartekoa izan baitzen.

Eta, aitzitik, bazkaltzeko 46 minututik 75 minutura duten biztanleriaren proportzioa % 42,8tik % 34,9ra jaitsi ondoren 1996 eta 2009 artean, ordudanik goranzko joera izan du. Proportzioa % 40,5ekoa da 2016, eta 1996ko % 42,8a soilik du gainerik.

50. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Bazkaltzeko denborari dagokionez, 2009ko joera horretara nolabait itzultzea bateragarria da jateko lekuari buruzko jokabidea aldatzean izandako egonkortzearekin. 2013an, handitu egin zen lantokian bertan bazkaltzen zutenen proportzioa eta joera hori finkatu egin da, nolabait. 1996 eta 2004 artean % 12tik behera egon ondoren, lantokian bazkaltzen zutenak % 28,7 izan ziren 2013an. Eta 2016an, berriz, % 27,7 dira.

Eta kanpoko jatetxean jaten dutenen kopuruan izandako jaitsierak ere bere horretan jarraitzen du. 1996tik 2004ra bitartean % 15,8tik % 21,1era igo ondoren proportzioa % 10,6ra jaitsi da 2016an eta txikiagoa da 2013koa baino (% 11,8koa izan zen). Beheranzko joera hori bera hautematen da enpresako jatetxeari dagokionez ere. 2016an % 5,3 soilik ziren halako batean jaten zutenak, 2013ko minimoa (% 5) baino zertxobait gehiago.

Etxean bazkaltzen dutenen proportzioa % 51,6koa izan da, 2013ko % 51,8a baino pare bat hamarren gutxiago soilik. Dena den, 1996tik erregistratu den kopururik txikiena da.

51. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egiten jarraitzen du opor-egun guztiak hartzen ez dituzten pertsonen proportzioak

2009 eta 2013 bitartean gertatu zen bezala, 2013 eta 2016 bitartean gora egiten jarraitzen du opor-egun guztiak hartzen ez dituzten soldatapeko eta antzekoen proportzioak. Adierazle horren proportzioak gora egin du: % 14,6 zen 2009an; % 19,3, 2013an; eta % 20,5, 2016an (2014ko % 19,1a baino proportzio handiagoa). Proportzio hori, ordea, txikiagoa da 1996. eta 2000. urteetako baino (% 23-24 artekoa izan zen).

52. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Opor-egun guztiak hartzen ez dituzten soldatapekoen eta antzekoen proportzioaren igoera azaltzeko, garrantzitsua da iraupen mugagabekoak ez diren kontratazio-formen bolumenak eta pisu erlatiboak 2013 eta 2016 artean izan duen igoera handiak. Horregatik handitu da hainbeste, hain zuzen, urte oso batez lana ez izatearekin lotutako arrazoia (% 58,6, 2013an eta % 65,5, berriz, 2016an. Goitik 2004ko % 72,2 eta 1996ko % 73 soilik ditu).

Egoera ekonomikoaren hobekuntzak enpresaren eskakizunekin lotutako arrazoiak murriztea eragin du: % 18,5 izan zen 2016an, 1996 eta 2004ko % 16,5 inguruko mailetatik gora dago soilik, eta 2009ko % 24,6tik eta 2013ko % 25,6tik ondo behera.

Eta, aldiz, oporren zati bati borondatez uko egiten dioten pisuak gora egiten du pixka bat. Hala egin dutenak % 16 ziren 2016an, pixka bat gehiago 2013ko % 15,7a baino. 2009an izandako % 19,9 soilik du goitik. Kopuru absolututan, ordea, ez da hala gertatzen: 25.893 pertsona zeuden egoera horretan, eta kopuru altuena da 1996tik.

2016an, batez besteko oporretako lan-egunen kopurua minimoa da 1996tik

1996ko 24,4 egunetatik 2000 eta 2004an 26 egunera eta 2009an 27,3ra igo zen batez besteko oporretako lan-egunen kopurua. 2013an, aldiz, behera egin zuen 25,2ra, opor-egun guztiak hartu zituzten pertsonen artean. Proportzioak, ordea, behera egin du berriro 2016an, eta batez bestekoa 23,8 egunekoa da. 1996tik erregistratu den kopururik txikiena da.

2009 eta 2016 artean, murrizketak irakaskuntzako goi-tituludunen artean izan du eragin handiena eta 16,1 egun ere galdu dituzte (47,6tik 31,5era). 3 egun baino gehiago galdu dituzte hirugarren sektoreko ekoizpeneko kategoria altu eta ertainetan jarduten dutenek (26,9tik 23,5era), merkataritzako jardueretako kategoria baxukoek (26,5etik 22,8ra) eta bestelako jarduerak egiten dituztenek (28,0tik 24,2ra). Eta, aldiz, osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean 2009tik 2013ra izandako jaitsiera handia (27,7 egunetik 24,5 egunera) zertxobait konpentsatu da 2016an, batez beste 25,2 egunekoa izan baita.

2009 eta 2016 artean, bate besteko opor-egunak gehiago jaitsi dira emakumeetan: -4,7 egun (29,2tik 24,5era) emakumeak, eta -2,7 egun gizonak (25,9tik 23,2ra). Bost egun baino gehiago murriztu dira 30 urtetik beherakoen artean (27,4tik 22,4ra) eta 45 eta 64 urte bitarteko emakumeen artean (31,1tik 25,2ra).

2013an lortutako laneko autonomia-maila ahuldu egin da 2016an


Adierazle batzuek agerian jarri zutenez, 2013an gora egin du soldatapekoek eta antzekoek lanean duten autonomia-mailak. Nahiz eta 2013-2016 epealdian hautemandako aldaketek ez dakarten, kasu guztietan, aipatutako dinamikaren erabateko aldaketa, laneko autonomia-maila handitzeko joera asko ahuldu da 2016an.

Lan-kategoria baxuetan, handitu egin da helburu zehatz bat eta helburu hori lortzeko modu zehatz bat ezarriz haien lan-modalitateak mugatuta ez dauzkaten pertsonen proportzioa, baina txikitu egin da kategoria ertain eta altuetan, eta, bereziki, industria-ekoizpenetik kanpo

2013 eta 2016 artean, kategoria baxuetan eutsi egin zaio helburu zehatz bat eta helburu hori lortzeko modu zehatz bat ezarriz haien lan-modalitateak mugatuta ez dauzkatenen proportzioaren igoerari. 2000 eta 2009 artean % 67,4tik % 64,3ra jaitsi ondoren, proportzioak gora egin du: % 67,7koa izan zen 2013an, eta % 68,5koa, 2016an (erregistrorik altuena da 1996tik).

Joera aldatu egin da, ordea, kategoria altu eta ertainetan. Izan ere, kategoria horietan, 2013 eta 2016 artean, proportzioa % 77,7tik % 75,8ra jaitsi da industria-ekoizpenean, eta % 84,1etik % 82,4ra, gainerako jardueretan. Industria-jardueretan proportzioak 1996tik jasotako maila gorenetan eusten dio: 2000ko % 75etik gora eta 2013ko % 77,7tik behera soilik. Baina gainerako kategoria altu eta ertainetan proportziorik baxuena da 1996tik eta 2004ko % 81a du soilik behetik.

53. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Zuzendaritzako eta merkataritzako kategoria altu eta ertainetan izan ezik, modu deigarrian jaitsi da ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen zituzten pertsonen proportzioa


1996 eta 2004 bitartean, etengabe egin zuen gora lanean gertatzen diren ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen zituzten pertsonen proportzioak. Adierazlea 1996ko % 52,7tik % 60,4ra igo zen. 2009an % 52,9raino jaitsi zen, gerora proportzioak gora egin zuen, eta 2013an % 65,6koa izan zen. 2016an, ordea, berriro eta modu deigarrian jaitsi da proportzioa, eta % 56koa da, 2013ko maximotik behera ez ezik 2009ko % 60,4tik behera ere bai. Dinamika horrek erakusten du krisian egokitzapen-

prozesua izan ondoren, berriro 2004-2009 epealdian izandako beheranzko joerari heldu zaiola erabakiak hartzeko autonomiaren adierazle honetan.

Dena den, dinamika desberdinak eta itxuraz kontrajarriak ikusten dira lan-edukiaren arabera. Alde batetik, zuzendaritzako jardueretan eta merkataritza-jarduerako kategoria altu eta ertainetan, lasaitu egin da krisi garaian hautemandako joera, goragokoen kontrola handiagoa izateko joera. Soldatapeko edo antzeko pertsona horien artean, 2009 eta 2013 artean autonomia-adierazle hori % 74tik % 70,1era jaitsi ondoren, ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen dituzten pertsonen proportzioak maximoa lortu du 2016an: % 75,7.

Baina gainerako jardueretan deigarriagoak dira 2013 eta 2016 artean oro har hautemandako jaitsierak. Izan ere, zuzendaritzakoez eta merkataritza-jardueraz bestelako gainerako kategoria ertain eta altuetan ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen dituzten pertsonen proportzioak behera egin du: % 69,8k zen 2013an, eta % 56,9, berriz, 2016an. Eta, hain zuzen, kopuru horrek 1996ko % 54,6a soilik du behetik. Kategoria baxuetan, % 60,5etik % 47,3ra jaitsi da, eta 2009ko % 43,9a du soilik behetik.

54. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Handitzen jarraitzen du lan-ordutegi malgua edo nahierara alda dezaketen ordutegia duten pertsonen proportzioa, baina gora egin du ordutegi finkoa dutenen proportzioak

Enpresak ezarritako mugen barruan lan-ordutegi malguan edo bere borondatearen araberako ordutegi malgu batean lan egiten duten soldatapeko edo antzekoen bolumenak handitzen jarraitzen du EAEn, eta guztizkoaren % 28,4 dira 2016an, 1996tik izandako proportziorik handiena. Baina goranzko joera makaldu egin da 2004-2013 epealdiarekin alderatuta (% 17,3tik % 27,5era igo zen aldi horretan).

Enpresaren irizpideen arabera ordutegi aldakorrak minimoa lortu du 2016an (% 9,2), baina ordutegi finkoaren epe luzeko beheranzko joera eten egin da 2013 eta 2016 artean: % 65,2koa zen 1996an eta % 59,4raino jaitsi zen 2013an, baina % 62,4raino igo da 2016an. Hala ere, ehuneko hori urrun dago, oraindik, 2009. urteko % 67,4tik eta 2004. urteko % 72,8tik.

55. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egiten jarraitzen du, argi eta garbi, lanean presentziaren kontrolik ez duten pertsonen proportzioak, baina gora egin du, halaber, kontrol antolatuak, zenbait lan-edukitan, batez ere


2009-2013 epealdian joera-aldaketa izan ondoren, 2013 eta 2016 artean lanean presentziaren kontrolik ez duten pertsonen proportzioak gora egiten jarraitzen du argi eta garbi. Proportzio horrek behera egin zuen etengabe 2000ko % 47,7tik 2009ko % 41,3ra. 2013an, gora egin zuen % 47,4ra, eta 2000. urteko kopuruetara hurbildu zen. 2016an, berriz, % 49,7koa da, eta, azkenik, 1996an jasotako proportzioa gainditu da.

Baina, halaber, gora egin du kontrol antolatuaren pean dauden pertsonen proportzioak. 1996 eta 2000 artean % 40,9tik % 37,9ra jaitsi ondoren, gorantz egin zuen, eta 2009-2013 epealdian behera egin ondoren, % 39,6koa izan zen 2016an (1996ko % 40,9 soilik du goitik).

Dinamika hori bereziki agerikoa da merkataritzako jardueretan eta industria-ekoizpenean. Jarduera horietan, 1996 eta 2004 artean ordutegien kontrol antolatua duten soldatapekoen proportzioak behera egin ondoren (% 48,4tik % 45era), adierazleak goranzko joera hartu du, eta maximoa lortu du 2016an, % 48,6ko proportzioarekin. Gainerako lan-edukietan ere, zuzendaritza-arloan izan ezik, gora egin du: % 30,4koa zen 2013an, eta % 32,7koa 2016an. Proportzio hori 2009 urtera arte nagusi izan ziren proportzioetara hurbiltzen da (% 32,4tik % 33,8ra bitartekoak izan ziren).


Beraz, kontrol antolatuen goranzko joera kopuru orokorrekin adierazten dutena baino garrantzitsua da eta 2013 eta 2016 artean zuzendaritza-arloan izandako jaitsiera handiak soilik arintzen du. Arlo horretan, ordutegien kontrol antolatua 1996ko % 35,5etik % 41,5etik pixka bat goragoko proportzioetara igo zen 2009an eta 2013an, eta bat-bateko jaitsiera izan zuen 2016an, % 30,7koa izan baitzen.

56. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

57. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 bitartean gora egin du kontrolekin, zaintzarekin, lankideekiko koordinazioarekin eta errespetatu beharreko arau edo epeen zerikusia duen presioak

Lanaren erritmoa baldintzatzen duten faktoreak kontuan hartzean, 2013 eta 2016 bitartean ikusi da gora egin dutela kontrolak edo zaintza edo lankideekiko koordinaziorako prozesuak aplikatzearekin zerikusia duten antolaketa-eskakizunek. Horrelako antolaketa-eskakizunak zituztenen ehunekoa % 53,4tik % 39ra jaitsi zen 2009 eta 2013 artean, eta 2016an gora egin zuen berriro % 48,3ra arte (erregistro hori 2009koak soilik gainditzen du). Dinamika bera hauteman da aplikatu beharreko arau edo epeen errespetuarekin lotutako eskakizunei dagokionez: % 37,9koa zen 2013an eta % 43,1, berriz, 2016an (2009ko % 51 soilik du gainetik).

Bilakaera horrek adierazten du 2009 eta 2013 artean lan-erritmoaren presioa murriztea ekarri zuten ekoizpen-egoerak desagertu egin direla, eta, bereziki, kanpoko eskaerarekin lotutakoak. 2009 eta 2013 bitartean % 76,4tik % 68,3ra jaitsi ondoren, kanpoko eskaera faktoreak gora egin du 2016an, eta % 73,8ra iritsi da. Askoz handiagoak dira 1996tik 2004ra bitarteko mailak baino, % 60 ingurukoak izan baitziren epealdi horretan.

58. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egiten jarraitzen du bazkalorduez bestelako etenaldiak dauzkaten pertsonen proportzioak

Lan egitean autonomia pertsonal handiagoa agerian jartzen duen beste alderdi batek ordea ildo positiboari jarraitzen dio: uneren batean etena den lanaldian bazkalorduez bestelako etenaldiak dauzkaten soldatapekoen eta antzekoen proportzioaz ari gara. Erreferentziako proportzioak gora egin du 1996ko % 37tik % 44,1-45,4ra 2000 eta 2009 bitartean, % 50,3ra 2013an, eta % 59,5era 2016an (maximoa da).

Gora egin du oporraldia aukeratzen duten pertsonen proportzioak

Opor egun guztiak hartzen dituzten pertsonen artean, gora egiten jarraitzen du haien oporren egunak proposatzen dituzten edo, gutxienez, enpresak ezarritako aukeren barruan zuzenean zehazten dituzten langileen proportzioak. Proportzio hori % 55,4koa zen 1996an eta etengabe handitu da 2016ra arte (% 65,3), nahiz eta 2004tik 2013ra arte izandako erritmoa baino txikiagoan izan (% 56,5etik % 64,2ra handitu zen). Eta, aldiz, 2009 eta 2013 artean oporraldia zuzenean proposatzen duten soldatapeko eta antzekoen proportzioa % 43,4tik % 42,6ra jaitsi ondoren, handitu egin da 2013 eta 2016 artean eta maximoa lortu du azken urte horretan: % 47,7.

Makina edo erreminta egokiak eskura edukitzeari dagokionez izan ezik, 2016an behera egin dute lana egiteko baliabideen egokitasunarekin lotutako arazoak

Krisia gainditzearen ondorioetako bat izan da asko hobetu dela soldatapekoek eta antzekoek lana egiteko erabilgarri dauden baliabideen egokitasunari buruz daukaten pertzepzioa. 2013an ikusitako egoerarekin alderatuta, ia alderdi guztietan jaso da arazo gutxiago hautematen dela, nahiz eta ez den kasu guztietan hala gertatzen 2004ko edo 2009ko egoerarekin alderatzen bada.

Jaitsiera garrantzitsuena behar adina kolaboratzailerik gabe lan egiten dutela esaten duten soldatapekoen proportzioak izan du. Proportzio txikiena 2004an izan zen (% 15,6), eta % 21,2raino igo zen 2013an, eta % 17,7ra jaitsi 2016an. Nahiz eta 2004koa eta 2009koa baino handiagoa izan (% 16,4), 2016koa 2013koa baino txikiagoa izateaz gain 1996 eta 2000koa baino txikiagoa ere bada (% 18 eta % 19 artekoa izan zen).


Bilakaera antzekoa da zereginak betetzeko denbora-epe eskasa duten pertsonen proportzioari dagokionez. 1996 eta 2000 bitartean gorakada izan zuen % 15,9tik % 20ra. Horren ostean, eragindako pertsonen proportzioak behera egin zuen apurka 2009ko % 14,5era arte. 2013an, adierazleak berriro ere gora jo zuen % 20,8ra arte, 1996az geroztiko zenbateko handiena, eta berriro behera egin du 2016an eta % 17,6koa izan da. Kasu horretan, ordea, 2016ko kopurua 2013ko % 20,8 eta 2000ko % 20 soilik ditu gainetik.

Kopuru erlatibotan, 2013 eta 2016 artean hautemandako hobekuntza askoz handiagoa da alderdi batzuetan: lan egiteko informazio argirik ez izatea (% 13,3ri eragiten zion 2013an eta % 9, berriz, 2016an); dokumentazio egokirik ez izatea (% 9,8koa 2013an eta % 7,9, berriz, 2016an); lankidetzarako aukerarik ez izatea (% 10,3koa 2013an eta % 7,1ekoa, berriz, 2016an); eta lokal edo altzari egokirik ez izatea (% 10,7koa 2013an eta % 6,7, berriz, 2016an). Eta hain zuzen ere azken bi adierazle horietan 2016. urtean maila txikiena izan da, eta informazio argirik ez izateari dagokionez izandako proportzioa (% 9) 2009ko minimotik (% 8,4) oso hurbil dago. Eta dokumentazio egokirik ez izatearen adierazlea ere ez dago oso urrun 2004ko eta 2009ko proportzioetatik: % 6,5etik % 7,6ra bitartekoa izan zen urte horietan, eta % 7,9koa, berriz, 2016an.

Hobekuntza ez da hain garbia programa informatiko egokiak edukitzeari dagokionez, nahiz eta jaitsiera garrantzitsua izan, % 12koa izan baitzen 2013an, eta % 10,3koa, 2016an. Eta adierazle horren kopuruak hurbil daude 2004ko eta 2009ko minimoetatik (% 9 eta % 10 artekoak).

Aitzitik, makina edo erreminta desegokiak izatea adierazlea egonkortu egin da, pixka bat gora eginda. Hain zuzen ere % 10,6koa izan zen 2016an eta maximoa da 1996tik.

59. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Behar adina kolaboratzaile ez edukitzearekin zerikusia duen adierazleari dagokionez, 2013-2016 epealdiko hobekuntza bereziki deigarria da kategoria altu eta ertainetan, zuzendaritza-arloan izan ezik, eta bestelako zereginetan. Lan-eduki horietan, 2013-2016 epealdiko jaitsiera bereziki garrantzitsua da, -8 puntukoa hain zuzen ere (% 24,1etik % 16ra), bulegoko jardueretan, merkataritzakoetan eta bestelako zereginetan. Baina handiak dira beste arlo batzuetan ere: -4,4 puntu irakaskuntzako goi-mailako titulazioetan (% 21,4tik % 17ra 2013 eta 2016 artean) eta -4,8, ekoizpenarekin eta osasunaren arloko goi-mailako titulazioekin lotutako kategoria altu eta ertainetan (% 20,5etik % 15,6ra, erreferentzia-aldi horretan).


Azken talde horretan, 2016ko % 15,6a minimoa da, eta minimoetatik hurbil dago, halaber, bulegoko jardueretan, merkataritzako jardueretan eta bestelako zereginetan, nahiz eta 2016ko % 16,1a zertxobait handiagoa den 2009ko % 13,3a eta 2004ko % 14a baino. Irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean ere, 2016an izandako proportzioa (% 17) baxuenetakoa da. 2000. urteko % 16,1etik hurbil dagoen arren, urrun dago 2004ko minimotik (% 9,4).

Kategoria altu eta ertainetan, dinamika oso desberdina izan da zuzendaritza-arloan. Izan ere, arlo horretan, behar adina kolaboratzaile ez edukitzearen arazoak gora egiten jarraitzen du, % 22,7tik

% 23,7ra igo baita 2013 eta 2016 artean. 2016ko erregistroa altuena da 1996tik eta oso urrun dago minimotik: % 11,8koa, 2009an.

Eta, antzera, proportzioak egonkor samar eusten dio, pixka bat gora eginda kategoria baxuetan (% 18,4tik % 19,5era 2013 eta 2016 artea). Kasu horretan ere behar adina kolaboratzailerik izatearen arazoa maila altuenean dago 1996tik, nahiz eta egonkorrago eutsi dion, 2016ko proportzioa ez baita 2004koa baino askoz handiagoa (% 16,2koa izan zen).

60. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gora egiten jarraitzen du laneko produktibitate pertsonalaren adierazleak 2013 eta 2016 bitartean.


Hobera egiten jarraitzen du laneko produktibitate pertsonalaren adierazleak 2013 eta 2016 bitartean. Alde batetik, 2013 eta 2016 bitartean, produktibitate pertsonalean aurrera egiten duela dioten pertsonen ehunekoak gora egin % 41,3tik % 41,7ra, eta ez dago oso urrun 2004ko % 44,9tik. Beste alde batetik, produktibitate pertsonalaren jaitsiera adierazi dutenen proportzioak behera egiten jarraitzen du: % 17,2 izan ziren 2009an, 2013an % 14,5, eta 2016an % 8,5 (2004ko % 6,6ko proportziotik 1,9 puntu gehiago soilik). Produktibitate pertsonalaren igoeraren eta jaitsieraren arteko diferentziala 2016an 33,2 puntu positibo izan da, 2009ko 10,8 puntuak eta 2013ko 26,7 baino gehiago. Dena den, 2004ko 38,3ak baino 5,1 puntu gutxiago da.

Produktibitate pertsonalaren igoeraren eta jaitsieraren arteko diferentziala aztertuta, ikusten da ildo positiboa izan dela ia lan-eduki guztietan. 2016an, balantze garbia 28,9 puntu positibokoa da bulegoko jardueretan eta kategoria baxuko merkataritza-jardueretan; 30,8koa, osasunaren arloko goi-tituludunen artean, hirugarren sektoreko ekoizpenean eta bestelako zereginetan; eta 34,9koa industria-ekoizpenean. 61. grafikoa ikusten denez, kasu guztietan aurrerapen handiak egon dira 2009ko eta 2013ko egoerarekin alderatuta, eta, bereziki, industria-ekoizpenean (-2,6 puntutik 34,9 puntura) eta bulegoko jardueretan eta kategoria baxuko merkataritza-jardueretan (5,5etik 28,9ra). Gainerako lan

edukietan 16,3tik 30,8ra igo zen. Produktibitatearen igoeraren eta jaitsieraren arteko balantze garbia, ordea, okerragoa da 2004koa baino, salbu eta osasunaren arloko goi-tituludunen artean, hirugarren sektoreko ekoizpenean eta bestelako zereginetan, data horretakotik hurbil baitago (30,8 puntu positibo 2016an, eta 31,6, berriz, 2004an).

Balantze garbia 39,1 puntu positibokoa izan da 2016an, zuzendaritzan, irakaskuntzaren goi-mailako titulazioetan eta kategoría ertain eta handiko merkataritza-jardueretan (jarduera horiek izan dute datu handiena, lan-edukiei begiratuta), baina zertxobait egin du behera 2013. urtearekiko. Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar da jarduera mota horien produktibitateak hobekuntza-diferentzial handia duela oraindik ere, 2004 eta 2013 urteetako mailetatik gertu baitago (41,4 eta 43,3 puntu, hurrenez hurren).

61. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Oraindik ere diskriminazio-arazoak daude enpresetan, eta, berriro ere, gora egin du egoera gatazkatsuen eraginak, eremu pertsonalean ezkutatzeko joera ageri den arren


Eutsi egin zaio diskriminazio-pertzepzioaren murrizte-joerari, baina adierazleak 2004koak baino handiagoak dira oraindik eta ez da egoera orokorra hobetu; gainera, okertu egin da 30 urtetik beherako gizonen egoera

2013 eta 2016 bitartean, % 14,1etik % 12,7ra jaitsi da zereginen banaketan eta/edo sustapen-aukeretan diskriminazio-arazoak hautematen dituzten soldatapekoen eta antzekoen proportzioak. Aztertutako epealdian, adierazleak behera egin du diskriminazioari dagokionez, bai sustapenean (% 10etik % 8,2ra) bai zereginak banatzean (% 5,7tik % 5,3ra). Dinamika horrek denbora luzatu du 2009 eta 2013 urteen bitartean abiatutako murrizte-ildoan (datuak % 17,1, % 12,2, eta % 6,6 izan dira hiru adierazle horietan).

Datuak 2004ko balioetatik gertu dauden arren, 2016ko adierazleak urte hartako gutxieneko mailetatik gorakoak dira oraindik. Izan ere, zereginetatik eta sustapenetatik diskriminazioaren adierazle orokorra 2016. urtean % 12,7koa izan da, 2004an baino lau ehuneko-puntu handiagoa (% 9,3koa izan zen urte hartan). Hala ere, 2000. urtekoa baino txikiagoa da (% 13,5) eta 1996. urtekoak hurbil dago (% 12,3).

Sustapenean hauteman den diskriminazioari begiratuta, 2004. urtean izan zen % 6ko datua soilik da 2016koa baino txikiagoa (% 8,2). Zeregin-banaketa diskriminazioa % 5,3koa izan da 2016. urtean, 1996 eta 2004 urteen bitartean izan ziren % 5etik beherako datuetatik gora.

62. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-eduki batzuetan, sustapen-aukeren eta zereginen banaketaren ondoriozko diskriminazio-egoeren eraginak nabarmen egin du behera 2013 eta 2016 urteen bitartean. Egoera hori bereziki deigarria da zuzendaritzan, irakaskuntzaren goi-mailako titulazioetan, industria-ekoizpenaren kategoria ertain eta altuetan eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan. Esparru horietan, diskriminazioaren pertzepzioak % 8,3ra egin du behera 2016an; izan ere, % 12,6koa zen 2013an. Hori horrela, denboran luzatu da 2009. urteko % 16,7aren ondotik abiatu zen beherako joera. 2016ko datu hori 1996. urteaz geroztik izan den bigarren txikiena da, eta bitarte horretan izandako txikienetik gertu dago (% 7,5koa, 2004. urtean).


Datuaren murrizketa, ordea, askoz ere txikiagoa da merkataritzan eta industria-ekoizpenaren kategoria apaletan. Arlo horietan, 2013 eta 2016 urteen bitarteko murrizketa % 18,4tik % 17,3ra izan da, baina 2013. urtearen aurrekoak baino ehuneko handiagoak dira biak, 2009an datua % 16,3koa izan zen arren. 2016ko datu hori, gainera, nahiko urrun dago datu apalenetik, hau da, 2004. urteko % 9,8tik.

Egonkortze-joera ageri dute osasunaren arloko goi-mailako titulazioek eta bulegoen, merkataritza-jardueren eta hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria ertain eta altuek, pertsonen % 14,8k

hauteman baitu diskriminazioa 2016an eta % 14,6k hauteman zuen 2013. urtean. Bi datu horiek izan den daturik handiena baino txikiagoak dira (% 16,5koa izan zen handiena, 2009an). Egia da 2016ko datua 1996 eta 2000 urteetan izan ziren % 15etik gorakoak baino txikiagoa dela, baina daturik apalena baino nabarmen handiagoa da (% 9,6koa izan zen txikiena, 2004an).

Bulegoen sektoreko kategoria baxuek eta bestelako zereginiek izan dute bilakaera okerreana. Diskriminazio-pertzepzioaren ehunekoak nabarmen egin zuen behera 2009 eta 2013 urteen bitartean (% 21,3tik % 8,6ra), baina % 11,6ra igo da 2016. Dena den, bigarren ehuneko txikiena da 1996tik, eta 2004ko % 11,8tik gertukoa.

63. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Sexuari eta adinari begiratuta, 30 urtetik beherako gizonen artean nabarmen handitu da, 2013 eta 2016 urteen bitartean, zereginen banaketan eta/edo sustapen-aukeretan hauteman den diskriminazioa. Egoera horiei begiratuta, % 17-18 bitarteko datuak izan ziren 2000. urtean eta 2009-2013 aldian, hau da, 1996 eta 2004 aldian izan ziren % 13-14 bitarteko datuak baino handiagoak. Egoerak nabarmen egin du behera 2013. urteaz geroztik, 30 urtetik beherako gizonen % 26,5ek adierazi baitu, 2016. urtean, diskriminazio-arazoak izan dituela sustapenean edo zereginen banaketan.

Gainerako taldeen egoerak, ordea, hobera egin du; batik bat, 30 urtetik beherako emakumeen egoerak. Hautemandako diskriminazioa, talde horretan, % 21,4koa zen 2009an, eta beherako joera horren harian, ehuneko txikiena erakutsi du 2016an (% 8,7), 2004. urteko % 9,1ekoa baino txikiagoa.

Hobera egiten ari da, halaber, 30 urtetik gorako gizonen eta 45 urte eta gehiagoko emakumeen egoera ere. Hala, diskriminazioaren pertzepzioa etengabe jaitsi da, 2013ko % 16,9tik 2016ko % 11,3ra. Datu hori 2004an soilik izan zen txikiagoa (% 8,5).

Diskriminazioaren pertzepzioak behera egin du, % 17,2koa izan baitzen 2013an eta % 14koa izan baita 2016an; hala ere, hobekuntza ez da hain handia izan 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen taldean. Datu hori, 2016an, ez da izan 2009. urteko % 15,7koa baino askoz ere hobe, eta 2004. urteko % 8,2koa baino askoz ere handiagoa da. Adierazleak 2016. urtean gertu izan du 1996. urteko % 13,7ko datua, baina 1996-2004 aldian izandako batezbestekotik gorakoa da 2016ko % 14a.

64. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ezaugarri pertsonalaren ondoriozko indarkeria-, jazarpen- eta diskriminazio-arazoen pertzepzio-ehunekoak gora egin du 2013 eta 2016 urteen bitartean, baina igoera hori ez da arazo pertsonal jakinetan zehaztu. Enpresen datu orokorreari erreparatuta, zertxobait egin dute gora larderia-moduek eta diskriminazio sexualak

Enpresetan gora egiten jarraitzen du indarkeria-, jazarpen- eta diskriminazio-egoeren pertzepzio-ehunekoak: 2004 eta 2009an % 4,3-% 4,4 bitartekoa zen; 2013an, % 6,1koa; eta 2016an % 7,7koa. Arazo horien esperientzia pertsonala areagotu egin da: 2004an, % 2koa izan zen; 2009an, % 2,5koa; 2013an, % 3,3koa; eta 2016an, % 3,7koa (maximoa).


Deigarria da ikustea, ez dela gertatu, arazoen esperientzia pertsonalaren igoera horrekin batera, aztertutako arazo jakin edo espezifikoen igoerarik. Hori ikusita, pentsa daiteke arazoak LBIren beste azterlan batzuetan baino neurri nabarmen handiagoan ezkutatatu direla. Hori horrela izanda, enpresan gertatzen diren arazoak nabaritzeko informazioa aztertzen saiatu behar dugu, aztertutako pertsonak bizitako arazoak diren ala ez aintzat hartu gabe.

Ikuspegi hori hartuta, enpresetan nabaritako larderia-egoerak nabarmentzen dira 65. grafikoa ageri diren joeren artean. Larderiaren eragina gero eta handiagoa da azken urteotan: % 2,5koa izan zen 2004an; % 3,2koa 2009. urtean; % 3,7koa 2013an; eta % 4koa izan da 2016an. Mespretxu

pertsonaleko forma larrien agerpenak, berriz, behera egin du; izan ere, aztertutako pertsonen % 2,7k eman zuten horien berri 2013. urtean, eta datua % 2,2ra jaitsi da 2016an.


Eragin askoz ere murriztagoa duen arren, 2013 eta 2016 urteen bitartean gora egin du diskriminazio sexualaren arazoak. Enpresetan arazo hori ikusi izana adierazi du, 2016. urtean, soldatapekoen eta antzekoen % 1ek. 2004. urteaz geroztik izan den ehuneko handiena da (urte horren aurretik, % 0,6koa izan zen ehuneko handiena).

65. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

66. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Enpresetan indarkeria fisikoa hauteman du 2016an aztertutako pertsonen % 0,8k. Datu hori 2009 eta 2013 urteetan izandakoen antzekoa da (% 0,8-0,9), baina 2004koa baino handiagoa (% 0,6). Aztertutako pertsonen % 0,5ek baino gutxiagok aipatu du 2016. urtean bestelako arazo larri batzuk ikusi izana enpresetan.

Lan-edukietan egoera larriak aipatzen direnean, ikusten da, alde batetik, larderia-arazoak eta mespretxu pertsonaleko forma larriak direla arazo handienak. Bestetik, ikusten da osasunaren arloan goi-mailako titulazioa duten langileak direla arazo horiek gehien pairatzen dituen taldea.

Enpresetan adierazi diren egoerei begiratuz gero (ez dute, ezinbestean, norberak bizitakoak izan behar), 67. grafikoak adierazten digu osasunaren arloan goi-mailako titulazioa duten langileen % 12,6k adierazi dituela, 2016. urtean, larderia-arazoak; mespretxu pertsonal larriko arazoak % 8k, eta sexuagatiko eta adinagatiko diskriminazio-arazoak % 4k. Lanbide-arlo horretan lan egiten dutenen % 4k aipatu ditu indarkeria fisikoko problemak enpresan. Kasu gehien-gehienetan, lan-eduki horretan egoerak beherako joera nabarmena izan du 2013. urtearekin alderatuta.

Beste lan-eduki batzuei begiratuta, hirugarren sektoreko ekoizpenean kategoria ertaina eta altua duten langileen % 7,9k aipatu ditu larderia-kasuak. Ehuneko horik 2013. urteko % 1,6a baino nabarmen handiagoa da. Arazo hori aipatu dute irakaskuntzan goi-mailako titulazioa duten langileen, bulegoetan kategoria ertaina eta altua dutenen eta bestelako zereginetan aritzen direnen % 4k eta % 5,3k bitartean. Era berean, mespretxu larriko egoerak aipatu dituzte irakaskuntzan goi-mailako titulazioa dutenen eta zuzendaritzako langileen % 3,8k eta % 4,1ek bitartean.

67. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera azterketari erreparatuta, zenbait egoera diferentzial kezkarri ikusi dira 2016an. Egoeraren larria agerikoa da, berariaz, 30 urtetik beherako emakumeen artean. Talde horrek enpresaren arloan bizi duen egoerari begiratuta, % 3,3k aipatu ditu indarkeria fisikoko eta mespretxu pertsonal larriko egoerak, eta % 6,8k diskriminazio sexuarekiko arazoak.

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da larderiak eragin handiagoa duela emakumeengan, emakumeen % 4,8k adierazten baitu arazo hori enpresetan. Gizonek, berriz, % 3,1eko ehunekoan aipatzen dute arazo hori. Emakumeen talde guztiek aipatzen dute, ehuneko handiagoan, arazo horien eragina, baina emakume gazteek dituzte, berriro ere, ehuneko handienak: Gazteen % 5,8k, 30 eta 44 urte bitartekoak % 5,1ek, eta adin handieneko emakumeen % 4,4k. Gizonengan, berriz, balio handiena % 3,8koa da, 30 eta 44 urte bitarteko gizon soldatapeko eta antzekoei dagokiena.

Antolaketari buruzko beste alderdi batzuk

Udako ordutegi murriztuak garrantzia galtzen jarraitzen du

Txandaka lan egiten ez duten biztanleen artean behera egin du udako ordutegi murriztua duten pertsonen proportzioak: % 20,3koa zen 2009an, % 19,2koa 2013an eta % 15ekoa 2016an. Erreferentziazko proportzioak balio minimo bat erakutsi du. Balio horren aurretik, 2000. urtekoa zen minimoa (% 16,9).

Udako ordutegi murriztuaren ehunekoak behera egin izanaren arrazoia da lanaldi jarraitua egin ohi duen taldearen artean mota horretako lanaldia lortzeko aukerak 2009ko % 23,1etik % 9,7ra egin duela behera 2016an. Kopuru hori orain arteko txikiena da, 2004ko % 12,4a baino txikiagoa. Egoera, ordea, bestelakoa zen 2013an, % 26,6ko balio maximoa izan baitzen urte horretan. Nabarmendu den beste egoera bat da lanaldi etena egiten dutenen artean behera egin duela udako lanaldi-murrizketa eskuratu dutenen ehunekoak. Izan ere, 2016. urtean izan den ehunekoak (% 21,6) gertu ditu 2000 eta 2004 urteen bitartean izan ziren balioak (% 20-21). Hori horrela, 2009ko balioa soilik da nabarmen handiagoa (% 17,1).

Lanera joateko denbora luzatu egin da. Ibilgailu partikularren erabilera handia da oraindik, baina beheranzko joera apal bat ageri du

2013 eta 2016 bitartean eutsi egin zaio lanera joateko denbora gutxi behar dutenen ehunekoaren beheranzko joerari. Hala, 2016an, berriro ere, lantokira heltzeko gehienez 15 minutu behar dituzten pertsonen proportziorik txikiena izan da, % 51,5ekoa (2004 eta 2013 artean proportzioak % 53,1 eta % 54,9 artekoak izan ziren). Proportzio horrek agerian jartzen du jaitsiera ia-ia etengabea izan dela 1996ko % 59,9tik.

Era berean, behera egin du, 2013-2016 aldian, lanera iristeko 16 eta 30 minutu bitartean behar duten pertsonen ehunekoak. Proportzioa, 2016. urtean, % 32,3koa izan da, 2004-2013 aldikoak baino txikiagoa (% 33,6 eta % 34,3 bitartekoak) eta 2000ko datutik gertukoa (% 31,8).

Beheranzko joera ikusten da, halaber, lanera 31 eta 59 minutu bitartean behar dituztenen artean. Hala ere, 2016ko datuak (% 8,4) balio kualitatiboa duela nabarmendu behar da, eta ez hainbeste

kuantitatiboa, goranzko joera baten ondorengo beherakada baita (balioa % 5,9koa izan zen 1996an eta % 9koa 2013an).


Edonola ere, 60 minutu edo gehiagoko desplazamenduak egiten dituzten soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak soilik egin du gora 2013 eta 2016 urteen bitartean. Pertsona-talde horren % 3,1 eta % 4,3 bitartean izan da egoera horretan 2013 urtera arte, eta 2016an, berriz, soldatapekoen eta antzekoen % 7,9ra igo da, 1996. urteaz geroztiko ehuneko handienera.

Oro har begiratuta, hau da datu azpimarragarriena: gora egiten jarraitzen du lanera joateko 30 minutu baino gehiago behar dituzten langileen ehunekoak. Proportzio hori 1996an % 9,8 zen, eta 2004an % 12raino heldu zen. Erreferentziako proportzioak 2009an behera egin zuen % 10,8raino, ondoren gora egin zuen 2013an, % 13,3ra, eta gehienekoa jo du 2016an, % 16,3. Kopuru absolututan, 55.498 langile zeuden 1996an egoera horretan, 2013an lehenengo aldiz gainditu da 100.000 pertsonaren atalasea, eta 1996az geroztiko maximoa izan da 2016an: 128.728 pertsona.

Hau erakusten du 68. grafikoak lanerako joan-etorrien bilakaeraz: ibilgailua erabiltzeko joerak berriro egin du behera 2013 eta 2016 urteen bitartean, ildo hori bera nabarmendu baitzen 2004 eta 2009 urteen bitartean. Lanera joateko ibilgailua erabiltzen duten soldatapekoen eta antzekoen proportzioak % 52,6tik % 57,6ra egin zuen gora, eta % 55,6ra jaitsi zen 2009an. 2016. urtean izan zen % 54,4ak denboran luzatu du beherazko joera hori, 2013an % 57,1era igo ondoren.

Horrekin batera, gora egin du lanera oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiliz joaten diren pertsonen ehunekoak, aztertutako pertsonen % 46,6k erabili baititu garraiobide horiek. Proportzio hori 1996an izan zen % 44,9kotik urrun eta 2000. urteko % 42,8koa baino txikiagoa baldin bada ere, 2004. urteaz geroztiko handiena da. Ezin da esan, hala ere, goitik beherako aldaketa bat gertatu denik lanera joateko moduetan, datuek jarraitasuna adierazi baitute denboran.

68. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Zertxobait murriztu da lana eta bizitza sozial eta familiarra bateratzeko aukera; hala ere, aztertutako pertsonen gehiengoak ondo konpontzen du arazo hori

Azken urteetan lanaren antolaketan izan diren aldaketen ondorioz, lana eta familia-bizitza uztartzeko aukerak okertu egin direla hautematen da. Aurreko urteetan, lana eta bizitza pertsonaleko alderdiak nekez uztartzen dituztela dioten langileen proportzioak behera egin zuen pixka bat 2004ko % 17,4tik 2009ko % 16,7ra eta 2013ko % 16,4ra. Ehunekoak % 20,7ra egin du gora 2016an. Proportzio hori 2004. urteaz geroztiko handiena da.

Horrekin batera, nabarmen egin du behera alderdiok oso ondo uztartzen edo bateratzen dituztela dioten ehunekoak. Izan ere, proportzioa % 14koa izan zen 2004an, % 23,7koa 2009an eta % 24,6koa 2013an, baina % 19,3ra jaitsi da 2016an. Proportzio hori 2004an soilik izan da azken hori baino txikiagoa. Hala ere, beherakada horren arrazoietakoa bat da 2013 eta 2016 urteen bitartean % 57,8tik % 59,2ra egin duela behera ondo uztartzen edo bateratzen dutenen ehunekoak.

69. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Egoera hori aztertzeko, funtsezkoa da lan-educien arabera eta sexuaren eta adinaren arabera ikusten diren joerei erreparatzea.

Uztartze-egoera nekezak edo oso nekezak bizitzen dituztenei begiratuta, deigarria da ikustea arazo horiek gora egin dutela lan-eduki gehienetan. Hori horrela, 2004. urteaz geroztiko maximoak izan dira bulegoko eta merkataritza-jardueretako kategorian baxuetan eta bestelako zereginetan, % 26,2k egiten baitu uztartze nekeza edo oso nekeza. Proportzioak nabarmen egin du gora 2004-2013 aldian izan ziren % 19,1 eta % 21 bitarteko ehunekoekin alderatuta.

Ildo horri berari jarraituta, erreferentziazko proportzioa, 2004 eta 2009 urteen bitartean, % 19,7tik % 16,1ra jaitsi zen honako jardura hauetan: zuzendaritzan, osasun-arloko goi-mailako titulazioetan, eta merkataritza-arloaren eta industria-ekoizpenaren kategorია ertain eta altuetan. Gerora, % 18,6ra igo da 2013an, eta % 23,8ra 2016an. Antzekoa da irakaskuntzako goi-mailako titulazioen eta bulegoetako kategorία ertain eta altuen egoera, uztartze-arazoak zituztenen ehunekoak % 12,2tik % 10,2ra jaitsi baitzen 2004tik 2013ra, baina % 15,6ra igo da 2016an.

Aitzitik, beherazko ildoari jarraitu diote hirugarren sektoreko ekoizpen jarduerak, 2016. urtean % 15,2k esan baitu uztartze nekeza edo oso nekeza egiten duela, eta proportzio hori % 18,3koa zen 2004an. Egoera bestelakoa da industria-ekoizpenaren kategorία baxuetan, 2016ko % 17,1ak gorazko joera argia adierazten baitu, 2004. urteko % 12,5arekin alderatuta.

70. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 urteen bitartean, uztartze-arazoek oro har gora egin dutela adierazten dute sexuaren eta adinaren arabera datuek. Gazteen ehunekoak izan dituzte igoera handienak; zehazki, 30 urtetik beherako gizonen eta emakumeen ehunekoak. Igoera, 2013 eta 2016 urteen bitartean, oso handia izan da gizonen taldean, % 11,9tik % 20,8ra bitartekoa, eta 30 urtetik beherako emakumeen taldean, berriz, % 14,4tik % 21,7ra bitartekoa. Talde batean zein bestean, datuek hobera egin zuten 2009 eta 2013 urteen bitartean, baina uztartze-egoera nekezen eta oso nekezen ehuneko erlatiboak maximoak izan dituzte 2016an. Ehuneko horiek, oro har, hiru eta bost puntu bitartean handitu dira 2004 eta 2009 urteetatik.

Neurri apalagoan baldin bada ere, egoera okertu egin da 30 urtetik gorako gizonen eta 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen taldeetan. Oro har, datuak % 17,4ko eta % 19,3ko ehunekoak bitartean egonkortu dira 2004 eta 2013 urteen bitartean, baina bi talde horiek % 22ra gerturatu dira 2016. urtean.

45 urtetik gorako emakumeen taldean, ehunekoen goranzko joera agerikoa zen 2013. urtean bertan. Hori horrela, uztartze-egoera nekezen eta oso nekezen ehunekoa % 12 ingurukoa izan zen 2004 eta 2009 urteen bitartean, eta % 13,6ra igo zen 2013. Egoera okertu egin da 2016an, proportzioa % 16,3koa izan baita; hala ere, uztartze-egoera nekezen ehunekoa nabarmen handiagoa da beste talde batzuetan.

71. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

4. EKIPAMENDUEN ERABILERA, LANEKO GIROA ETA ARRISKUAK


Jarraitu egin du bulegoko lanabes informatikoen erabileraren aurrerapauso handiak

Bulegoko lanabes informatikoen ohiko erabileran izan den aurrerapauso nabarmena denboran luzatu da 2013 eta 2016 urteen bitartean. Gorako joera etengabea izan da 1996. urteko % 26,8az geroztik; izan ere, % 45,8koa izan zen 2009an eta % 52,6koa 2013an (urte horretan gainditu zen lehen aldiz % 50eko langa). Proportzioa, berriz, % 61,6ra iritsi da 2016an.

Igoera hori lan-eduki guztietan gertatu da 2013 eta 2016 urteen bitartean, baita informatizazioa ia erabatekoa zen arloetan ere, hala nola zuzendaritza eta kategoria ertainak eta altuak (ekoizpenaren arloan izan ezik). Proportzioa % 65,9tik % 87ra igo zen 1996 eta 2009 urteen bitartean, baina 2013. urtean % 83,6ra jaitsi zen lan-jarduera horiek egiten dituen taldean. Ehunekoa % 91,1era igo da 2016an, proportzio handiena 1996. urteaz geroztik.

Prozesu horren beste mugarri bat izan da lanabes informatikoen erabileran % 50 langa gainditu duela merkataritza-arloko kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan, % 50,4ko datua izan baitu 2016an. Ekoizpenaren kategoria ertain eta altuetan, langa horretara hurbiltzen ari da proportzioa, % 49,1ekoa izan baita 2016an. Lanabes informatikoen erabilera ohikoak 2013 eta 2016 urteen bitartean gora egin duen arren, ekoizpenaren, industriaren eta hirugarren sektorearen kategoria baxuak urrun daude proportzio horietatik, soldatuko eta antzeko % 19,8k soilik baliatzen baititu lan-bitarteko horiek.


72. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanabes informatikoen erabilerarekin bat, posta elektronikoaren eta Interneten ohiko erabilerak ere gora egiten jarraitzen du. Lehenengo kasuan, ohiko erabilera % 49,8ra heldu da 2016an. Proportzio hori % 50,3koa da Interneten ohiko erabilerari dagokionez.

73. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Moteldu egin da garraio-ibilgailuen erabileraren igoera


Moteldu egin da garraio-ibilgailuen erabileraren igoera-erritmoa

Soldatapekoek eta antzekoek lanean garraio-ibilgailuak zer ehunekotan erabiltzen dituzten begiratuta, proportzioak gora egin zuen 2000ko % 9,2tik 2009ko % 11,5era. 2013an proportzio hori % 15,1era heldu zen, 3,7 puntuko igoerarekin. Hori ia-ia 2000 eta 2009 bitartean izandako igoeraren bikoitza da. Igotzeko joerari eutsi zaio 2013 eta 2016 urteen bitartean, baina igoera apalagoa izan da, % 16,9ko proportzioa izan baitu 2016an.

Gorakada horren moteltzeak zerikusia du zuzendaritzaren, osasunaren arloko goi-mailako titulazioen, bulegoko eta ekoizpeneko kategoria altu eta ertainen eta bestelako zereginen esparruetan egondako igoerarekin. Edukien talde horretan, ibilgailuen erabileraren proportzioak gora egin zuen % 10,4tik % 20,1era 2009 eta 2013 bitartean. Proportzioak, 2013tik aurrera, igoera-erritmo apalagoa izan du, eta % 22,4ko datua izan du 2016an.

Gainerako lan-edukietan, erabilerak egonkor samar eutsi zion 2009 eta 2013 artean, goranzko joera txiki batekin (2013an % 10,7, eta 2000an, berriz, % 8,3). Oraindik apala den arren, igoera zertxobait handiagoa izan da 2013 eta 2016 urteen bitartean, % 11,7ko proportzioa izan baita 2016an.

74. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ekipamendu eta ibilgailu automotorren erabilerrari dagokionez, horien ohiko erabilera % 3,1 eta % 3,9 bitartean mantendu zen 1996 eta 2009 bitartean, baina orokorrean goranzko joeran, eta 2013an erabilera handitu egin zen, % 8,1era heldu baitzen, 4,2 puntuko igoerarekin. Goranzko joera hori eutsi zaio 2016an, eta % 10,2ko proportziara iritsi da. Gorakada horrek ekoizpen-jarduerekin du zerikusia, industriaren arlokoarekin batez ere, bai eta bestelako zereginarekin ere.

Murritz egin da ibilgailuen erabilerarekin lotuta kalean egiten den lana


2013 eta 2016 urteen bitartean behera egin du beren lan guztia edo zati bat kalean egiten duten soldatapekoen proportzioak. Proportzioa % 23koa izan zen 1996an, eta % 20,3ra jaitsi zen 2004an. Gerora, % 22,5era igo zen 2009an, eta % 22,1ekoa izan zen 2013an. Proportzioa % 20,8koa izan da 2016an, eta berriro itzuli da 2000 eta 2004 urteen bitarteko % 20,3-% 20,5 inguruko datuetara. Horrekin batera, % 13,9tik % 12,6ra murritz egin da kalean ibilgailu itxien erabilera eskatzen duten lan-formen eragina; hala ere, 1996. urteaz geroztiko bigarren datu handiena izaten jarraitzen du.

2013 eta 2016 bitartean, kaleko lanaren murrizketa orokorra izan da ia jardura guztietan. Bulegoko jarduerena izan da salbuespen bakarretako bat, 2016. urtean % 9,8ko proportzioa izan baitu, 2013an izan zuen % 9,9ko ehunekotik oso gertu. Kaleko lan gutxi egiten da, hala ere, jardura-esparru horretan.

Bestalde, deigarria da, gainerako lan-edukien kontrako joera erakutsi duelako, kaleko lanaren ehunekoak gora egin duela osasunaren sektorean goi-mailako titulazioa dutenen taldean. Jardura-arlo

horretan, % 11-% 12 bitarteko proportzioak izan ditu kaleko lanak 2004 eta 2013 bitartean, baina % 18,9ra igo da 2016an. Ehuneko handiena da 1996. urteko % 12,6ko datuaz geroztik.

75. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Egonkortu egin dira, oro har, lanaren baldintza fisikoak, baina alderdi jakin batzuk hobetu egin dira, eta beste batzuk okertu

Hobera egiten jarraitzen dute lan-eragozpenen gaineko adierazle batzuek, baina batzuk egonkortu edo okertu egin dira

2013 eta 2016 urteen bitartean, lanaren eragozpen fisikoen gaineko adierazle batzuek hobera egin dute soldatapekoen edo antzekoen taldean. Argiztapen eskasaren eragozpenak izan du eragin-murrizketarik deigarriena. Adierazle horren datua % 9,1ra igo zen 2009an, % 8,2ra jaitsi zen 2013an, eta % 6,2ra jaitsi da 2016. Azken datu hori 1996. urteaz geroztik izan den apalena da.

Hobekuntza-ildoak finkatu egin da instalazio sanitario txarren adierazlean ere. Adierazlea % 11tik apur bat gorakoa izan zen 1996an eta 2000n. Ordutik aurrera arazo horien eraginak apurka behera egin zuen, eta 2013an % 6,4koa izan zen, eta 2016an, berriz, % 4,9koa, gutxieneko maila, hain zuzen ere.

Aire-korronteen presentziaren aldagaiari begiratuta, datuak okerrera egin zuen 2009-2013 aldian, soldatapekoen eta antzekoen taldean proportzioa % 25,4koa izan baitzen 2009. urtean, eta % 27,8koa


2013an. Egoerak hobera egin du 2013-2016 aldian, proportzioa % 25,3koa izan baita, 2009koaren antzekoa eta 1996 eta 2000 urteetan izan ziren % 33,5koa eta % 34,1koa baino nabarmen apalagoa.

Aldagai horietan egoerak hobera egin badu ere, okertu egin da hezetasunaren presentziak denboran izan duen joera ona. 1996an eta 2000n % 19 baino apur bat gorago egon ondoren, eta 2004ko % 17,4ra arte ehuneko 2 puntu baino gutxiagoko jaitsiera izan ondoren, hortik aurrera beherakadak erritmo biziagoa izan zuen, eta 2013an, % 12,5eko balioa izan zen. Hala ere, adierazlea % 12,4ko ehunekoan egonkortu da 2016an.

Kanpoko bistarik ez izatearen aldagaiak ere egonkortzeko joera ageri du 2016an, baina, kasu honetan, zertxobait gora eginda. Izan ere, 2016an izan den % 21,6ko datuak gaintitu egiten ditu 2009 eta 2013 urteen bitartean izan diren % 21aren inguruko datuak. Adierazle hori, dena den, 1996 eta 2004 urteetan izan ziren % 26 eta % 26,8 bitarteko datuak baino nabarmen apalagoa da.

Zikintasunaren presentziak izan du bilakaera okerreana. Adierazle horrek beheranzko joera argia zuen 1996. urteaz geroztik. 1996 eta 2009 bitartean, soldatapekoen eta antzekoen biztanleria % 27,2tik % 18,3ra jaitsi zen; 2009 eta 2013 bitartean beherakada areagotu egin zen, eta 2013an gutxieneko kopurua izan zuen, % 13,2. Arazo horren eraginpeko pertsonen proportzioa handitu egin da 2016. urtean soldatapekoen eta antzekoen taldean, eta 2009ko mailara itzuli da, % 18,5eko datua eman baitu.

76. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Aldaketak izan dira, era berean, lan-karga batzuen eraginean, deigarria izan baita horietan batzuen igoera, hala nola informazio asko gorde behar izatea aldi berean, ikusmena behartzeko beharritza edo jarrera astun edo nekagarria lan egitea

Lan-kargen eraginari erreparatuta ere, egoera asko (egonkortzekoak, okertzekoak edo hobetzekoak) ikusten dira.

Karga-fisikoetatik hasita, eta hobetzera egin duten adierazleei begiratuta, esan behar da 2013 eta 2016 bitarteko aldian eutsi egin zaiola, zertxobait apalago baldin bada ere, luzaroan zutik egon behar duten pertsonen proportzioaren beheranzko joerari; izan ere, 2016an % 52,4 izan dira (minimoa), eta zertxobait gutxiago izan ziren 2013an (% 53,4). Lan-karga hori da, hala ere, soldatapekoen eta antzekoen taldean eragin handiena izan duena 2016an.

Era berean, 2013 eta 2016 urteen bitartean, behera egin du oinez desplazamendu luzeak edo oinez desplazamendu asko egin behar dituztenen proportzioak. Adierazle horrek dinamika negatibo apal bat izan zuen 2004 eta 2013 bitartean. Adierazleak % 24,7tik % 22,4ra egin zuen behera 1996 eta 2004 urteen bitartean, eta, geroztik, gora egin du, harik eta % 25,2ra iritsi arte 2013. urtean (maximoa 1996. urteaz geroztik). Proportzioa % 24,2ra jaitsi da 2016an, baina urrun dago oraindik 2000 eta 2009 bitarteko datuetatik (% 22,4 eta % 23,3 bitartekoak).

Hobekuntza moderatuko ildo hori bera ikusten da karga astunak eramaten edo desplazatzen dituztenen proportzioari begiratuta. Proportzio hori % 24,1etik % 22,7ra jaitsi da 2013. eta 2016. urteen bitartean. 1996 urteaz geroztik izan den ehuneko txikiena den arren, ez da askorik aldentzen 1996 eta 2013 urteen bitartean izan ziren % 23,6 eta % 24,5 bitarteko zifretatik (2000. urteko % 25,4a izan zen salbuespen bakarra).


Bestalde, egonkortu egin da bestelako esfortzu fisiko handiak egiten dituztenen proportzioa. Izan ere, 2016ko adierazlearen balioa % 24,5 izan da, 2013koaren ia-ia berdina (% 24,6). Datua 2009. urtean izan zen % 28,4koa baino apalagoa den arren, datu-bitarte nagusian (% 23,1 eta % 25,8 bitartekoa 1996. urteaz geroztik) kokatzen da, 2009ko salbuespen bakar horrekin.

Okertzeko ildoari begiratuta, bibrazioen edo astinaldien eraginak zertxobait egin du okerrera, % 7,6tik % 8,1era igo baita 2013. urtetik 2016. urtera. Aldagai horrek % 8,6tik % 6,2ra egin zuen behera 1996 eta 2004 urteen bitartean, eta azken urte horretatik aurrera, goranzko joera apal bat gailendu da, harik eta egungo % 8,1era iritsi arte (2009 eta 2013 urteen bitartean izan zen salbuespen bakarra, % 7,9tik % 7,6ra jaitsi baitzen).

Okertzeko joera askoz ere deigarriagoa da luzaroan jarrera astun edo nekagarria egotea eskatzen duten egoeren aldagaian. Aldagai horren balioa % 38,4koa izan zen 2013an, (ordura arte, 2004ko % 37,8a soilik izan zen hura baino txikiagoa), eta % 47koa izan da 2016an. Aldagaiaren balio handienetakoa izan da 2016ko hori, 1996an izan zuen % 45,4ko balioaren ostean. Bi balio soilik izan dira handiagoak: 2009. urteko % 47,8a eta 2000. urteko % 49,6a.

Jantzien erabilerari begiratuta, ohikoak ez diren jantziak daramatza % 50,8k, 2004. urteko balio minimotik gertu (% 50,6koa izan zen urte hartan).

77. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Zentzumenen arloko kargei dagokienez, 2016an hobekuntza izan da normal hitz egitea eragozten duten zaratei aurre egiten dieten soldatapekoen eta antzekoen proportzioari dagokionez. Datua inoizko txikiena izan da (% 18,2), eta luzatu egin du 1996ko % 30,8az geroztiko beherakada. 2013-2016 aldian izandako beherakada, gainera, bi ehuneko-puntukoa izan da (aldagaiaren balioa % 20,2koa izan zen 2013an), eta 2004. urteaz geroztiko hobekuntza handiena izan da.

Kontrako bilakaera izan du ikusmena behartu beharraren aldagaiak, nabarmen okertu baita egoera. Pertsonen % 38k esan du 2016an ikusmena behartu beharrean izaten dela lanean aritzean. Proportzio horrek nabarmen gaintitzen ditu 2013ko datua (% 30,4) eta 2004ko balio minimoa (% 27). Halaber, 2016ko datu hori 1996 eta 2000 urteetako % 37,4koa eta % 35,6koa baino handiagoa da. 2009. urteko % 40,5a soilik da zertxobait handiagoa.


Joera hori ordenagailuaren pantailara etengabe begiratzeko premia dakarten egoerei lotzen zaie. Proportzioa % 37,6tik % 34,7ra jaitsi zen 2009 eta 2013 bitartean, baina % 38,6ra arte igo da 2016an (2000-2016 aldiko daturik handiena da, eta 2000 eta 2004 urteetako % 25,6koa baino askoz ere handiagoa).

Dimentsio psikiko edo psikologikoan, murriztu egin dira etengabeko kontzentrazio edo zaintza espezifikoaren kargak. Aldagai horretan, balioak nabarmen egin zuen behera 1996. urteko % 54,4tik 2004. urteko % 38,8ra, baina asko igo zen 2009an (% 51,4ra). Gerora, 2013. urtean, % 50,5eko balioa izan du. Behera egin du berriro 2016an, % 42ra jaitsita, eta 2004ko minimoa soilik du azpian (% 38,8).

Mugimendu-segida behin eta berriz errepikatzeko jarduerak ere behera egin dute. Izan ere, 2009ko maximoaren ondoren (% 38), adierazlearen balioa % 32,1era jaitsi zen 2013an, eta % 28,5era jaitsi da 2016n. Proportzio hori 1996ko minimotik gertu dago (% 27,8).

Handitu egin da, ordea, buruan informazio asko gorde beharrean dauden pertsonen proportzioa. Karga-eragina % 47,2koa zen 2009an eta % 46,5era murriztu zen 2013an; hala ere, ehuneko horiek 1996-2004 aldikoak baino nabarmen handiagoak ziren, aldi horretako maximoa % 42,6koa izan baitzen, 2000. urtean. Adierazlea beste maximo batera iritsi da 2016an (% 49,2). Balio hori 2004ko minimoa baino hamar puntu handiagoa da (% 38,7).

78. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Arrisku batzuen eragina egonkortu edo murriztu egin da, baina, oro har, goranzko joera izan dute arriskuek; batik bat, toxikoak, hautsa edo kea arnasteko arriskuak, zauriak eta istripuak izateko arriskuak eta jendearekin tentsioak izatea

Lan-arriskuen alorrean, hobekuntza batzuk izan dira 2013-2016 aldian, baina baita ageriko atzerakadak ere, okertu egin baitira lan-baldintza batzuk.

Substantzia edo agente arriskutsuekiko kontaktuak aztertzen hasita, nabarmen hobetu dira infekzio-arriskuaren eta lehergailuekin kontaktuan izatearen adierazleak.

Lehen adierazleak eutsi egin dio 2009. urteaz geroztik izan duen beherazko joerari. Infekzio-arriskuaren eragina soldatapekoengan % 15,1koa izan zen 2009an, % 14koa 2013an, eta % 11,7koa izan da 2016an. Balio hori 2000. urtean izandakoaren antzekoa da, eta gutxigatik gainditzen du 2004an izan zen % 11,4a.

Hobekuntza handia izan da, era berean, lehergailuak maneiatzeko edo horiekin kontaktuak izateko aldagaian. Aldagai horrek balio minimoa eman zuen 2004an (% 2,1), eta, gerora, gora egin du, harik eta maximora iritsi arte 2013. urtean (% 4,5). Proportzioak, 2016an, nabarmen egin du behera (% 2,4), eta, gaur egun, 2009. urteko mailan dago, 2004ko minimotik gertu.


Antzeko bilakaera izan du erradiazioaren eraginak, 2004an eman baitzuen balio minimoa (% 2,7) eta, pixkanaka gora egin ondoren, 2013an balio maximoa izan zuen (% 3,5). Adierazle hori % 3,5 horretan egonkortu da 2016an. Aldeak, ordea, txikiak dira 2004. urteko minimoarekin alderatuta.

Arrisku horiek beheranzko joera nabarmena adierazi dute epe luzeko prozesu batean, eta balio minimoak adierazi zituzten 2013. urtean, baina 2016ko balioek nabarmen handitu dituzte produktu toxikoak, hautsa edo kea arnasteko arriskuak. Arriskua ez da modu deigarrian handitu kea arnasteko arriskuaren aldagaian (% 11,7etik % 12,9ra igo da 2013 eta 2016 urteen bitartean, eta 2009ra bitartean izandako balioetatik behera dago oraindik) eta produktu toxikoak arnasteko arriskuaren aldagaian (% 14,4tik % 15,5era igo da, baina 2004 eta 2009 urteetako balioen inguruan dago oraindik, eta 1996 eta 2000 urteetako balioak baino askoz ere txikiagoa da).

Hautsa arnasteko arriskuaren aldagaia 2009. urteko baliotik azpitik dago, baina aurrekoek baino igoera kuantitatibo handiagoa izan du, aztertutako taldean % 17,3tik % 20,4ra igo baita 2013 eta 2016 urteen bitartean.

Toxikoak maneiatzeko edo horiekin kontaktuan (arnastu gabe) izateko aldagaiaren balioa % 15,9koa izan da 2016an, eta egonkortu egin da, ondorioz, 2013an izan zen % 15,8ko balioa. 2004an lortu zen maila minimoa (% 12,7); 2016ko proportzioa, ordea, maximoa da 1996az geroztik.

79. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Zauriak eta istripuak izateko arriskuaren aldagaiak oso dinamika negatiboa izan du 2013-2016 aldian, igoera ia orokorrak izan baititu.

Aldagai jakin batzuetan, luzatu egin da aurreko urteetan izan duten okertze-joera. Hori da, esaterako, zirkulazio-istripuak izateko arriskuaren egoera. Arrisku horren eragina etengabe ari da gora egiten soldatapekoen eta antzekoen taldean; izan ere, % 16,6koa izan zen 1996an, eta % 29,8ra igo zen 2013an. Gainera, asko egin du gora azken hirurtekoan, eta % 37,7ko balioa izan du 2016an. Arrisku-modalitateei begiratuta, epe luzean 1996az geroztik eta luzaroan gora egiteko joerarik nabarmena izan duena da.

Okertzeko joera hori oso deigarria da, era berean, materialen edo objektuen erorketen arriskuan eta goietatik erorikoa izatearen arriskuan. Bi arrisku horietan, 2000-2009 aldikoak baino arrisku-maila handiagoak izan dira 2016an. Aldagaien balioak 1996koak baino txikiagoak izan ziren 2013an, baina aurreko balio guztiak gainditu dituzte 2016an. Hori horrela, 2013 eta 2016 urteen bitartean, materialen eta objektuen erorketa-arriskuak % 16,6tik % 19,6ra igo da, eta gainditu egin du aurreko maximoa, 1996. urteko % 17,9a. Horren balio handira iritsi ez baldin bada ere, goietatik erortzeko arriskua %17koa izan da 2016an, eta asko igo da 2013. urteko %13,3arekiko, eta baita aurreko maximoarekiko ere (1996ko %14a).

Hori bera gertatu da erredura-arriskuarekin, etengabe igo baita 2009. urteaz geroztik. Urte horretan arriskua % 14,2koa izan zen, eta % 16,4ra igo zen 2013an. Ondoren, % 17,6ra igo da 2016an, eta balio horrek ere gainditu egin du aurreko maximoa (% 17,4koa izan zen, 1996an).

80. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Beste aldagai batzuetan, deigarriagoa da 80. grafikoak adierazten duen okertze-joera, eten egiten duelako 1996 eta 2013 urteen bitartean eta, oro har, positiboa izan den bilakaera-ildo. Erremintek edo materialek eragindako zaurien aldagaiak, esaterako, % 29-29,5 inguruko balioak izan zituen 1996 eta

2009 urteen bitartean, % 28,2ra igaro zen 2013an, baina balio maximo bat (% 31,8) izan du 2016an, aurreko dinamika etenda.


Deigarria izan da aldaketa, era berean, makinek eragindako zaurien aldagaian. Aldagai horrek balio minimoa adierazi zuen 2013. urtean (% 20,7), atzean utzita 2004. urteko balioa (% 22,4) eta 1996, 2000 eta 2009 urteen balio-bitartekoa (% 23,2-% 23,7). Adierazle horrek, ordea, beste maximo bat ezarri du 2016an (% 24,3).

Arrisku mota horretan, deskarga elektrikoen arriskuak soilik izan du onerako bilakaera. Deskarga elektrikoen aldagaian, soldatapekoen arrisku-ehunekoa % 9,1ekoa izan zen 2013an, eta % 8,4ra jaitsi da 2016an. Balio hori 2000 urteko balio minimotik gertu dago (% 8,1).

Jendearekiko tentsioena da, 81. grafikoan ikus daitekeen moduan, 2013 eta 2016 urteen bitartean nabarmen okerrera egin duen beste aldagai bat. Kasu horretan, 2013an eraginpean zeuden soldatapekoen % 20,7 apur bat txikiagoa zen 2000ko % 22,3 eta 2009ko % 21 baino. Aldiz, adierazlea argi eta garbi handiagoa zen 1996ko % 18,8 nahiz 2004an erregistratutako gutxienekoa –% 17,2– baino. Hori horrela, 2016. urteko % 26,7ak adierazten du asko handitu dela arrisku mota horren eraginpean dagoen soldatapekoen taldea.

Egoera horren ifrentzuan, joeraz aldatu du 2013. urtera bitartean igoera handienetako bat izan duen arrisku batek, akatsengatik zigorra jasotzeko aukerak, hain zuzen. Kasu horretan, arriskuan zeuden soldatapekoen proportzioa 1996an % 18,4 zen, eta, ondoren, % 16tik apur bat goragoko kopuruetara behera egin zuen 2000n zein 2004an. Urte horretatik aurrera, hala ere, adierazleak berriro ere gora egin zuen. 2009an % 21,8ra, eta 2103an gehienekora, % 27,2ra. Adierazlearen balioa 2004. urtera bitartean izandakoak baino handiagoa izan da 2016an (% 20,1), baina asko hobetu da 2013.urteko datua, eta 2009. urtekoa baino txikiagoa da.

81. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Beti temperatura egokian lan egiten duten pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du

2013 eta 2016 bitartean % 66,3tik % 73,7ra gora egin du beti lan egiteko temperatura egokia dutela diotenaren proportzioak. Proportzio horrek gainditu egin du erregistrorik handiena, 2004ko % 68,1a, alegia.

82. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Igoera txiki bat izan du eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginak 2009 eta 2013 urteen bitartean (ez, ordea, kolektibo guztietan)

Eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginaren baterako balorazioak okerrera egin du 2013 eta 2016 artean. Gutxienez esparru arazotsu horietako biren metaketa duten soldatapeko eta antzekoen kopuruak gora egin du epealdi horretan. Oro har, arazoak dakartzaten bi arrisku edo gehiagoren eraginpean dauden pertsonen proportzioa % 40,5ekoa izan zen 2013an, eta % 43,1ekoa izan da 2016an. Azken balio hori 2009. urteko baliotik gertu dago (% 43,8), eta 2000. urtean ezarri zen balio maximotik bakarrik urruntzen da (% 46,2). Era berean, urrun ditu 1996, 2004 eta 2013 urteen bitartean izan ziren % 40 eta % 40,6 bitarteko balioak.

Lan-edukiak aztertuta, produkzioaren kategorია baxuen eta bestelako zereginen esparruek izan dute bilakaera okerrera 2013 eta 2016 urteen bitartean. Esparru horietan, eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginak gora egin du, % 52,9koa izan baitzen 2013an, eta % 60,7koa izan baita 2016an. Azken balio hori, hala ere, 2000 eta 2009 urteen bitartean izandako % 62,7-% 63,4 bitartekoak baino txikiagoa da.

Aztertutako eragina hain handia ez baldin bada ere, 1996. urteaz geroztiko balio handienetara iritsi da merkataritza-jarduerak eta bulegoko lanak egiten dituztenen kategorία baxuetan eta osasunaren eta irakaskuntzaren arloetan goi-mailako titulazioak dituztenen taldeetan.

Merkataritza-jarduerak eta bulegoko lanak egiten dituztenen kategorία baxuetan, etengabe egin du gora 2004. urteaz geroztik bi eragozpen, karga edo arriskuren presentziak; izan ere, presentzia hori

% 18,5koa zen urte horretan, eta % 31,3koa izan da 2016an, ia bost ehuneko-puntu igota 2013ko % 26,5eko baliotik.


Gorazko joera hori, 2009. urteaz geroztik are deigarriagoa da osasun-arloan goi-mailako tituluak dituztenen taldean. Talde horretan, soldatapekoengan eta antzekoengan izandako eragina % 39,2koa izan da 2009an, % 44,9koa 2013an eta % 49,7 2016an. Balio horrek gainditu egiten du 2004ko % 49a, 1996-2013 aldiko maximoa.

2013 eta 2016 urteen bitartean, okerrera egin du, era berean, irakaskuntzan goi-mailako tituluak dituztenen egoerak. Egoera egonkorra izan zuten 1996 eta 2013 urteen bitartean, % 12,2ko eta % 14,3ko balioen bitartean izan baitziren, baina bi eragozpen, karga edo arrisku edo gehiago dutenen ehunekoa, 2016. urtean, % 20,3ra igo da bat-batean.

Aitzitik, aztertutako egoeren eragina, oro har, oso handia den arren, beherazko joerak ikusi dira industriako eta hirugarren sektoreko ekoizpen-jarduerak egiten dituztenen kategorია ertain eta altuetan. Eragindako pertsonen ehuneko maximoa ezarri zen 2009an (% 82,5), baina proportzioa % 67,3ra jaitsi da 2016an. 1996ko % 64,9a soilik da txikiagoa.

Bilakaerarik onena zuzendaritzako jarduerena eta bulegoko kategorία ertain eta altuena da. Jardueren talde horrek 2016an izan duen % 16ko proportzioa 1996. urteaz geroztik izan den txikiena da.

83. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera azterketa eginez gero, ikusten da 2013 eta 2016 urteen bitartean eutsi egin zaiola 30 urtetik beherako gizonengan aztertu diren eragozpen, karga eta arriskuen beherazko joerari, 2009 eta 2013 bitartean baino joera apalagoa izan den arren. 2013. urtean lortu zen


1996. urtearen osteko lehen balio minimoa (% 50,9), eta balioak berriro egin du behera 2016an; izan ere, % 48,5eko baliora iritsi da, eta lehen aldiz jaitsi da % 50eko langatik.

Eraginpeko pertsonen proportzioaren beheranzko joera apal bat egonkortu da 30 eta 44 urte bitarteko gizonen taldean. Balioa % 57,5ekoa izan zen 2013an, eta % 56,7koa izan da 2016an. Balio hori 2009ko % 56,4tik gertu dago, baina goranzko joera batetik zetorren, % 49,7koa izan baitzen 1996an.

Gizonezkoen taldean, 45 urtetik gorakoen egoera okertu da gehien 2013 eta 2016 urteen bitartean. Adierazlea baliorik txikienera iritsi zen 2013an (% 46,5), eta gora egin du 2016an (% 52,7). Azken datu hori oso gertu dago 2009ko baliotik (% 53,1), eta 2000. urtekoa bakarrik da hura baino askoz ere handiagoa (% 60,7).

2013 eta 2016 urteen bitartean, bi eragozpen, karga, arrisku edo gehiago izandakoen proportzioak gora egin du emakumeen taldean ere. 2009 eta 2013 urteen bitartean %29,7tik % 27,9ra behera egin ondoren, adierazlea % 32,3ra iritsi da 2016an, 1996. urteaz geroztiko mailarik handienera. Hala ere, gizonen taldeek dituztenak baino balio nabarmen txikiagoak dira.

84. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Igoera txiki bat izan du babes-ekipamenduen erabilerak, baina ez horien erabilera behar duten esparru guztietan

Eragozpen, karga eta arriskuen presentzia ezaugarri duten egoeren okerrerako bilakaerak nolabait orekatzen du babes-ekipamenduen erabileraren gorakadak. Babes-ekipamenduen erabilera 2009ra arte % 45,6 eta % 47,8 bitarteko kopuruetan izan zen, eta 2013an soldatapekoen eta antzekoen % 54,7ra arte handitu zen eta maximoa jo du 2016an, % 56,5ekoa izan baita.


Orokorra izan da igoera, eta hobekuntza nabarmenak izan dira lan-edukien mota jakin batzuetan. Hori horrela, 1996. urteaz geroztik igoera etengabeak izan ondoren, maximoak lortu dituzte 2016an, produkzioaren kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan (pertsonen % 70,8k erabiltzen zituzten babes-ekipamenduak 1996an, eta % 82,2k erabili dituzte 2016an). Joera goranzkoa izan da

produkzioaren kategoria ertain eta altuetan; izan ere, % 81,5koa izan zen 1996an eta % 88,5koa izan da 2016. urtean (salbuespen bakarra izan da aldi horretan, % 91,3koa izan baitzen 2009an).

Gainerako edukietan (batik bat, zuzendaritzan, bulegoan, merkataritza-jardueretan eta irakaskuntzan goi-mailako titulazioa dutenen taldean) babes-ekipamenduen erabilerak gora egin du etengabe 1996. urteko % 8,2tik 2016. urteko % 29,8ra.

Osasunaren arloan goi-mailako tituluak dituztenen langileen taldeak soilik izan du bilakaera-ildo zertxobait makalagoa. Langile horien kasuan, babes-neurriak erabiltzen dituztenen proportzioa 1996ko % 76,1etik 2009ko % 83,5era handitu zen. Gero, 2013an % 76ra arte murriztu da, eta 2016an zertxobait egin du gora, % 76,9ra. Hala ere, 1996koaren oso antzekoa da 2016ko datua.

85. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Datuak zehatzago aztertuta, joera bat baino gehiago ikusten dira babes-bitartekoaren erabilera.

Bilakaera ona izan duten adierazleei begiratuta, joera hauek ikusi dira:

- * 2016an, maskararen erabileraren kopuru handienak ikusi dira, 1996az geroztik, infektatzeko arriskuaren adierazlean (% 49,4), kea arnastean (% 47,8) eta hautsa arnastean (% 46,4). Toxikoak arnasten dituztenen proportzioa % 55,8koa da, maximoa, baita ere, 1996. urteaz geroztik.
- * Eskularruen erabilerak, arrisku-egoeretan, behera egin zuen 2009 eta 2013 urteen bitartean, baina gora egin du zertxobait. Arriskuan dagoen biztanleria osoan, eskularruen erabilerak behera egin du, 2004ko eta 2009ko % 34,7-% 34,8tik 2013ko % 33ra, baina gora egin du 2016an, harik eta % 37ko ehunekoa iritsi arte. Datu maximoa da, 1996. urteaz geroztik.

Erabilera-datuak maximoak erakutsi dituzte, bai infekzio-arriskuaren alderdian (% 49,4koa izan da 2016an), bai toxikoen manipulazioan (% 56,1). Babesen erabilera-datuak ere handiak izan dira, eta 2009ko datuak soilik dira hobeak, bai deskarga elektrikoaren arriskuan (% 50,2 azkena, eta 2009an,

% 52,6), makinek eragindako zaurien arriskuan (% 43,5 azkena, eta % 44,2) eta erremintek eragindako zaurien arriskuan (% 42 azkena, eta % 42,8). Hala ere, eskularruen erabilera-ehunekoa, erredura-arriskutik babestekoa, % 41,9koa izan da 2016an, eta urrun ditu oraindik 2004. urteko % 45,6a eta 2009. urteko % 47,4a.


- * Arnesen erabilerak beherakada handia izan zuen 2009. urteko % 43,6ko datutik 2013. urteko % 34ko datura, baina gora egin du 2016an, eta % 38,4ko erabilera datua izan du. Datu hori 2004. urteko % 37,2koa baino handiagoa da, eta 2009ko maximoa soilik du gainetik.
- * Soinu-babesgarrien erabilera, 2016. urtean, % 63,6koa izan da arrisku-egoeretan. Erabilera-datu maximoa 2013an lortu zen (% 64,1), baina 2016ko datua hamarren gutxi batzuetara geratu da, eta 2009. urtera arteko datuak baino askoz ere handiagoa izaten jarraitzen du. Erabilerak etengabe egin du gora 1996. urteko % 37,9ko erabilera-datuaz geroztik.
- * Ildo horri berari jarraituta, babeserako betaurrekoen erabilera, begietakoak ez diren arriskuen kasuan, % 45ekoa izan da 2016an, hau da, 2013. urteko % 44,8koa baino zertxobait handiagoa. Proportzioak goranzko joera garbia ageri du, datua ez baitzen % 40ra iristen 1996 eta 2000 urteetan. Hala ere, ez du gainditzen 2009. urteko datua (% 47,6).
- * Bilakaera nabarmen positiboa da, babeserako betaurrekoen erabilerak etengabe egin duelako gora ordenagailu-pantailekin lan egiten dutenen artean (% 8,6koa izan zen 1996an, eta % 15,2koa izan da 2016an), baina babes horren erabilera, 2016an, oso minoritarioa izaten darrai.

Bilakaera kaskarragoa izan duten datuei begiratuta, aldaketa-ildo hauek izan dira 2013-2016 aldian:

- * Alde batetik, objektuak edo materialak beren gainean erortzeko arriskua dutenen artean, kaskoaren erabilera % 50,2koa izan zen 2009an, baina % 43,6ra murriztu zen 2013. urtean, eta % 37,8ra jaitsi da 2016an. Erabilera-datu hori 2000 eta 2004 urteetan izandako % 41,6 eta % 42,6 datuak baino txikiagoa da, eta 1996. urteko % 34,9koa soilik da txikiagoa. Deigarria da ikustea, objektuak eta materialak erortzeko arriskua handitzen ari den arren, joera edo dinamika hori oso bestelakoa izaten ari dela. Izan ere, arriskua % 14-15 bitartekoa zen 2000 eta 2009 urteen bitartean, baina % 16,6koa izan zen 2013an, eta % 19,6koa izan da 2016an (maximoa, 1996. urteko % 17,9aren ondoren).
- * Bestalde, zenbait arrisku elkartzen diren egoeretan, erabateko babesaren erabilerak beherazko joera ageri du 2009. urteaz geroztik. Hala, arriskuren bat duten biztanleen artean, horrelako jantzien erabilerak behera egin du 2009ko % 30,9tik 2013ko % 29,1era eta 2016ko % 27,6ra. Hala ere, kopuruek askoz handiagoak izaten jarraitzen dute 2004ra arte ikusitakoak baino (maximoa % 21,5ekoa izan zen urte hartan). Bada salbuespen bat, ordea, erradiazio-arriskuaren aurrekoa. Erabateko babesaren erabilera, kasu horretan, % 42,6koa izan zen 2013an eta % 33,5ekoa izan da 2016an, bigarren datu apalena 2004. urteko % 27,1az geroztik.

86. grafikoa

Arriskuak jasaten dituzten eta babes-ekipamenduak erabiltzen dituzten soldatapeko eta antzekoak, arrisku-motaren arabera. Euskal AE. 1996-2016 (%)




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hobera egin du, nabarmen, laneko arriskuei buruz informazio nahikorik ez dutela uste duten langileen proportzioak

Laneko arriskuei buruz informazio nahikorik ez dutela (alegia, batere informaziorik ez edo informazio gutxi dutela) adierazten duten soldatapekoen eta antzekoen proportzioa % 24,1ekoa izan zen 2000. urtean, % 15,4ra jaitsi zen 2004an eta % 10,8ra 2009an. Gerora, 2013an, ehuneko horrek gora egin zuen % 14,4ra. Adierazleak beheranzko bidera bueltatu da 2016an, eta balio minimora iritsi da (% 8,2).

Hobekuntzaren pertzepzioa lan-eduki guztietara iristen da, 2016an minimo historikoak izan baitira ia guztietan. Salbuespen bakarra osasun arloko goi-mailako tituludunen taldeari dagokio. Kasu horretan, 2000n eta 2004an kopuruak % 22koak baino apur bat handiagoak ziren, eta % 5,3koa izan zen 2009an. 2013an, aldiz, gora egin zuen berriro proportzioak, % 18,8raino. 2016. urteko % 9,6ak nabarmen hobetu du 2013ko datua, baina proportzioa 2009. urteko minimotik gora dago oraindik.

87. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2013 eta 2016 urteen bitartean, behera egiten jarraitu du, ordea, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko jarduerak duten parte-hartzea. Salbuespen bakar izan dira mediku-azterketak eta segurtasun/osasun alorretako prestakuntza.


Enpresetan egiten diren prebentzio-ekintzei begiratuta, informazio nahikoa ematen duten aldagai hauek soilik izan dituzte balio positiboak 2013 eta 2016 urteen bitartean: eutsi egin zaio mediku-azterketak egiten dituzten pertsonen proportzioari, eta gora egin du parte-hartzeak segurtasuneko eta osasuneko prestakuntza-ekintzetan.

Lehen aldagai horretan, eten egin da mediku-azterketek 2009-2013 aldian izan duten beherakada (% 81,9etik % 75era), eta proportzioak % 74,8ko mailari eutsi dio 2016an. Bestalde, % 66,7tik % 55,2ra jaitsi ostean, segurtasunaren edo osasunaren alorreko ekintzetan parte hartzen dutenen proportzioa % 59,4ra igo da 2016an. Urrun daude oraindik 2009ko datu maximoak, baina bi aldagai horien 2016ko datuak 1996az geroztik izan diren handienak dira, batik bat prestakuntzaren gaineko datua, 2009ko datua soilik baita handiagoa (% 66,7koa izan zen urte horretan).

Laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko beste jarduera mota batzuetan, sendotu egin da parte-hartzearen murrizketa-prozesua, 2009 eta 2013 urteetan abiatutakoa. Zenbait aldagairen 2016ko maila, ordea, 2000 eta 2004 urteetakoa baino handiagoa da; hori gertatu da, esaterako, prebentzio-planak izatearen aldagaian (% 43,1ek du plan bat bere lantokian, eta % 41,3 ziren 2004an; hala ere, urrun dago 2009ko datutik, % 61,9koa izan baitzen urte hartan). Hori bera gertatzen da arriskuen ebaluazioarekin (2016. urtean % 42, eta 2004. urtean % 41,3; hala ere, 2009an izan maximoa, % 60,6koa).

Gainerako jarduera motetan (instalazioak/antolamendua hobetzea, babes-ekipamenduak eta beste jarduera batzuk), 1996. urteaz geroztiko minimoak izan dira 2016an (% 38,0; % 36,3 eta % 0,6, hurrenez hurren).

88. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Behera egiten jarraitzen du lantokian laneko segurtasun-batzordeen edo prebentzio-delegatuen presentziak

Beste alde batetik, egonkortu egin da lantokian laneko segurtasun-batzorderik edo prebentzio-delegaturik edo figura baliokiderik ez daukatela dioten soldatapekoen proportzioa. Proportzio horrek etengabe egin zuen behera 1996az geroztik. 1996ko % 36,7tik 2009ko % 16,9ra jaitsi zen. 2013an,

ordea, gora egin eta % 21,5era iritsi zen, eta antzeko mailetan dabil 2016an, % 21,1ean, hain zuzen ere.


Egonkortu egin den arren, gora egin du lantokian horrelakorik ba ote duten ez dakitenen proportzioak. Horren ondorioz, prebentzioarekin lotutako figura horien presentzia aitortu eta berariazkoak behera egiten jarraitzen du: % 72,1ekoa zen 2009an, % 66,9koa 2013an eta % 64,6koa 2016an. Dena den, azken kopuru hori handiagoa da 1996-2004 epealdiaren % 62,4koa baino.

Erritmo apalagoan bada ere, laneko bajen murrizte-prozesua finkatu egin da 2013-2016 aldian

2009-2013 epealdian datu garrantzitsu hau hauteman zen: laneko bajen eraginak behera egin zuen, bai kopuru absolututan, bai kopuru erlatiboetan. Horren arrazoia krisiaren presioa izan zitekeen, enpleguari eusteko premia lehenetsi zelako, edo kontrolatu egin zirelako lan-baldintzen zenbait eragozpen, karga eta arrisku. Erritmo lasaiagoan bada ere, prozesua berretsi eta finkatu egin da 2013 eta 2016 urteen bitartean.

Kopuru absolututan, aurreko 12 hilabeteetan laneko baja izan duten soldatapekoen edo antzekoen bolumena 2009ko 139.486 pertsonetatik 73.334 pertsonara jaitsi zen 2013an, eta 61.849 pertsonara 2016an. % 55,7ko jaitsiera izan da 2009 eta 2016 bitartean. Jaitsiera hori bereziki handia da laneko gaixotasunaren ziozko bajei dagokienez. 2009an 97.500 pertsona izan ziren, 2013an, 45.286, eta 2016an 41.672 (-% 57,3, 2009 eta 2016 bitartean). Baina modu deigarrian jaitsi dira, halaber, laneko istripuen bajen kopurua, 2009an 48.108 pertsona izan ziren, 2013an, aldiz, 31.845, eta 2016an, 22.726 izan dira (-% 52,8, 2009 eta 2016 bitartean).

89. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Kopuru erlatibotan, bajen eragina soldatapekoen eta antzeko landunen % 17,2tik (2009) % 9,4ra (2013) jaitsi zen, eta are gehiago jaitsi da 2016an, % 7,8ra, hain zuzen ere. Jaitsiera deigarria izan da bi arrazoiengatik. Alde batetik, aurreko joera, oro har, goranzkoa izan zelako, 1996ko % 12,6az geroztik, baina 2000 eta 2004 bitartean % 15,0tik % 13,7ra jaitsi zelako; eta bestetik, 2016ko bajen kopurua txikiena izan delako 1996az geroztik, eta ehuneko 4,8 puntu beherago laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdeko kopurutik.

Baja mota guztietan gertatu da hori. Lan-gaixotasunagatik bajen eraginari begiratuta, soldatapekoen eta antzeko landunen eragina % 12koa izan zen 2009an, % 5,8koa 2013an, eta % 5,3koa izan da 2016an. Kopuru hori txikiagoa da 2000ko eta 2004ko % 8,4-% 8,8 bitartekoak baino, eta askoz hurbilago dago 1996ko % 6,3tik baino. Orduan ere krisi ekonomiko bat amaitu zen. Testuinguru horretan, azken aldaketek egonkortzera egin dute, eta posible da horrek murrizte-joeraren mugara iritsi dela adieraztea.

2013 eta 2016 aldian, murrizketa nabarmen handiagoa izan da lan-istripuengatik bajetan. Alde horretatik, % 5,9ko datua izan zen 2009an, % 4,1era jaitsi zen 2013. urtean, eta % 2,9ra jaitsi da 2016an. Joeraren ildo argi eta garbi beheranzkoa da, 1996ko eta 2000ko % 6,6-% 7ko kopuruetatik.

Era berean, 2013-2016 aldian, egoerak nabarmen egin du hobera bazarik gabeko molestien aldagaian. Nahiko aldagai egonkorra izan da orain arte, soldatapekoen % 23,9 izan baitzen egoera horretan 2013. urtean, eta gertu zituen 2004ko datua (% 23,1) eta 2009koa (% 24,8). Aitzitik, proportzioa % 19,2ra jaitsi da 2016. urtean, eta 1996. urteaz geroztiko txikiena da (% 21,9koa izan zen urte hartan).

90. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Lan-edukiei begiratuta, 2013 eta 2016 aldian agerikoa izan da bajen kopuru erlatiboaren beherakada, baina jaitsiera ez da orokorra izan.

Zuzendaritzako jarduerak, bulegokoek eta jarduera komertzialek izan dute bilakaera onena. Jarduera horietan, 2009an salbuespenez izan zen igoera alde batera utzita (bajen eragina % 14,5ekoa izan zen), beherakada jarraitua izan da 2000. Urteko % 9,3tik 2016. urteko % 5,8ra (1996. urteaz geroztiko maila minimoa da). Ekoizpenean eta bestelako zereginetan, bestalde, 1996 eta 2009 urteen bitartean izandako gorabeheren ostean (bajek % 16,7 eta % 20,7 bitarteko eragina izan zuten), proportzioak behera egin du, harik eta 2016an izan den % 9,4ko minimora iritsi arte.

Dinamika, ordea, ez da hain ona izan irakaskuntzaren eta osasunaren arloetan goi-mailako tituluak dituztenen taldean. Irakaskuntzan, % 7,5etik % 8,1era egin du gora 2013 eta 2016 urteen bitartean, baina nahiko aldaketa txikia da, 2016ko datu erlatiboa 1996-2009 aldian izan ziren % 9,5 eta % 12,2 bitarteko datuak baino nabarmen apalagoa baita.

Egoera kezkarriagoa da osasun-arloan. Arlo horretan, eraginak % 6,8tik % 14,7ra egin zuen gora 2000 eta 2009 urteen bitartean (gertu izan zen 1996ko % 14,2a), baina % 3,8ra jaitsi zen 2013an. Hala ere, berriro igo da 2016, urtean, % 11,8ra, eta 1996 eta 2009 aldian izan ziren % 14tik gorako mailak soilik ditu gainetik.

91. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Bajen dinamikan paradoxa hau ikusten da: bajen eragin erlatiboak behera egin du soldatapekoengan eta antzekoengan, baina, 2009. urtetik aurrera bederen, gora egin du, ia 2000-2016 aldi osoan, bajen iraupen-denborak (egunetan).

Hori horrela, hau izan da lan-istripuengatik batezbesteko baja-egunen bilakaera 2009 eta 2016 urteen bitartean: 35,8 egun izan ziren 1996an, eta 26,8 egunera jaitsi zen 2009an; gerora, 40,3 egunetara igo zen 2013an, eta 42,4 egunekoa izan da 2016. urtean, 1996. urteaz geroztiko kopuru handiena.


Bajen eragin erlatiboa apalagoa izanda, metatutako baja-egunen bolumena oso antzekoa zen 2009 eta 2013 urteetan, baina zenbateko hori nabarmen jaitsi da 2016an, eta 1996. urteaz geroztik izan duen maila txikienera iritsi da, 93. grafikoa ikus daitekeen moduan.

92. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

93. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Bajen iraupenaren goranzko bilakaera askoz ere deigarriagoa da laneko gaixotasunen adierazlean. Baja-egunen batez besteko kopuruak behera egiteko joera izan zuen 1996. urtean izan zen 44,5 eguneko kopurutik, eta 37,5 egunera iritsi zen 2009an; urte horretatik aurrera, 48,1 egunera igo zen 2013an, eta 57,1 egun izatera iritsi da 2016an (daturik handiena da 1996. urteaz geroztik).

Kasu horretan, bajan metatutako egunen bolumena askoz txikiagoa izan da 2004koa nahiz 2009koa baino, baina handiagoa 2013koa baino. Kopuru absolututan, 1996ko eta 2000ko zifrak baino txikiagoa da soilik.

Ekipamenduei, laneko giroari eta arriskuei buruzko beste alderdi batzuk

Ekipamenduei, laneko giroari eta arriskuei dagokienez, beste alderdi esanguratsu batzuk aipatu ditzakegu:

- * Ekipamenduen erabilerari dagokionez, 2009 eta 2013 bitartean berriro gora egin du zenbakizko kontroleko makinaren ohiko erabilerak. 1996 eta 2000 bitartean mota horretako makinak erabili ohi dituzten soldatapeko eta antzekoen proportzioak gora egin zuen % 3,8tik % 6,7ra, eta 2009an behera egin zuen % 6,2ra arte. 2013an, berriz, gehieneko kopurura heldu zen, % 8,5era. 2016an proportzio berberari eusten zaio: % 8,5ekoa izaten jarraitzen du.
- * Makina-erreminten ohiko erabilerak 1996 eta 2009 bitartean etengabe behera egin ondoren, 2013an gora egin zuen % 15,2ra arte. Proportzio hori handiagoa da 2004ko eta 2009ko kopuruak (% 13- % 13,5) baino. 2016an, ordea, beheranzko bideari ekin dio berriro: % 13,1koa izan da, 2009ko maila minimora hurbilduta.

5. GOGOBETETZEA LANEAN


Lanarekiko gogobetetze orokorrak handia izaten jarraitzen du 2016an, baina gora egiten jarraitzen du gustura ez daudenen kopuruak, eta jaitsi egin da oso gogobetetze handia dutenen proportzioa

Soldatapekoen eta antzekoen artean, lanpostuarekiko gogobetetze-mailak altua izaten jarraitzen du Euskadin. Horren haritik, 2016. urtean, % 85,9k adierazten du lanpostuarekin nahiko pozik edo oso pozik dagoela. 1996 eta 2004 urteetan izandako proportzioak baino handiagoa da, % 83,4koa eta % 84,8koa izan baitziren, hurrenez hurren. Dena den, proportzioa 2009 eta 2013koa baino txikiagoa da: % 89,9koa, 2009an, eta % 87,2koa, 2013an.

Eta, aitzitik, 2009an izandako minimotik (% 10,1), gora egin du etengabe lanpostuarekin modu batean edo bestean pozik ez daudenen proportzioak. Proportzio hori % 12,8koa zen 2013an, eta % 14,1ekoa izan da 2016an. Igoera txikia eta eragina oso mugatukoa den arren, aipatzekoa da, era berean, handitu egin dela lanean inolako satisfaziorik topatzen ez duten pertsonen kopurua: 2004 eta 2013 urteen bitartean % 1,6 eta % 1,7 bitarteko zifrak izan ziren, eta % 1,9koa izan da 2016an. Hala ere, ehuneko hori txikiagoa da 2000. urteko % 2,6a eta 1996. urteko % 3,2a baino.

Era berean, behera egin du, 2009/2013 alditik aurrera ikusten den beherazko joera apalaren harian, beren lanpostuari oso gogobetegarri irizten dioten pertsonen ehunekoak. Proportzio hori % 23,4koa zen 2013an, eta % 19a jaitsi da 2016an, hau da, -4,4 ehuneko-puntu jaitsi da. Gogobetetasun handieneko adierazle horrek 2016an izan duen ehunekoak bi hauek bakarrik ditu azpitik: 2004ko % 14,5a eta 2000ko % 16,6a.

94. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Joera orokorren atzean ikusten da okertze nabarmena gertatu dela lan-eduki batzuetan, eta sexuaren eta adinaren arabera taldeen arabera ere bai

Nolanahi ere, esan behar da dinamika oso diferentea dela lanaren edukia kontuan hartuta. Kasu batzuetan, 2009 eta 2016 bitartean behera egin du haien lanpostuarekin pozik ez dauden pertsonen proportzioak. Hala gertatu da industriako edo hirugarren sektoreko ekoizpenaren kategoria baxuetan. Esparru horietan, 2016an gogobetetze-ezaren kopururik txikiena, % 14,9koa, izan da 1996. urteaz geroztik (2013ko % 15,3tik behera, eta 2000ko % 23,5eko maximotik oso urrun).

Beste kasu batzuetan, 2013-2016 aldiko datuek esaten digute gogobetetze-ezak behera egin duela emailza oneko urteekin alderatuta. Hori gertatu da bulegoko jarduerekin, gogobetetze-ezak behera egin baitu 2013. urtetik (% 11,5) 2016. urtera (% 9,3). Datu horrek 2009. urteko % 8,1eko datua soilik du azpitik.

Osasunaren arloan goi-mailako tituluak dituen pertsonen taldean, berriz, egonkortu egin da gogobetetze-ezaren adierazlea; izan ere, 2013ko % 15,5an antzeko datua da 2016ko % 15,7a. Talde horren kasuan, ordea, gogobetetasun-ezaren joera beheranzkoa zen, zenbait gorabehera izan bazituen ere: % 20,1ekoa zen 1996an, eta 2009an iritsi zen minimora (% 9). Hori horrela, 2013. urteko % 15ak eta 2016. urteko datuak nabarmen gaitzen dute 2009ko datu hori.


Egoera antzekoa izan da jarduera komertzialen esparruan, 2016. urtean % 14,3ko proportzioa izan baitu, 2013an izan zuen % 14,1eko ehunekotik oso gertu. Gogobetetze-ezaren maila 1996 eta 2004 aldian izan den % 14,8 eta % 15,8 bitarteko datuena baino txikiagoa izan da 2016. urtean, baina, hala ere, 2009ko minimoa (% 10,2) baino nabarmen handiagoa da.

Beste lan-eduki batzuen azken bilakaera askoz ere okerragoa izan da. Hori gertatu da, esaterako, zuzendaritza-jardueren taldean eta irakaskuntzan goi-mailako titulazioa duten pertsonen taldean. Talde horietan, 2009an ezarri zen minimoa (% 4,8), eta gogobetetze-ezaren ehunekoa % 6,1ra igo zen 2013an, eta % 10era 2016an. Azken proportzio horrek bakarra du gainetik, 2000. urteko % 10,7a.

Antzeko ildo bati jarraitu diote kategoria ertain eta altuko ekoizpen-jarduerak egiten dituzten pertsonak; izan ere, gogobetetze-ezaren proportzioak % 9,3ko minimoa ezarri zuen 2009an, % 13,1era igo zen 2013an, eta % 16,2ko datua eman du 2016an. Kasu horretan ere, azken proportzio hori baino bakar bat da txikiagoa, 2000. urteko % 17,4a. Handitu egin da, ordea, aztertutako gainerako erregistroekiko distantzia, % 14tik beherakoak baitira guztiak.

Azkenik, adierazi behar da bestelako zereginak kategoria osatzen duen taldeak izan duela bilakaera okerrera. Talde horren datuek esaten dute gogobetetze-ezak % 16,9ko datutik % 19,3ko ehunekora igaro zela 1996 eta 2004 urteen bitartean, eta, bat-batean, % 6,1era jaitsi zela 2009. urtean. Krisiak, ordea, % 15,8ra igo zuen gogobetetze-eza 2013. urtean, eta goranzko joerari eutsi dio 2016an, % 22,5era iritsi baita. 1996tik erregistratu den kopururik handiena da.

95. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera, 2013-2016 epealdian lanpostuarekiko gogobetetze-ezak nabarmen gora egin duela ikusi da soldatapekoen eta antzekoen bi kategoriatan. Gizonezkoen taldean, 45 eta 64 urtekoen adin-bitartean, eta emakumeen taldean, 30 urtetik gorakoen multzoan.


Gogobetetze-ezaren proportzioa 45 eta 64 urte bitarteko multzoan % 9,7koa izan zen 2009. urtean, eta % 14raino igo da 2016an. Azken datu horrek 2000. urteko % 14,5a soilik du azpitik. Igoera handiena, kasu horretan, 2013. urtetik aurrera gertatu da, urte horretan % 10,8ko datua izan ondoren. Dinamika oso antzekoa izan da 45 urtetik gorako emakumeen multzoan; izan ere, gogobetetze-ezaren proportzioak % 9,5etik % 10,8ra egin zuen gora 2009 eta 2013 urteen bitartean, baina % 15,5era iritsi da 2016an; hau da, hamarren batzuk baino ez ditu falta 2000 eta 2004 urteetako datuetara iristeko (% 16-16,3).

Adierazi dugun beherazko joera hori 2013-2016 aldian gertatu da nagusiki, baina gogobetetze-ezaren ehunekoak 2009-2013 aldian izan du igoera handiena, 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen multzoan. Pertsona horien multzoan, lanarekiko gogobetetze-eza % 8,1etik % 14,6ra egin zuen gora 2009-2013 aldi horretan, eta % 15,7ra iritsi da 2016an (igoera-erritmoa motelagoa izan du). Datuek okerrera egin duten arren, sexuaren eta adinaren arabera talde horretan gogobetetze-eza adierazi duten pertsonen proportzioa txikiagoa da 2016. urtean, 1996 eta 2004 aldian baino (% 16,5 eta % 18,3 bitarteko datuak izan ziren urte horietan).

Gainerako taldeei begiratuta, hau da, 45 urtetik beherako gizonei eta 30 urtetik beherako emakumeei, murriztu egin dira, 2013-2016 aldian, lanarekiko gogobetetze-ezaren adierazleak. Jaitsiera apalak izan dira 30 eta 44 urte bitarteko gizonen taldean (% 13,8 ziren 2013an, eta % 12,6 izan dira 2016an) eta 30 urtetik beherako emakumeen taldean (% 12,5etik % 12ra). Talde batean zein bestean, 1996. urteaz geroztiko maila txikiak dira, 2009. urteko salbuespen bakarrarekin (urte hartan, 30 eta 44 urte bitarteko gizonen % 11,2k eta 30 urtetik beherako emakumeen % 11,6k adierazi zuten gogobetetasunik eza).

Gogobetetasunik ezak 30 urtetik beherako gizonengan izan du jaitsierarik nabarmenena. Gorabeherak izan dira talde horrek epe luzean izan dituen adierazle-balioetan; izan ere, % 20aren inguruko datua izan zuen 1996 eta 2000 urteetan, eta % 10,2ko balioa izan du 2016an. Inoizko baliorik txikiena da azken hori, 2009. urteko % 12,2a baino apalagoa. Talde horretan, 2009-2013 aldiko gorakadaren ondoren, nabarmen egin du behera gogobetetasun-ek 2013. urtean izandako % 17,2ko balioaren ondoren.

96. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gogobetetasun-eza handitzearen faktore nagusiak

2013-2016 epealdian gogobetetze-ezaren goranzko joera sorrarazi duten faktore nagusiak 97. grafikoan ikus daitezke. Horri dagokionez zenbait alderdi nabarmen aipa daitezke:

97. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


2009. urtetik aurrera, egoerak okerrera egin du oro har, eta, bereziki, sustapenaren alderdian. Azken alderdi hori da gogobetetze-ezaren faktore aipatuena 2013. urteaz geroztik

Alderdi batzuetan oso zabalduta dago egoerak okerrera egin duenaren pertzepzioa. 2009-2016 epealdian, sustapenerako aukerak izan dute bilakaera deigarriena. Kasu horretan, gogobetetze-eza mailaren batean erakusten duten soldatapekoen proportzioak gora egin du 2009ko % 27,3tik 2013ko % 40,4ra, eta 2016ko % 44,2ra. 2004ko % 45,4aren antzeko kopurura da, eta 1996ko % 65eko kopurua soilik du nabarmen goitik. 2013tik gogobetetze-ezaren elementurik garrantzitsuena da, ordainsarien beraien gainetik. Eta deigarria da, erritmoa moteldu arren, jaisten jarraitu duela 2013 eta 2016 artean.

98.a eta b grafikoetan ikusten den bezala, salbuespen gutxi batzuekin (industria-ekoizpeneko kategoria baxuak, 30 urtetik beherako emakumeak eta 30 eta 44 urte arteko gizonak, bilakaera ona izan baitute 2013-2016 epealdian), sustapenerako aukerarekiko gogobetetze-ezaren adierazlea kontuan hartutako lan-edukietan edo sexuaren eta adinaren arabera, 10 puntu baino gehiago handitu da 2009 eta 2016 bitartean. Kategoria ertain edo handiko produkzio-jarduerak (industriakoak nahiz industriakoak ez direnak) egiten dituzten pertsonak alde batera utzita, igoera 18 ehuneko puntutik gorakoa da adierazitako talde horietan. Hori gertatu da, era berean, osasunaren arloan goi-mailako tituluak dituztenen taldean, 2016. urteko balioa 2013koa baino txikiagoa izan den arren.


Zuzendaritzako, bulegoko eta merkataritzako jardueretan eta irakaskuntzan goi-mailako titulazioa dutenen taldean gertatu da bilakaera okerrera, 2000. urteaz geroztiko daturik okerrenak izan baitira 2016an gogobetetze-ezaren adierazlean, (oro har, pertsonen % 42,8k adierazi du 2016an gogobetetasunik eza sustapenarekin, eta % 31,2 ziren 2000. urtean). Sexuaren eta adinaren arabera, eta datuak konparatuta, 30 urtetik beherako gizonak izan dute bilakaera okerrera (% 39,7 da azken datua, eta % 35,4koa zen 2000. urtean) eta, oro har, 45 urtetik gorako pertsonak (gizonen % 46 izan dira, orduko % 36,7ren aldean, eta emakumeen % 54,4, orduko % 44aren aldean).

98.a grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

98.b grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Okertzeko joera, aztertutako aldian, orokorra da ordainsarien eta lan-ordutegiaren alderdian, baina baita, indar apalagoz eta salbuespen batzuekin baldin bada ere, estresaren/presio psikologikoaren alderdian eta lan-kargen gogortasunaren alderdian ere

Agerikoa da, era berean, ordainsariekiko gogobetetze-adierazleek okerrera egin dutela 2009 eta 2016 urteen bitartean, eta sustapen-aukerekiko gogobetetzeak baino okertze zertxobait apalagoa izan du, zenbateko erlatiboetan. Adierazle horrek erakusten digu, 97. grafikoa ikus daitekeen moduan, soldatapekoen % 32,8k zuela gogobetetze-ezaren arazoa 2009an, eta, gerora, % 38,9 izan zirela 2013an, eta % 42,9 izan direla 2016an. Azken datu hori 2004koaren berdina da, eta 2000. urteko % 44,2a soilik da hura baino handiagoa.

Hau esaten digu 99.a grafikoa ordainsariekiko gogobetetasun-ezak 2009. urtearekiko izan duen bilakaeraren gainean: kategoria ertain eta altuko taldeetan izan ditu, oro har, igoera handienak. Egoerak nabarmen egin du hobera, egoera hori bizi duten pertsonen ehunekoa % 42,3tik %28ra jaitsi baita 2013 eta 2016 urteen bitartean; hala ere, 2016ko datu hori 2009ko % 7,7a baino 20 ehuneko-puntu handiagoa da osasunaren arloan goi-mailako titulazioa duten pertsonen taldean. Dena den, 2009. urteko balio minimo hori bakarrik da 2016. urteko balioa baino txikiagoa.

Ehuneko igoera, 2009-2016 aldian, 11 eta 13,7 puntu bitartekoa izan da gainerako kategoria ertain eta handietan. Ekoizpenaren arlokoak izan dira salbuespen bakarrak. Zuzendaritzan, bulegoetako kategoria ertain eta altuetan eta irakaskuntzan goi-mailako titulazioa dutenen taldean izan den % 32,1eko datua 1996. urteaz geroztiko handiena izan da 2016. urtean, eta datu horrek goranzko igoera etengabea izan du 2009. urtean izan zen % 21,1eko datuaz geroztik. Joera hori bera izan dute merkataritza-jardueren kategoria ertain eta altuek, etengabe egin baitute gora 2009ko % 33,5etik


2016ko % 47,2ra. Azken datu hori, gainera, gogobetetze-ezak 1996. urteaz geroztik izan duen handiena da.

Bilakaera okerrera, ordea, ez da kategoria ertain eta altuetan gertatu. Izan ere, bulegoetako kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan, ehuneko 21,8 puntu igo da gogobetetasunik gabeko pertsonen ehunekoa, % 31,6tik (2009. urtean) % 53,4ra (2016an). Aztertu diren beste lan-eduki batzuetan gertatu den moduan, ordainsariekiko gogobetetze-ezaren maila handiena ezarri da 1996. urteaz geroztik.

Datuak % 40,3tik % 49,7ra egin du gora 2009 eta 2016 urteen bitartean, baina soldatapekoen eta antzekoen taldeak merkataritzaren eta produkzioaren kategoria baxuetan izan duten batez besteko orokorra baino zertxobait txikiagoa izan da bariazio hori. Ordainsariekiko gogobetetze-ezaren proportzioak, hala ere, asko egin du gora, eta 2000. urteko % 51,8tik oso gertu jarri da 2016ko datua.

Ekoizpenaren kategoria ertainek eta altuek izan dute bilakaera okerrera, industriakoak diren ala ez aintzat hartu gabe. Ordainsariekiko gogobetetasun-eza adierazi duten pertsonen proportzioa % 39,5etik % 43,3ra igo da 2009. urtetik 2013. urtera, eta adierazle hori 2009ko datura gerturatu da 2016an, % 41,4ko baliora iritsi baita. Balio bakar bat, 2009koa, du gainera 2016ko datuak. Hala ere, merkataritza-jarduerak alde batera utzita, gogobetetze-eza adierazten dutenen proportzioa handiagoa da, ekoizpenaren arloan, kategoria ertain eta altuak dituzten beste talde batzuetan baino.

99.a grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Taldeak sexuaren eta adinaren arabera multzokatuta, ikusten da ordainsariekiko gogobetetasun-ezak 10 ehuneko-puntutik gorako igoerak izan dituela 2009 eta 2016 urteen bitartean. 30 eta 44 urte bitarteko gizonak izan dira salbuespen bakarra, talde horrek baitu 2013. urteaz geroztik ordainsariekiko gogobetetasun-ezaren proportzio txikiena. Alabaina, gogobetetasunik eza adierazten dutenen bilakaerak okerrera egin du talde horretan ere, proportzioa % 33,7koa baitzen 2009an, eta % 38,8ra igo da 2016an.

Hala ere, 2016ko egoera deigarriena izan da ikustea 2009 eta 2016 urteen bitarteko okertze-joerak orain arte ordainsariekiko izan duten gogobetetze-ezaren ehuneko handienera eraman dituela talde hauek: 30 urtetik beherako pertsona guztiak, gizonak zein emakumeak; 30 eta 44 urte-bitarteko emakumeak; eta 45 urtetik gorako gizonak. Gainera, 30 urtetik beherako gizonen eta emakumeen taldeetan, gogobetetze-eza adierazi dutenen proportzioak % 50eko langa gainditu du 2016an. Antzeko egoera bakar bat gertatu zen, 2004. urtean, 30 urtetik beherako gizonen taldean.

99.b grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapekoen eta antzekoen taldearengan eragin askoz ere apalagoa baldin badu ere, 97. grafikoak erakusten digu lan-ordutegia izan dela, 2009 eta 2016 urteen bitartean, gogogabetasun-ezaren igoera orokorra eta gorakorra eragin duen beste faktore bat. Lan-baldintza hori talde horretako langileen %15,7rentzat izan zen gogogabetasun-ezaren sortzaile 2009an. Proportzio hori %17,1era igo zen 2013an, eta %20,8koa izan da 2016an. Hori horrela, 1996an ezarri zen balio maximoa (%22,8koa) soilik da handiagoa.


Ordutegiari erreparatuta, 100.a grafikoak adierazten digu gogobetetasun-ezaren ehunekoak, 2009 eta 2016 urteen bitartean, honako talde hauetan izan duela igoerarik handiena, 9,6 eta 10,9 ehuneko-puntu bitartekoa: osasunaren arloan goi-mailako titulazioa duten langileen taldea, hirugarren sektoreko ekoizpen-jardueraren kategoria ertain eta altuetan eta bestelako zereginetan. Osasungintzaren arloko langile horien taldean, igoera % 12,7tik % 23,7rako izan da 2009-2013 aldian, eta % 23,6an egonkortu da 2016an; hala ere, 2000 eta 2004 urteen bitartean izan diren % 26tik gorako proportzioen azpitik dabil adierazle hori. Gogobetetasun-ezaren igoera jarraitua izan da hirugarren sektoreko ekoizpen-jardueraren kategoria ertain eta altuetan eta Bestelako zereginetan; izan ere, % 16koa zen 2009an, % 20,4ra igo zen 2013an eta % 25,6ra 2016an. Datu bakar bat izan da azken hori baino handiagoa, 2000. urteko % 29,5a.

Okertze-joera leunagoa da bulegoko eta merkataritzako jardueretan, 4,8 eta 6,2 ehuneko-puntukoa, baina arlo horiek 2016an eman duten datuaren ezaugarri deigarria da lan-ordutegiekiko gogobetetasun-ezaren maila maximoak ezarri dituztela. Bi arlo horietan, gainera, 2013-2016 aldian igo da gehien gogogabetasun-ezaren adierazlea, 2013 eta 2016 urteen bitartean % 11,9tik % 16,4ra igo baita bulegoko jardueretan, eta % 19,8tik % 28,4ra merkataritzakoetan.

Gogobetetasun-ezaren ehunekoa % 15,7tik % 9,7ra jaitsi zen 2000 eta 2009 urteen bitartean zuzendaritzaren arloan eta irakaskuntza goi-mailako titulazioa dutenen taldean, baina igoera handia izan zuen 2013an, % 14,1era iritsita. Adierazleak zertxobait egin du behera 2016an, % 13,6ra, baina 2004 eta 2009 urteetako balioetatik gora dago oraindik.

Ekoizpenaren gainerako arloetan ikusten da okertze-bilakaera arinena, hirugarren sektorearen ekoizpeneko kategoria ertain eta handiak salbuetsita. 2016ko datuak (% 18,2) adierazten du igoera bi ehuneko puntukoa baino txikiagoa izan dela 2009 eta 2013 urteetako % 16,3-16,4 datuekiko. Gainera, ehuneko hori txikiagoa da 1996. urteko % 24a eta 2004. urteko % 19a baino.

100.a grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren arabera azterketa eginda, nabarmentzekoa da 45 eta 64 urte bitarteko gizonen taldean asko handitu dela gogobetetasun-eza. Batezbestekoa baino balio nabarmen txikiagoa eman zuen 2009an (% 11,2), baina, urte horretatik aurrera, gogogabetasun-eza adierazi zuten pertsonen ehunekoa % 13,8ra igo zen 2013an, eta % 21,2ra igo da 2016an. 2000tik erregistratu den kopururik handiena da.

Gainerako talde guztietan, igoera orokorra 4,3 eta 5,8 ehuneko-puntukoa izan da; hala ere, txikiena 1,4 puntukoa izan da, 45 eta 64 urte bitarteko emakumeen taldean. Gizonak 45 eta 64 urte bitarteko taldean izan zuten joera antzekoa izan dute 30 urtetik gorako emakumeek, beren 2016ko datua 2000. urtekoa baino handiagoa baita (urte hartako mailaren pareko balioaren bat eman da, esaterako, 45 eta 64 urte bitarteko emakumeen taldean).

100.b grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gogobetetasun-ezaren eragina, 2016. urtean, ez da lan-eduki guztietan izan handiagoa, baina nabarmentzekoa da gora egin duela estresaren edo presio psikologikoaren ondoriozko gogobetetasun-ezak (ikus 97. grafikoa), soldatapekoen eta antzekoen % 22,7 baitzegoen egoera horretan 2009an, % 28,7 2013an, eta % 28,8 2016. Kasu horretan, eraginpean dagoen biztanleriaren proportzioa 2004ko % 28,1etik hurbil dauden kopuruetara itzuli da, eta ez da gehiegi urrundu 2000ko % 31,1etik. 1996. urteko % 35,7a soilik da nabarmen handiagoa.


Presio psikologikoaren igoera handiena, 101. grafikoan ikus daitekeen moduan, ekoizpen-jarduerekin zerikusirik ez duten kategoriatan ertain eta altuko lan-esparruetan gertatu da 2016. urtean, 2009ko datuarekin alderatuta (horien artean daude zuzendaritza, bulegoak, merkataritza-jarduerak eta irakaskuntzaren eta osasunaren goi-mailako titulazioak). Talde horretan, hau izan da estresaren edo presio psikologikoaren ondoriozko gogobetetasun-ezak izan duen igoera: % 22,1eko datua 2009. urtean, % 32,1ekoa 2013. urtean, eta % 34,2koa 2016. urtean. Ehuneko hori 2000. urteko % 35,3koa baino zertxobait txikiagoa da, eta 1996. urteko % 48,1a soilik da nabarmen handiagoa.

Era berean, gogobetetze-ezaren igoera, 2009 eta 2013 urteen bitartean, oso deigarria izan da bulegoetako kategoriatan baxuetan eta bestelako zereginetan. Kasu horretan, gogobetetasun-eza adierazi zutenen ehuneko % 22,1ekoa izan zen 2009an, eta % 32,3koa izan da 2016an. Azkeneko ehuneko hori ere 2013ko % 25,3koa baino nabarmen handiagoa da. 1996. urteko % 38,1a soilik da 2016ko datua baino handiagoa.

Hain handia izan ez den arren, gogobetetasun-ezaren igoera nabarmena izan da ekoizpenaren kategoriatan ertain eta altuetan (industriakoak diren ala ez kontuan hartu gabe). Gogobetetasunik eza adierazitakoaren proportzioa % 22,5ekoa zen 2009an, % 27,8koa 2013an, eta % 29,4koa izan da 2016an.

Oso bestelako joera adierazi du estresaren eta presio psikologikoaren datuak 2013 eta 2016 urteen bitartean, jaitsi egin baita gainerako kategorია baxuetan (merkataritzakoak eta ekoizpenekoak). Arlo horietan, joera gorakorra zen 2004ko % 22tik 2013ko % 26,8ra, baina % 20,7ra jaitsi da 2016an, hau da, 2004. urteaz geroztik izan den daturik apalenera.

101. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Berriro ere 97. grafikora itzulita, gora egin dute, 2009 eta 2016 urteen bitartean, lanaren gogortasunak eta kargak eragindako gogogabetasun-ezaren ehunekoak. Arazo horri erreparatuta, soldatapekoengan eta antzekoengan izandako eragina % 15,7koa izan zen 2009an, % 16,5era igo zen 2013an, eta % 17,9ra 2016an; hori horrela, gertu du 2004. urteko % 18,9a. Hori horrela, 2000ko eta 1996ko datuak soilik dira nabarmen handiagoak (% 21,9 eta % 29,4, hurrenez hurren).


Ez da oso handia izan 2009 eta 2016 urteen bitarteko igoera, baina 102. grafikoan ikusten da zenbait aldagaik nabarmen egin dutela okerrera 2009. urtetik aurrera. Aldaketa deigarriena zuzendaritzako langileena, merkataritza-jardueretako kategoría ertain eta altukoena eta bestelako zereginena da, 2016ko adierazleak, arlo horietan, ehuneko 10 puntutik gora handitu baitira, 2009. urtearekiko. Lehen arloan (zuzendaritza eta merkataritzako kategoría ertain eta altuak), lanaren gogortasunaren eta kargen ondoriozko gogobetetasun-eza adierazten duten pertsonen proportzioak % 6,4tik % 9,8ra egin zuen gora 2009 eta 2013 urteen bitartekoan, eta datua % 17,1koa izan da 2016an. Datu bakarra izan da azken hori baino handiagoa, 1996ko % 25,3a. Bestelako zereginetan, adierazleak igoera nahiko konstanteak izan ditu 2009ko % 12,2tik 2016ko % 27,8ra. Berriro ere, datu bakarra izan da handiagoa, 1996ko % 34,5a.

Lanpostuaren kargak sortutako gogogabetasun-ezaren igoera arinagoa izan da bulegoko jardueretan eta irakaskuntzan eta osasungintzan goi-mailako tituluak dituztenen taldean (% 6,4tik % 9,4ra 2009 eta 2016 urteen bitartean, baina beherazko joeran 2013ko % 10arekin alderatuta). Alde horretatik,

beheranzko joera luzea izan da 1996ko % 33,1etik 2013ko % 20ra, baina azken urte horretatik aurrera bat-batean egin du gora, harik eta 2016an % 27,1era iritsi den arte, industria-ekoizpenaren kategoria ertain eta altuetan.

Bestalde, gainerako kategoria baxuetan (bulegoan izan ezik) eta hirugarren sektoreko kategoria ertain eta altuetan, eutsi egin zaio gogogabetasun-ezaren adierazleak 1996an ezarri zuen % 33,5eko datuaz geroztik izan duen beheranzko joerari, harik eta 2016an % 19,3ko datua eman duen arte.

102. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Gainerako faktoreek, oro har, bilakaera ona izan dute 2013 eta 2016 urteen bitartean

Lanarekiko gogobetetze-eza eragiten duten faktore horiek aztertuta, 97. grafikoan ikusten dugu beste batzuek bilakaera ona izan dutela 2013 eta 2016 urteen bitartean.

Hori gertatu da, esaterako, lan-erritmoarekin. Faktore horrek eragindako gogogabetasunik eza adierazi zutenen proportzioak % 28,5etik % 12,2ra jaitsi zen 1996 eta 2009 urteen bitartean, baina okerrera egin zuen 2013an, eraginpekoen ehunekoa % 16,2ra igo baitzen. Adierazle hori % 14,3ra jaitsi da 2016an, eta 2009. urtekoa soilik da txikiagoa.

Lan-arriskuen faktoreari begiratuta, % 12,3tik % 13,4ra igo da proportzioa 2009 eta 2013 urteen bitartean, baina, gerora, % 12ra jaitsi da 2016an. Faktore horretan, epe luzerako joera beheranzkoa izan da, 2009-2013 aldiko salbuespenarekin; izan ere, haren eragina % 27,1ekoa izan zen 1996. urtean, % 17,6koa 2000an eta % 16,4koa 2004an.

Bilakaera ona izan du, era berean, nagusiekiko harremanak, 2009 eta 2013 bitarteko aldiak % 10,1etik % 14,2ra igo ondoren. Adierazlea % 11,8ra jaitsi da 2016an, eta 2009ko minimoa soilik da txikiagoa.

Bilakaera on hori nabarmenagoa da lanpostuen edukiei eta zereginiei erreparatuz gero; izan ere, 2016. urtean faktore horren ondoriozko gogobetetasunik eza adierazi du % 9,4k. Ehuneko hori minimotik oso gertu dago (2009an ezarri zen, % 9,3an), eta handiagoa zen, % 10ekoa, 2013an.

Lan-giroari eta lanaren baldintza materialei begiratuta, 1996. urteaz geroztiko maila historiko minimoa da 2016. urteko % 9a. Adierazleak % 10,2tik % 12,2ra egin zuen gora 2009-2013 aldian, eta 2016an izandako jaitiera horren bidez, faktore horrek sortutako arazoek berriro ekin diote beheranzko joera historikoari.

Adierazi berri ditugunak horrela izanda ere, komeni da aipatzea zenbait bilakaera negatibo izan direla puntu honetan aztertu ditugun alderdietan. Ehuneko 5 puntuko igoerak edo handiagoak izan dituztenak dira. Lan-edukietan gertatu dira, edo taldeetan, sexuaren eta adinaren arabera. Faktore horiek soldatapekoen eta antzekoen gogobetetasun-ezean izan duten eragina batez bestekoaren ingurukoa edo handiagoa izan da. Hori horrela, 2009-2016 aldian, gogogabetasun-ezak igoerak izan ditu faktore hauetan:

- * Zuzendaritza-jardueren lan-erritmoan (2009. urtean % 7 adierazi ziren, 2013. urtean % 19,1 eta 2016an % 24,9), eta igoera apalagoak bestelako zereginetan (gogogabetasun-eza % 15,6koa izan da 2016an, eta % 8,8koa izan zen 2009an).
- * Nagusiekiko harremanean zuzendaritza-jarduera horiexetan, gogogabetasun-ezaren ehunekoa % 4,7koa baitzen 2009. urtean, % 10,2koa 2013an, eta % 11,3koa izan da 2016an.
- * Osasungintzan goi-mailako titulazioa duen taldearen lan-arriskuetan (% 19,4koa 2016an eta % 10,3koa 2009an) eta bestelako zereginak egiten dituztenen taldean (% 23,7 batetik eta % 15,9 bestetik).
- * Bestelako zereginak egiten dituzten lanpostuetako edukietan eta zereginetan (gogobetetasun-eza adierazitakoen proportzioa % 11,8koa izan da 2016an, eta % 6,5ekoa izan zen 2009an).

Lana aldatzeari buruzko planteamenduen kopuruak oraindik txikiak dira, bereziki aldaketarako gestioak egin dituztenenak


Zenbait adierazlek okerrera egin baldin badute ere, langileek beren enpleguan gogobetetze-maila onak dituzte oro har, eta horrek azaltzen du zergatik dauden, konparazioa egin ondoren, nahiko maila baxuetan lanez aldatzeko asmoak. Joera, gainera, beheranzkoa izan da 2013 eta 2016 urteen bitartean. Lanez aldatzeko aukera hausnartzen ari den soldatapeko langileen ehunekoa % 16,7tik % 19,6ra igo zen 2009 eta 2013 urteen bitartean, baina proportzio hori % 18,1era jaitsi da 2016an. Balio bakar bat da 2016koa baino txikiagoa, 2009ko %16,7a.

Lanez aldatzeko planteamenduak aldaketa-asmo hori gauzatzeko gestio konkrituak egin dituzten pertsonen ehunekoetan zehazten baldin badugu, ikusten dugu beherazko joera ez dela hain argia; izan ere, proportzioa % 8,2koa izan da 2016an, hau da, 2003ko % 8,3aren eta 1996ko % 8,1aren oso antzekoa. Hala ere, 2016ko adierazlea minimoa baino zazpi hamarren handiagoa da soilik (minimoa 2009an ezarri zen, % 7,5ean).

Lan-edukiei begiratuta, datu nabarmenena da enplegu-eskaeren ehunekoa, 2009. urtearekin konparatuta, handitu egin dela 2016. urtean, zuzendaritza-jardueretan eta bulegoko kategoria ertain eta altuetan. Adierazlearen ehunekoa % 20,2tik % 16,8ra jaitsi den arren, lan bila ari diren soldatapeko langileen eta antzekoen ehunekoa 2009. urteko % 11,9a baino nabarmen handiagoa da. Enplegua gestio zuzenen bidez bilatu dutenen aldagaiari begiratuta, joera goranzkoa da 2009. urteaz geroztik, urte horretan % 5,3koa izan baitzen, % 7,5koa 2013an eta % 8,2koa izan baita 2016an.

Adierazitako datuak 2016an izandakoen antzekoak dira gainerako lan-edukietan, baina nabarmenezkoa da handitu egin dela, gainerako edukiek 2009-2016 aldian izan duten nolabaiteko egonkortasunaren aldean, lanez aldatzeko gogoia honako eduki hauetan: zuzendaritzako lan-eremuetan eta bulegoko eta merkataritza-jardueretako kategoria ertain eta altuetan.

103. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan berria bilatzeari dagokionez, hau zen 2013ko egoeran alderdi nabarmenetako bat: modu nabarmenean egin zuen gora lana galtzeko beldurrarengatik aldatzea planteatzen zuten pertsonen proportzioak. Aldaketa planteatzen duten pertsona guztien artean, aldaketarako gestioak egin dituzten ala ez kontuan hartu gabe, arrazoi horren kopuruak ez zuen ordura arte inoiz gainditu 1996ko % 13,4a. 2009an % 11 zen eta 2013an, berriz, lana aldatzeko arrazoiaren % 24,2. Adierazleak % 12,6ko datua izan du 2016an, eta ohikoak izan diren mailetara itzuli da; izan ere, oro har, % 11 eta % 13,4 bitarteko datuak eman izan ditu (salbuespen bakarrak 2004ko % 8,7a –minimoa– eta 2013. urteko % 24,2a –maximoa– izan dira).

6. LAN-BALDINTZEN OKERTZEARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Gaur egungo soldatapekoen eta antzekoen % 23,2k dio lan-baldintzek okerrera egin dutela 2016an

104. grafikoan ikus daitekeen moduan, 2016. urtean EAEko langile soldatapekoen eta antzekoen % 23,2k adierazi du azken lau urteetan okertu egin direla bere lan-baldintzak, eta datu hori nahiko handia dela adierazi behar da, 2013. urteko datua handiagoa, % 28,1koa, izan zen arren.

Nahiz eta sexuaren eta adinaren arabera talde guztietan izan horren eragina, aldeak nabarmenak dira lan-edukiaren arabera, baita aldagai demografikoen arabera ere.

Lan-educiei begiratuta, bulegoko jardueretan lan egiten eta lan-kategoria baxua duten pertsonak izan dute galera txikiena 2016. urtean. Egoera horretan dauden % 11,4k adierazi du okertu egin direla bere lan-baldintzak, eta datu horrek beheraka nabarmena adierazten du 2013. urteko % 33,3arekiko.

Okertze nabarmena izan dutenen proportzioa % 16,5 eta % 24,6 bitartekoa da merkataritza-jarduerekin edo ekoizpen-jarduerekin zerikusia duten kategoria baxuetan. Lan-educien multzo horretan, oro har, soldatapekoen % 20,1ek adierazi du 2016. urtean egoera okerragoa duela. Ehuneko hori 2013. urteko % 21,1eko datua baino puntu bat txikiagoa da.


Kategoria baxuko jarduera mota horietan, ordea, nabarmentzekoa da egoera, 2016an, gehiago okertu dela, konparazioan, industria-produkzioaren arloan (% 24,6 izan da 2016an eta % 23,3 izan zen 2013an). Hori izan da, 2013-2016 aldian, lan-baldintza okerragoko egoeren ehuneko handiagoa izan duen lan-eduki bakarra.

Proportzioak % 19,4 eta % 25,7 bitarteko datuak eman ditu, eta aurreko multzoko emaitzetatik gertu dago, zuzendaritzako, bulegoko, merkataritzako eta ekoizpeneko kategoria ertain eta altuetan. Educien multzo horretan, biztanleen % 22,1ek esan du lan-baldintzek okerrera egin dutela 2016an, eta beherantz egiten du, argi eta garbi, 2013ko % 26,3rekin alderatuta.

2013. urtearekin alderatuta, 2016an lan-baldintzak okertu zaizkiela adierazten duten pertsonen proportzioak gutxi egin du behera bestelako zereginak lan-educian. Talde hori da, azken urteetan, lan-baldintzen okertzea gehien pairatu duenetako bat. Talde horren datua % 27,8koa izan da 2016an, eta % 29,9 izan zen 2013an.

Hala ere, 2016. urteko datuei begiratuta, irakaskuntzaren eta osasunaren arloetan goi-mailako titulazioak dituztenek adierazi dituzte, berriro ere, lan-baldintzen okertzearen balio handienak, % 37,3ko eta % 40,3ko datuak izan baitituzte. Eragin hori handia baldin bada ere, nabarmen murriztu da 2013. urteko balioekiko, % 50,7ko eta % 55,9ko balioak adierazi baitzituzten urte hartan.


104. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

105. grafikoaren informazioak adierazten digu lan-baldintzen okertzearen eraginak, 2016. urtean, alde handiak izan dituela adinaren eta sexuaren arabera.

105. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-baldintzak okertu izanaren pertzepzio handiena 45 urtetik gorako soldatapekoek eta antzekoek dute, gizonen % 26,3k eta emakumeen % 27,3k esan baitute hori gertatu zaiela. Horien atzetik daude 30 eta 44 urte bitarteko gizonak, % 22,4ko datuarekin (2-3 ehuneko-puntutan gainditu dute adin-bitarte horretako emakumeen % 20,5eko datua), eta 30 urtetik beherako emakumeak, % 19,5eko datuarekin. Balio minimoa % 11,1ekoa da, 30 urtetik beherako gizonena.

Datuen joerak, 2013. urtearekiko, aldatu egiten dira sexuaren eta adinaren arabera. 2016. urtean, 30 eta 44 urte bitarteko pertsonak izan dituzte jaitsiera nabarmenenak hautemandako okertzearen ehunekoetan (gizonak % 29,4tik % 22,4ra igaro dira 2013 eta 2016 urteen bitartean, eta emakumeak % 31,5etik % 20,5era). Txikiagoak izan arren, 2013-2016 aldi horretan agerikoak dira 45 urtetik beherakoengan izandako jaitsierak (% 29,3tik % 26,3ra gizonak, eta % 30,5etik % 27,3ra emakumeak).

Baldintzak okertzen ari zaizkiela hautematen dutenen ehunekoa gora egiten ari da 30 urtetik beherako gazteengan; hala ere, talde hori izan da 2016. urtean beren lan-baldintzen okertzearen pertzepzio-ehuneko txikiena izan duena. Hori horrela, lan-baldintzen okertzearen pertzepzioa, 2013 eta 2016 urteen bitartean, % 9,4tik % 11,1era igo da gizonen taldean, eta % 18tik % 19,5era emakumeen taldean.

Ordainsariak izan dira, 2016an, lan-baldintzen okertzearen faktore eragile nagusiak, eta maila askoz ere txikiagoan, lan-erritmoa, kontratu-baldintzak eta zereginen edukia

Aztertu diren langile soldatapekoek eta antzekoek 2016an adierazi dituzten lehen hiru okertze-faktoreei begiratuz gero, ikusten da ordainsarien faktorea erabakigarria dela oraindik ere okertze-egoera horren pertzepzioan. Soldatapekoen % 11,5ek adierazi du faktore horrek garrantzi handia izan duela azken lau urteetan; hala ere, beheranzko joera adierazi du 2013. urteko % 16,2arekin alderatuta.

Lanaren erritmoa izan da 2016. urtean adierazi den bigarren faktorea; zehazki, % 6k aipatu du faktore hori. 2013. urtean, ordea, bosgarren faktorea izan zen. Bigarren lekura igaro izanaren arrazoi nagusia da behera egin duela beste faktore batzuen eraginak; hala ere, arazo horren eraginak gora egin du 2013ko % 5,1eko baliotik.

Behera egin dute beste lan-baldintza batzuen eraginak, hala nola kontratu motarena, ordutegiena, lanaldiena eta oporrena, soldatapekoen eta antzekoen % 5,1ek adierazi baititu faktore horiek 2016. urtean, eta % 9,7k, berriz, 2013an. Baldintza horiek bigarren faktore izatetik hirugarren faktore izatera igaro dira lan-baldintzen okertze-ildoazaltzeko faktoreen artean.


Biztanleriaren % 4,8k aipatu du egindako zereginen edukiaren eta baldintzen faktorea 2016an, eta proportzio hori 2013ko % 6,4koa baino txikiagoa da. Laugarren faktore nagusia izaten jarraitzen du.

Ageriko beherakada izan du, era berean, lanpostuaren edukiaren eta lanpostu horrek dakarren presio psikologikoaren faktoreak, soldatapeko langileen eta antzekoen % 4,6k aipatu baitu faktore hori 2016. urtean, eta % 8,3k, berriz, 2013an.

Aitzitik, zertxobait igo da 2016an lan-antolamenduari egindako aipameneren ehunekoa, % 3,5ekoa izan baita, eta % 2,7koa izan baitzen 2013an.

Lan-baldintzak okertzeko gainerako faktoreak soldatapeko edo antzekoen % 2,5ek baino gutxiagok aipatzen ditu, eta, gainera garrantzi erlatiboa galdu dute 2013 eta 2016 artean.

106. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapeko langileek eta antzekoek 2013 eta 2016 urteetan adierazi dutena kontuan hartuta, lan-baldintzen okertze-faktoreen dinamikak azaltzen dituzte 13. eta 14. taulek, lan-edukien eta sexuaren eta adinaren arabera.

2016an, azken lau urteetan ordainsariak murriztu izana biztanleriaren % 10ek baino gehiagok aipatzen du ia-ia lan-edukiaren araberrako talde handi guztietan. Bulegoko kategoria baxuena da salbuespen bakarra, % 6,2ko okertzea hauteman ondoren. Kontrako aldean, batezbesteko orokorra (% 11,5) baino ehuneko nabarmen handiagok dituzte irakaskuntza goi-mailako titulazioak dituen taldeak (% 16,9) eta bestelako zereginetan aritzen direnak (% 17,7). Okertze-dinamikaren balioak batez bestekoaren ingurukoak dira osasungintzak goi-mailako tituluak dituztenen taldean (% 11,4), bestelako kategoria ertain eta altuetan (% 10,2) eta gainerako kategoria baxuetan, bulegokoetan izan ezik (% 11,7). Industria-ekoizpenaren kategoria baxuen dinamikari lotuta (% 10,7tik % 14,5era okertu da 2013 eta 2016 urteen bitartean), okertzearen pertzepzioak gora egin du azken talde horretan, 2013. urtean adierazi zuen % 10,9ko balioarekiko.

Lan egiteko eritmoaren faktorean, osasungintzan goi-mailako titulazioa dutenen taldeak bizi duen presio handia nabarmentzen da, pertsona horien % 14k aipatu baitu 2016an alderdi hori okertu zaiela. Ehuneko hori 2013an izan zen % 6,4a baino nabarmen handiagoa da. Era berean, Euskadiko batez bestekoaren gainetik kokatu da 2016. urtean irakaskuntzan goi-mailako tituluak dituztenen taldea, % 7,7ko balioa adierazi baitu; hala ere, 2013koaren antzeko datua eman du (% 7,8).



13. taula

Soldatapekoak eta antzekoak. Lan-baldintzak okertzeko faktoreak, hiru lehenengoen artean aipatutakoak, lan-edukiaren arabera. Euskal AE. 2013-2016
(talde bakoitzeko biztanleriaren %tan)

FAKTOREAK	Lan-edukia						Guztira
	Osasuna (Goi-m. tit.)	Irakaskuntza (Goi-m. tit.)	Beste batzuk kat.ertaina eta altua	Kat.baxua (Bulegoa izan ezik)	Bulegoa (kat.baxua)	Bestelako zereginak	
	%	%	%	%	%	%	%
2016							
Ordainsaria	11,4	16,9	10,2	11,7	6,2	17,7	11,5
Lana egiteko erritmoa	14,0	7,7	6,2	5,3	2,1	3,6	6,0
Kontratu-baldintzak, ordutegia, lanaldiak, oporrak	12,9	7,3	4,6	4,3	0,0	8,4	5,1
Zereginen edukia eta baldintzak	13,3	11,3	3,7	3,8	5,7	5,7	4,8
Lanpostua/presio psikologikoa	8,4	6,5	5,1	3,2	2,9	3,7	4,6
Lanaren antolamendua	5,1	9,0	4,0	2,1	0,0	2,2	3,5
Nagusien/mendekoen arteko harremanak	1,7	2,4	2,5	2,0	1,7	0,6	2,1
Lanaren baldintza materialak	3,3	4,1	1,2	1,5	1,4	4,1	1,8
Prestakuntzarako/barne-sustapenerako sarbidea	4,7	2,7	1,3	0,9	2,2	3,0	1,6
Lanpostuko arriskuak	6,1	0,8	0,5	1,5	0,0	0,7	1,0
Beste batzuk	1,0	0,7	0,3	0,0	0,0	1,3	0,3
2013							
Ordainsaria	32,3	38,5	14,4	10,9	19,3	18,2	16,2
Lana egiteko erritmoa	6,4	7,8	5,8	3,4	6,7	4,7	5,1
Kontratu-baldintzak, ordutegia, lanaldiak, oporrak	30,0	23,0	7,0	7,5	10,3	9,5	9,7
Zereginen edukia eta baldintzak	18,9	8,0	6,2	4,3	6,6	8,7	6,4
Lanpostua/presio psikologikoa	11,9	10,0	9,2	6,0	9,6	9,7	8,3
Lanaren antolamendua	6,5	4,0	2,9	1,6	2,6	3,3	2,7
Nagusien/mendekoen arteko harremanak	1,7	2,1	2,6	1,8	2,7	1,1	2,2
Lanaren baldintza materialak	5,3	7,3	1,6	2,4	2,2	1,9	2,5
Prestakuntzarako/barne-sustapenerako sarbidea	6,2	5,0	1,3	0,8	3,1	4,4	1,9
Lanpostuko arriskuak	4,2	0,8	1,0	0,9	1,2	0,9	1,1
Beste batzuk	3,4	5,4	1,5	1,7	1,9	1,2	1,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

14. taula
Soldatapekoak eta antzekoak. Lan-baldintzak okertzeko faktoreak, hiru lehenengoen artean aipatutakoak, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE.
2013-2016
(talde bakoitzeko biztanleriaren %tan)

FAKTOREAK	Sexua eta adina						Guztira
	Gizona 16-29	Gizona 30-44	Gizonak >=45	Emakumea 16-29	Emakumea 30-44	Emakumeak >=45	
	%	%	%	%	%	%	%
2016							
Ordainsaria	6,0	10,4	14,8	8,3	9,8	12,8	11,5
Lana egiteko erritmoa	1,5	6,9	5,9	8,3	4,9	7,1	6,0
Kontratu-baldintzak, ordutegia, lanaldiak, oporrak	3,1	4,8	5,7	4,9	5,6	4,7	5,1
Zereginen edukia eta baldintzak	1,1	5,0	3,9	4,6	5,0	6,6	4,8
Lanpostua/presio psikologikoa	3,1	4,7	4,1	0,0	5,1	6,2	4,6
Lanaren antolamendua	3,0	5,1	1,8	2,4	2,5	5,6	3,5
Nagusien/mendekoen arteko harremanak	0,0	1,5	2,1	0,8	2,6	3,3	2,1
Lanaren baldintza materialak	1,1	1,6	2,9	3,5	0,9	1,3	1,8
Prestakuntzarako/barne-sustapenerako sarbidea	0,0	1,2	1,8	2,4	2,0	1,4	1,6
Lanpostuko arriskuak	0,5	1,0	1,3	1,6	0,7	1,1	1,0
Beste batzuk	0,0	0,1	0,7	0,0	0,3	0,2	0,3
2013							
Ordainsaria	4,2	15,1	18,4	12,6	17,8	18,2	16,2
Lana egiteko erritmoa	0,6	6,1	4,5	3,1	6,2	5,3	5,1
Kontratu-baldintzak, ordutegia, lanaldiak, oporrak	3,9	9,1	8,3	6,8	12,3	11,8	9,7
Zereginen edukia eta baldintzak	2,6	7,0	6,6	2,6	7,2	7,0	6,4
Lanpostua/presio psikologikoa	3,4	8,6	7,5	8,1	9,4	9,4	8,3
Lanaren antolamendua	0,0	3,9	2,3	2,5	3,3	2,1	2,7
Nagusien/mendekoen arteko harremanak	0,0	3,4	2,4	1,6	1,4	2,2	2,2
Lanaren baldintza materialak	2,2	3,3	2,2	0,0	3,0	2,4	2,5
Prestakuntzarako/barne-sustapenerako sarbidea	0,3	1,8	2,7	1,1	2,5	1,4	1,9
Lanpostuko arriskuak	0,0	1,4	0,9	0,0	1,8	0,7	1,1
Beste batzuk	0,0	1,3	2,9	1,7	1,7	2,5	1,9

Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2016ko batez bestekotik gertu dabilta gainerako kategoria ertain eta altuen % 6,2a eta gainerako kategoria baxuen % 5,3a (bulegoetan izan ezik); hala ere, bi adierazle horiek jarraitu egiten diote lan egiteko erritmoaren faktoreak 2013 eta 2016 urteen bitartean izan duen goranzko ildoari (hurrenez hurren, % 5,8ko eta % 3,4ko balioak izan zituzten 2013an).

Irakaskuntzaren eta osasungintzaren arloetan goi-mailako titulazioak dituztenen taldeak izan dira, era berean, kontratuen, lanaldiaren, ordutegien eta bestelako baldintzen okertzea gehien hauteman dutenak (% 7,3 eta % 12,9, hurrenez hurren). Deigarria da, era berean, bestelako zereginak egiten dituzten taldearen % 8,4ko proportzioa. Horietan guztietan, ordea, adierazleen balioa jaitsi egin da 2013. urtearekiko (% 23, % 30 eta % 9,5, hurrenez hurren).

Ildo horri berari jarraituta, zereginen edukiak eta baldintzak okertu egin zaizkiela adierazi dute osasungintzan goi-mailako tituluak dituztenen % 13,3k eta irakaskuntzan goi-mailako tituluak dituztenen % 11,3k. Osasungintzan, hautemandako okertze-ehunekoak behera egin du 2013. urtearekiko (% 18,9koa izan zen urte hartan), baina handitu egin da irakaskuntzan goi-mailako tituluak dituztenen taldean (% 8koa zen 2013an).

Goi-mailako tituluak dituzten bi talde horiek dira, era berean, lanpostuaren presio psikologikoa gehien pairatzen dutenak. 2016. urtean, % 8,4k aipatu du faktore hori osasungintzako taldean, eta % 6,5ek irakaskuntzako taldean; hala ere, nabarmen egin dute behera 2013. urteko pertzepzioarekiko (% 11,9 eta % 10, hurrenez hurren).

Lanaren antolamendua da, era berean, aztertu ditugun bi talde tituludun horiek modu diferentzialean aipatu duten beste okertze-faktore bat (% 5,1 osasungintzan eta % 9 irakaskuntzan). Hezkuntzaren sektorean, 2016ko % 9ak igoera nabarmen bat ageri du, 2013. urteko % 4arekiko.

Azkenik, osasungintzan goi-mailako tituluak dituztenen taldea da lanpostuaren arriskuak batezbestekotik nabarmen gora okertu zaizkiolako nabarmentzen den bakarra; izan ere, 2013ko % 4,2a gainditu du 2016ko % 6,1ak.

Adinaren eta sexuaren arabera eginez gero taldeen azterketa, ikusten da 45 urtetik gorakoek gehiago hauteman dutela ordainsari-baldintzen okertzea (gizonen % 14,8k eta emakumeen % 12,8k). Balioa zertxobait txikiagoa da 30 eta 44 urte bitartekoen artean (gizonen % 10,4 eta emakumeen % 9,8). Oraindik balio txikiagoak dituzte 30 urtetik beherakoek, hori adierazi baitu adin-bitarte horretako emakumeen % 8,3k eta gizonen % 6k (minimoa).


Lan-erritmoan hautemandako okertzeak % 6,9ko eta % 8,3ko maximoetara iritsi dira 30 eta 44 urte bitarteko gizonen taldean eta 30 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako emakumeen taldean. Talde horietan guztietan, baina batik bat emakumeen taldeetan, hautemandako okertzearen igoera nabarmenak izan dira 2013. urtearekiko, eta nabarmena izan da igoera, era berean, 45 urtetik gorako gizonen taldean (% 4,5etik % 5,9ra 2013 eta 2016 urteen bitartean).

Aipatzekoa da, horrez gainera, 45 urtetik gorako emakumeen egoera, okertzea diferentziala izan baita, 2016an, zereginen edukiaren eta baldintzen faktorean (% 6,6ko balioa, eta % 4,8ko batezbestekoa). Adierazlea, gainera, oso gertu dago 2013ko % 7tik. Emakumeen talde horretan, gora egin du, halaber, lanaren antolamenduan hautemandako okertzea: % 2,1eko datua izan zen 2013an eta % 5,6koa izan da 2016an. Azken datu hori % 3,5eko batezbestekotik nabarmen gora dago.

Eragindako biztanlerian, hautemandako okertzea larria edo oso larria jotzen da oraindik, arazo handien eragina murriztu egin den arren

Azken lau urteetan lan-baldintzetan okertze nabarmena hauteman dutenen artean, 2016an % 11k uste du oso larria dela hautemandako okertzea, eta 2013an baino askoz gutxiago dira, % 18,5ek uste baitzuen hori 2013an. Baina egoera larritzat jotakoak ere hartzen badira aintzat, proportzioa % 67,7koa da 2016an, 2013ko % 69,2tik oso hurbil.

107. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2012. eta 2014. urteetan nabaritu da, bereziki, okertzea

2016an, lan-baldintzetan hautemandako okertzea urtez urte banatzen badugu, ikusten da arazoak bereziki 2012-2014 epealdian biltzen direla: kasuen % 82,7 epealdi horretan. Ehunekoa txikiagoa izan da 2015-2016 epealdian (% 17,3).

Eta, berez, arazo gehienak 2012an izan ziren, guztizkoaren % 49,4, hain zuzen ere. Ehunekoa % 22,2koa izan zen 2014an. Eta multzoan hartuta, hautemandako okertze-egoeren % 71,6 bi urte horietan biltzen da. 2013. urtean hobera egin zuen, aldi baterako izan bazen ere, eta hobetze-prozesua luzeagoa izan da 2015ean eta 2016an.

108. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Ordainsarien jaitsieraren eraginak beheranzko joera argia du 2016an, baina oraindik handia da zenbait taldetan.

Ordainsarien baldintzen okertzearekin lotutako beste arazo batzuk kenduta (adibidez, osagaiak eta modalitateak), azken lau urteetan zentzu hertsiko ordainsari-jaitsiera izan duten biztanleen proportzioa % 11,2koa izan da 2016an, 2013an izandako % 26,7koa baino nabarmen txikiagoa.


2016an, merkataritzako eta ekoizpeneko jarduerak izan dute, oro har, ordainsari-jaitsiera txikiena – pertsonengan izandako eragina % 6,8 eta % 9,2 artekoa izan da—. Industria-ekoizpeneko kategoria baxuak izan dira salbuespen bakarrak.

Industria-ekoizpeneko kategoria baxu horietan, ordainsarien jaitsieraren eragina tartekoa da (% 10,3 eta % 12,2 bitartekoa), eta tartekoa izan da bulegoko jardueretan ere (kategoria guztietan).

Ordainsarien jaitsieraren eragina % 15-16 ingurukoa da zuzendaritza-jardueretan (% 15) eta osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean (% 16,2). Irakaskuntzako tituludunek (% 19,4) eta bestelako zereginak (% 21,5) dituzte.

Dena den, lan-eduki guztietan hauteman da ordainsarien jaitsiera-ildoaren arintzeko joera, eta arintze hori orokorra izan da. Talde bakarrean ez da gertatzen aldaketa kualitatibo handia: industria-ekoizpeneko kategoria baxuetan (2016an % 10,3k hauteman du ordainsarien jaitsiera eta % 13,9 izan ziren 2013an). Baina aipatu behar da arazo horren eragin txikiena zuen taldea izan zela 2013an.


109. grafikoa



Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

110. grafikoan ikusten denez, 2013 eta 2016 artean ordainsarien jaitsiera izan dutenen beheranzko joera handia hautematen da sexuaren eta adinaren arabera ere.

110. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Sexuaren eta adinaren aldagaiei erreparatuz gero, azken lau urteetan ordainsarien jaitsieraren eragin txikiena izan duen taldea 30 urtetik beherakoa izan da 2016. urtean (% 1 emakumeen artean eta % 2,1 gizonen artean). 30 eta 44 urte bitarteko gizonen artean ere eragina batez bestekoa baino txikiagoa izan da (% 8,8). Eta, aldiz, soldatapekoen eta antzekoen batez besteko mailatik gora dago 30 urtetik gorako emakumeen artean (% 11,5koa 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen artean, eta 13,4koa, berriz, 45 urtetik gorako emakumeen artean). 2016an, ordainsarien jaitsieraren eragin handiena duen taldea 45 urtetik gorako gizonena da, haien % 15,9ri eragin baitie.

Ordainsarien jaitsiera izan dutenen artean, batez besteko jaitsiera % 13,6koa da

111. grafikoan ikusten den bezala, azken lau urteetan ordainsarien jaitsiera izan duten taldeen artean, batez besteko jaitsiera -% 13,6koa da, eta, beraz, ez da asko aldentzen 2013an izandakotik (-% 16,1).

111. grafikoa



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Jaitsierak izan dituztenen artean, jaitsierarik txikiak, -% 13,6tik beherakoak (gutxienekoa, -% 9,9, industria-ekoizpeneko kategoria altu eta ertainetan izan dute), talde horrez gain, kategoria baxukoek izan dituzte, bai eta bestelako zereginak taldekoek eta irakaskuntzako goi-mailako tituludunek ere.

Osasunaren arloko goi-mailako tituludunetan eta bulegoko jardueretako eta hirugarren sektoreko ekoizpeneko kategoria ertain eta altuetan batez besteko jaitsiera -% 14,5 eta -% 15,7 artekoa da. Merkataritza-jardueretako kategoria ertain eta altuetan -% 19,8 da, eta zuzendaritzan dago jaitsierarik handiena: -% 24,2.

Sexuaren eta adinaren arabera, ordainsarien jaitsiera izan zutenen artean, 2016ko jaitsierak 2013an izandakoen oso antzekoak dira. Badira, ordea, bi salbuespen, 2016an 2013an baino jaitsiera askoz txikiagoak izan dituztenak: 30 urtetik beherako emakumeak, 2016an batez beste -% 8ko jaitsiera izan baitute eta 2013an, berriz, -% 24,2koa; eta, 45 urtetik gorako emakumeak, 2016an -% 12ko jaitsiera izan baitute, eta 2013an, berriz, -% 18,4koa.

Eta, hain zuzen, 30 urtetik beherako emakumeak dira, jaitsierarik izan badute, jaitsiera txikiena izan dutenak (% 8koa, esan den bezala). Tarteko posizio batean, eta -% 11,9 eta -% 13,5 arteko jaitsierarekin, gizonen taldeak daude, bai eta 45 urtetik gorako emakumeak ere. Ordainsarien jaitsiera handiena, jaitsiera izan dutenen artean, 30 eta 44 urte bitarteko emakumeek izan dute. Izan ere, -% 17,2ko jaitsiera izan dute.

112. grafikoa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Behera egin du azken lau urteetan urteko lanorduetan aldakuntza izan duela dioen soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak. Eragindako pertsonen begirata, ordea, asko handitu da aldaketak dakarren ordu-bolumena

2016an, soldatapekoen eta antzekoen % 10ek esan du egindako lanorduen aldaketak izan dituela azken lau urteetan, 2013an baino askoz gutxiagok, orduan proportzioa % 17,3koa izan baitzen.

Kasuen % 3,5ean, aldaketa lanordu gutxiago egitea izan da (% 5,4 izan ziren 2013an) eta kasuen % 3,8an lanordu gehiago egitea (% 9,9 izan ziren 2013an). Kasuen % 2,7an tarteko egoerak agertzen dira, edo aldaketaren nondik norakoak sintetizatze konplexuagoak diren egoerak (% 2,1, 2013an).

113. grafikoa




Iturria: Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Baina 114. grafikoa ikus daitekeen bezala, lanorduen murrizketari dagokionez, 2013 eta 2016 artean, ikusten da zenbait lan-edukitan asko handitu dela lanorduen murrizketa izan duten soldatapekoen eta antzekoen proportzioa. Bereziki deigarria da osasunaren arloko goi-mailako tituludunetan (% 5koa zen 2013an, eta % 11,4koa, 2016an) irakaskuntzako goi-mailako tituludunetan (% 2,4tik % 5era pasatu da), bulegoko kategoria baxuetan (% 3,8tik % 6,8ra) eta bestelako zereginetan (% 2,3tik % 4,7ra). Zertxobait egonkorragoa izan da, ordea, zuzendaritzako jardueretan (% 5,2etik % 5,6ra). 2013 eta 2016 artean eragina txikitu egin bada ere, bulegoko lanak egiten dituzten kategoria ertaineko eta altuko soldatapekoen % 4,5ek lanorduen murrizketa izan dute (% 6,5 ziren 2013an).

Bestalde, 115. grafikoa ikusten denez, lanorduak handitu dituztenen proportzioa jaitsi egin da oro har. Baina, dena den, lanorduen igoerak 2016an pisu handia du oraindik osasunaren arloko goi-mailako tituludunen artean (% 12,8). Eta % 4,5 eta % 5,1 artekoa da irakaskuntzako goi-mailako tituludunen artean, merkataritzako jardueretako kategoria baxuetan eta bestelako zereginetan.

114. grafikoa


Soldatapekoak eta antzekoak. Azken lau urteetan urteko lanorduen murrizketa izan dutenen %, lanaren edukiaren arabera
Euskal AE. 2013 eta 2016 (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

115. grafikoa

Soldatapekoak eta antzekoak. Azken lau urteetan urteko lanorduen gehikuntza izan dutenen %, lanaren edukiaren arabera
Euskal AE. 2013 eta 2016 (%)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta



Lanorduen igoerari dagokionez, urteko batez besteko igoera 86,3 ordukoa izan da 2016an, 2013ko igoera baino askoz ere handiagoa, 49,2 ordukoa izan baitzen orduan. Katetoria altu edo ertain gehienetan 100 ordutik gorako igoera dago, zuzendaritzako eta industria ekoizpeneko jardueretan izan ezik. Merkataritza-lanetan jarduten duten kategoria baxuetan, adierazlea EAEko batez besteko orokorretik gertu dago.

Lanorduen murrizketari dagokionez, urteko batez besteko jaitsiera 142,3 ordukoa izan da 2016an, 2013ko jaitsiera baino askoz ere handiagoa, 42,5 ordukoa izan baitzen orduan. Eta kasu honetan ere batez besteko mailak gairiditzen dira maila altu eta ertainetan, eta oraingo honetan, salbuespen bakarra zuzendaritzako jarduerak dira. Orduen murrizketa handi hori, kategoria baxuetan, hirugarren sektoreko ekoizpenean ere gertatu da.

ERANSKINA: EGINDAKO LANAREN EDUKIA

Lanaren edukiaren aldagaia zehaztean, egiten den zeregina izan da ardatza, baina, horrez gain kontuan hartu da norberak zer posizio hierarkikoa duen eta zer sektoretan lan egiten duen, industrian edo hirugarren sektorean. Aldagai horiek hautatzean, kontuan izan da lanbide-kategoriak eta sektorearen baldintzatu egiten dituztela zereginen mota beraren barruan egiten diren jardueren ezaugarriak. Honako talde hauek zehaztu dira:

Kodea	LANAREN DESKRIBAPENA ¹
L1	Zuzendaritza-zereginak (kategoria altua edo ertaina)
L2	Hezkuntzako/irakaskuntzako zereginak (unibertsitateko titulazioa)
L3	Osasuna eta gorputz-ongizatea (unibertsitateko titulazioa)
L4	Bulegoko lana (kategoria altua edo ertaina) ²
L5	Pertsonetikiko harremana dakarten beste lan batzuk/merkataritza-lanak (kategoria altua edo ertaina) ³
L6	Industria-ekoizpeneko zereginak (kategoria altua edo ertaina) ⁴
L7	Zerbitzuetako/hirugarren sektoreko ekoizpen-zereginak (kategoria altua edo ertaina) ⁴
L8	Bulegoko lana (kategoria baxua) ²
L9	Pertsonetikiko harremana dakarren lana/merkataritza-lanak (kategoria baxua) ³
L10	Industria-ekoizpeneko zereginak (kategoria baxua) ⁴
L11	Zerbitzuetako/hirugarren sektoreko ekoizpen-zereginak (kategoria baxua) ⁴
L12	Aurrez zehaztu gabeko bestelako zereginak ⁵

- (1): Lanbide-kategoria hiru taldetan estratifikatu da: altua (goi-mailako tituluduna, erdi-mailako tituluduna, administrazio-burua edo tailerreko burua), ertaina (ofizial administraria, 1. edo 2. mailako industria-ofiziala edo titulaziorik gabeko laguntzailea) eta baxua (administrari laguntzailea, 3. mailako industria-ofiziala edo espezialista, peoia, mendeko langilea).
- (2): Bulegoko lanaren barruan sartzen dira bulegoko eta administrazioko zereginak (espezifikak edo dibertsifikatuak), bai eta azterketa eta programazio informatikoko zereginak eta azterlanekin zerikusia dutenak ere.

- (3): Pertsonetikiko harremanak izatea eskatzen duten lanen eta merkataritza-lanen barruan honako zeregin hauek sartzen dira: lana antolatu, zuzendu edo kontrolatzea; leihatilako, kutxako edo harrera-guneko lana; bezeroekin edo hornitzaileekin harremanetan jartzea eskatzen duten beste lan komertzial batzuk; osasuna eta gorputz ongizatea; irakaskuntza eta kultur dinamizazioa.
- (4): Ekoizpen-lanaren barruan (industrian eta zerbitzuetan) honako zeregin hauek sartzen dira: ekipamenduen instalazio eta mantentze-lana; neurketa eta probak; ekipamenduen mantentze-lana, zamalanak; automatikoak ez diren tresna eta makinekin ondasunak ekoiztea; makina eta instalazio automatizatuak kontrolatzea; enbalatzea eta ontziratzea; garraio-ekipamenduak gidatzea; baliabide naturalak ustiatzea; lokalak garbitu eta atontzea
- (5): Zaintza-jarduerak eta aurreko ataletan sartzen ez diren gainerako zereginak sartzen dira bestelako zereginetan.

L2 eta L3 lan-edukiei dagokienez, txostena idaztean, kolektibo horiek aipatzean sinplifikazioa egin eta goi-mailako titulazioa dutenen kolektibo moduan aipatzen da, eta termino hori unibertsitate-ikasketa orokorren baliokidetzat hartzen da (ikasketa horien barruan egon daitezkeen mailak gorabehera: goi-mailakoak, ertainak edo graduak eta abar).



TXOSTENAREN AURKIBIDEA

SARRERA 3

1. SOLDATAPEKOEN BILAKAERA 5

2013 eta 2016 artean soldatapeko hertsien eta kooperatibisten bolumenak jaisten jarraitzen du, baina handitu egin da soldatapekoen antzeko autonomoen kolektiboa 5

Landunen kopuruak 2013-2016 aldian izan duen dinamika ez da berbera izan lanaren eduki guztietan, ezta talde soziodemografiko guztietan ere 7

Okupazioan dinamika okerreza izaten jarraitzen dutenak kategoriatik baxuak dira, baina kategoriatik altuko eta erdiko zenbait eremutara ere zabaldu da 2013 eta 2016 bitartean..... 7

Okupazioaren beheranzko joerari eutsi zaio 30 urtetik beherako emakumeen artean eta 30 eta 44 urte bitarteko gizonen artean, baina zertxobait gora egin du gizon gazteen eta 30 eta 44 urte arteko emakumeen artean. Gorakada handiena 45 urtetik gorakoen artean izan da. 10

2. SOLDATAPEKOEN POSIZIOA EKOIZPEN-SISTEMAN ETA ENPRESAN..... 13

Soldatapeko hertsien eta kooperatibisten artean, landunen kopuruak behera egiten jarraitzen du ekoizpen-sistemako kategoriatik baxuetan, baina titulazio ertainetan eta goi-mailakoetan ere behera egin du 13

Iraupen mugagabeko kontratazioak nagusi izaten jarraitzen du, baina enpresarekiko iraupen mugagabeko kontraturik gabeko harreman-formek gora egin dute 2009tik 17

Soldatapekoen eta antzekoen ordainsariek gora egon dute pixka bat, baina 2009ko kopuruetatik urrun daude 22

Hala ere, diferentzia nabarmenak dira lanaren edukiaren eta sexuaren eta adinaren arabera 24

Enpresako posizioari buruzko beste alderdi batzuk 32

Lana mantendu duten pertsonen artean, euskal ekoizpen-sistemak oraindik sustapenerako aukera handiagoa eskaintzen du posizioak galtzeko arriskua baino, nahiz eta beheranzko joera duen 32

Soldata aldakorra dutenak gutxiengoa izaten jarraitu arren, sistema horrek gero eta garrantzia handiagoa du..... 33

Gora egin duen arren, ordaindutako aparteko orduen eragina txikiagoa da 2009ra arte izandakoa baino..... 34

Enplegu-aniztasunak eragin txikia izaten jarraitzen du 35

Askotik egin du behera sindikatuetako afiliazioak 36

2013 eta 2016 artean mugak agertzen dira enpresan euskararen erabileraren aurrerapenean 37

3. LANAREN ANTOLAKETA 39

2013 eta 2016 artean 30 ordu baino gutxiago irauten duten lanaldien eraginak handitzen jarraitzen du, baina lanaldi partzialak behera egin du (gehienetan ez da borondatezkoa izaten).39

30 ordu baino gutxiago irauten duten lanaldien gorakada.....	39
Lanaldi partzial soileko lana murriztu egin da 2013 eta 2016 artean eta, horrekin batera, handitu egin da lanaldi osoko lana.....	41
Lanaldi partzialeko lana gehienetan ez da borondatezkoa izaten (ez behintzat lan egindako orduetarako)	44
Nahiz eta behera egiten ari den 2009tik, batez besteko lanaldia 2004. urtean izandakoaren antzekoa da.....	48

2009-2013 epealdian asteko lan- eta atsedene-eredu atipikoak asko igo ondoren, pixka bat moteldu da, baina ez guztiz eta soldatapekoen talde guztietan50

Larunbat edo igandeetako lana normaltasunera itzuli da 30 urtetik gorakoan artean	50
Atsedene-ereduek okertzen jarraitzen dute.....	54
Oro har, behera egin du lanaldi luzearen (10 ordu baino gehiago jarraian) eraginak, baita gaueko lanaldiak ere, baina zenbait ñabardura daude gizonen artean	56

Txandakako lanaren pisua egonkortu egin da, baina gora egin du merkataritzako jardueretan eta bestelako zereginetan, bai eta 30 urtetik beherako gizonen artean ere.....60

Lanaldi etengabeak gora egiten jarraitzen du, baina poliki63

Lantokian bazkaltzeko ohiturak handitzeak dakarren aldatetari eusten zaion arren, bazkaltzeko atsedena malgutu egin da 2013 eta 2016 artean, eta behera egin du bazkaltzeko 75 minutu baino gutxiago dutenen proportzioak	65
---	----

Gora egiten jarraitzen du opor-egun guztiak hartzen ez dituzten pertsonen proportzioak67

2016an, batez besteko oporretako lan-egunen kopurua minimoa da 1996tik	68
--	----

2013an lortutako laneko autonomia-maila ahuldu egin da 2016an68

Lan-kategoria baxuetan, handitu egin da helburu zehatz bat eta helburu hori lortzeko modu zehatz bat ezarri haien lan-modalitateak mugatuta ez dauzkaten pertsonen proportzioa, baina txikitu egin da kategoria ertain eta altuetan, eta, bereziki, industria-ekoizpenetik kanpo	69
Zuzendaritzako eta merkataritzako kategoria altu eta ertainetan izan ezik, modu deigarrian jaitsi da ustekabeko egoerak zuzenean konpontzen zituzten pertsonen proportzioa.....	69
Handitzen jarraitzen du lan-ordutegi malgua edo nahierara alda dezaketen ordutegia duten pertsonen proportzioa, baina gora egin du ordutegi finkoa dutenen proportzioak.....	70
Gora egiten jarraitzen du, argi eta garbi, lanean presentziaren kontrolik ez duten pertsonen proportzioak, baina gora egin du, halaber, kontrol antolatua, zenbait lan-edukitan, batez ere	71
2013 eta 2016 bitartean gora egin du kontrolekin, zaintzarekin, lankideekin koordinazioarekin eta errespetatu beharreko arau edo epekin zerikusia duen presioak	73
Gora egiten jarraitzen du bazkalordua bestelako etenaldiak dauzkaten pertsonen proportzioak	73
Gora egin du oporraldia aukeratzen duten pertsonen proportzioak	74



Makina edo erreminta egokiak eskura edukitzeari dagokionez izan ezik, 2016an behera egin dute lana egiteko baliabideen egokitasunarekin lotutako arazoak	74
Gora egiten jarraitzen du laneko produktibitate pertsonalaren adierazleak 2013 eta 2016 bitartean.	76
Oraindik ere diskriminazio-arazoak daude enpresetan, eta, berriro ere, gora egin du egoera gatazkatsuen eraginak, eremu pertsonalean ezkutatzeko joera ageri den arren	77
Eutsi egin zaio diskriminazio-pertzepzioaren murrizte-joerari, baina adierazleak 2004koak baino handiagoak dira oraindik eta ez da egoera orokorra hobetu; gainera, okertu egin da 30 urtetik beherako gizonen egoera	77
Ezaugarri pertsonalaren ondoriozko indarkeria-, jazarpen- eta diskriminazio-arazoen pertzepzio-ehunekoak gora egin du 2013 eta 2016 urteen bitartean, baina igoera hori ez da arazo pertsonal jakinetan zehaztu. Enpresen datu orokorrei erreparatuta, zertxobait egin dute gora larderia-moduek eta diskriminazio sexualak.....	80
Antolaketari buruzko beste alderdi batzuk.....	83
Udako ordutegi murriztuak garrantzia galtzen jarraitzen du	83
Lanera joateko denbora luzatu egin da. Ibilgailu partikularren erabilera handia da oraindik, baina beheranzko joera apal bat ageri du	83
Zertxobait murriztu da lana eta bizitza sozial eta familiarra bateratzeko aukera; hala ere, aztertutako pertsonen gehiengoak ondo konpontzen du arazo hori.....	85
4. EKIPAMENDUEN ERABILERA, LANEKO GIROA ETA ARRISKUAK.....	89
Jarraitu egin du bulegoko lanabes informatikoen erabileraren aurrerapauso handiak	89
Moteldu egin da garraio-ibilgailuen erabileraren igoera	90
Moteldu egin da garraio-ibilgailuen erabileraren igoera-erritmoa	90
Murriztu egin da ibilgailuen erabilerarekin lotuta kalean egiten den lana	91
Egonkortu egin dira, oro har, lanaren baldintza fisikoak, baina alderdi jakin batzuk hobetu egin dira, eta beste batzuk okertu.....	92
Hobera egiten jarraitzen dute lan-eragozpenen gaineko adierazle batzuek, baina batzuk egonkortu edo okertu egin dira	92
Aldaketak izan dira, era berean, lan-karga batzuen eraginean, deigarria izan baita horietan batzuen igoera, hala nola informazio asko gorde behar izatea aldi berean, ikusmena behartzeko beharrezana edo jarrera astun edo nekagarrian lan egitea	94
Arrisku batzuen eragina egonkortu edo murriztu egin da, baina, oro har, goranzko joera izan dute arriskuek; batik bat, toxikoak, hautsa edo kea arnasteko arriskuak, zauriak eta istripuak izateko arriskuak eta jendearekin tentsioak izatea.....	96
Beti tenperatura egokian lan egiten duten pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du	100
Igoera txiki bat izan du eragozpenen, kargen eta arriskuen eraginak 2009 eta 2013 urteen bitartean (ez, ordea, kolektibo guztietan).....	100

Igoera txiki bat izan du babes-ekipamenduen erabilerak, baina ez horien erabilera behar duten esparru guztietan	102
Hobera egin du, nabarmen, laneko arriskuei buruz informazio nahikorik ez dutela uste duten langileen proportzioak	106
2013 eta 2016 urteen bitartean, behera egiten jarraitu du, ordea, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko jarduerak duten parte-hartzea. Salbuespen bakar izan dira mediku-azterketak eta segurtasun/osasun alorretako prestakuntza.	106
Behera egiten jarraitzen du lantokian laneko segurtasun-batzordeen edo prebentzio-delegatuen presentziak	107
Erritmo apalagoan bada ere, laneko bajen murrizte-prozesua finkatu egin da 2013-2016 aldian	108
Ekipamenduei, laneko giroari eta arriskuei buruzko beste alderdi batzuk	112
5. GOGOBETETZEA LANEAN	113
Lanarekiko gogobetetze orokorrak handia izaten jarraitzen du 2016an, baina gora egiten jarraitzen du gustura ez daudenen kopuruak, eta jaitsi egin da oso gogobetetze handia dutenen proportzioa	113
Joera orokorren atzean ikusten da okertze nabarmena gertatu dela lan-eduki batzuetan, eta sexuaren eta adinaren arabera taldeen arabera ere bai	114
Gogobetetasun-eza handitzearen faktore nagusiak	116
2009. urtetik aurrera, egoerak okerrera egin du oro har, eta, bereziki, sustapenaren alderdian. Azken alderdi hori da gogobetetze-ezaren faktore aipatuena 2013. urteaz geroztik	118
Okertzeko joera, aztertutako aldian, orokorra da ordainsarien eta lan-ordutegien alderdietan, baina baita, indar apalagoz eta salbuespen batzuekin baldin bada ere, estresaren/presio psikologikoaren alderdian eta lan-kargen gogortasunaren alderdian ere	119
Gainerako faktoreek, oro har, bilakaera ona izan dute 2013 eta 2016 urteen bitartean	125
Lana aldatzeari buruzko planteamenduen kopuruak oraindik txikiak dira, bereziki aldaketarako gestioak egin dituztenenak	126
6. LAN-BALDINTZEN OKERTZEARI BURUZKO PERTZEPZIOA	129
Gaur egungo soldatapekoen eta antzekoen % 23,2k dio lan-baldintzek okerrera egin dutela 2016an	129
Ordainsariak izan dira, 2016an, lan-baldintzen okertzearen faktore eragile nagusiak, eta maila askoz ere txikiagoan, lan-erritmoa, kontratu-baldintzak eta zereginen edukia	131
Eragindako biztanlerian, hautemandako okertzea larria edo oso larria jotzen da oraindik, arazo handien eragina murriztu egin den arren	136
2012. eta 2014. urteetan nabaritu da, bereziki, okertzea	136



Ordainsarien jaitsieraren eraginak beheranzko joera argia du 2016an, baina oraindik handia da zenbait taldetan.	137
Ordainsarien jaitsiera izan dutenen artean, batez besteko jaitsiera % 13,6koa da.....	139
Behera egin du azken lau urteetan urteko lanorduetan aldakuntza izan duela dioen soldatapekoen eta antzekoen ehunekoak. Eragindako pertsonen begiratuta, ordea, asko handitu da aldaketak dakarren ordu-bolumena	140
<i>ERANSKINA: EGINDAKO LANAREN EDUKIA</i>	145